

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

2009.ko Urteko Jardueren Memoria



Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
www.egk.org



AURKIBIDEA

0. AURKEZPENA	1
1. BIZI BALDINTZA MATERIALAK	
1. ENPLEGUA	2
2. OINARRIZKO ERRENTA	5
3. ETXEBIZITZA	7
4. LANDA EREMUA	12
5. BESTE ERAGILEEKIN ELKARLANA	14
6. ADIERAZPEN PUBLIKOAK	15
7. EGKKO BESTE ARLOEKIN ELKARLANA/ LANKIDETZA	16
2. KOMUNIKAZIOA	
1. EGK DIGITALA	18
2. BERRIZ BERRI	19
3. GAZTE PRESS	20
4. AHOTIK AT	21
5. BERBAKEITA	23
6. DURANGOKO AZOKA	26
7. WEB ZAHARRA	27
8. WEB BERRIA	28
9. KOMUNIKAZIO KANPAINAK/ ELKARLANAK	29
3. LURRALDE TASUNA	
1. EGKKO ELKARTEEKIKO LANA	31
2. EAEKO ELKARTE SARE/ERAGILEEKIKO LANA	46
3. ADMINISTRAZIOETAKO GAZTERIA SAILEKIN LANA	54
4. EAEKO HERRIETAKO LANA	60
5. GAZTERIA POLITIKEN EAEKO MAPA	62
4. JUSTIZIA ETA BERDINTASUNERAKO BALDINTZAK	
1. KULTURARTEKOTASUNA	65
2. HERRI ABERASTUAK - HERRI TXIROTUAK	70

**5. HEZKUNTZA**

- | | |
|-------------------------|----|
| 1. HEZKUNTZA EZ FORMALA | 73 |
| 2. HEZKUNTZA FORMALA | 86 |

6. EGKKO BARNE KOORDINAZIO TEKNIKOAK 88**7. PRESIDENTETZA** 90**8. 2009KO MEMORIA EKONOMIKOA** 91**ERANSKINAK**

- | | |
|--|-----|
| I. EGKKO ELKARTAK | 101 |
| II. EAEKO SAREAK ETA ERAGILEAK | 103 |
| III. EAEKO ADMINISTRAZIOAK | 109 |
| IV. ASTIALDI FOROKO KIDEAK | 111 |
| V. ASTIALDI KUALIFIKAZIOEN INNGURUKO DISKURTOA | 114 |
| VI. TIPI TOPA BILTZARRAREN PROGAMA | 117 |
| VII. TIPI TOPA PROZESUAREN EBALUAZIOA | 124 |
| VIII. TIPI TOPA PROZESUA HEDABIDEETAN | 132 |
| XIX. TIPI TOPA WEBGUNEETAN | 134 |
| X. BESTE ERAGILEAK | 154 |



0. AURKEZPENA

Jarraian aurkeztu dizuegun dokumentuan 2009. urteari dagokion EGKren memoriaren berri emango dizuegu. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, 2007-2011ko Plan Estrategikoa oinarri hartuz, beren proiektuak eta ekintzak xede bat lortzera bideratuak ditu, hau da:

“Gazteen bizi baldintzen osoko hobekuntzaren alde egitea, parte hartze sozialaren sustapenaren bitartez eta erantzunkizun publikoa oinarritzat hartuz.”

Helburu orokor hau lortzeko, sei lan ildo estrategiko zehaztuta ditu Kontseiluak:

- Barne funtzionamendu egokia bermatzea.
- Era askotako eragileentzako erreferente eta berrikuntzen iturri izatea, batez ere, gazteria eragileentzako.
- Gazte elkartegintza mugimendua sendotzea eta baita pertsona gazteen parte hartzea ere.
- Gazteria politika publikoen hobekuntzan gehiago eragitea.
- Pertsona gazteek beraien hiritartasuna egikaritu dezaten bultzatzea.
- Eredu parte hartzaile eta eraldatzaileen bitartez gizarte zuzenago bat eraikitzen laguntzea.

Ildo hauek, sei lan arloen bitartez garatzen dira, hain zuzen, arlo hauetako bakoitzean martxan jartzen diren proiektuen bitartez.

Hezkuntza

Formala

Ez formala (Astialdia)

Bizi Baldintza Materialak

Osasuna

Enplegua

Etxebizitza

Justizia eta Berdintasunerako Baldintzak

Generoen arteko ekitate eta berdintasuna

Kulturartekotasuna

Gatazken Ebazpena eta biolentzia eza

Herri txirotuak eta Aberastuak

Komunikazioa

Lurraldetasuna

Barne Koordinazio Teknikoa

Memoria honetan, 2009. urtean, EGK-k bere lan arlo ezberdinetatik, EAEn burutu dituen proiektuen azalpena ematen dizuegu, lortu ditugun helburuak aipatuz eta etorkizunari begira izan dezaketen jarraitasuna azpimarratuz.



Zerrendatu diren ekintza gehienetan EGKko kide diren elkarteen babesak izateaz gain, esparruan lanean diharduten eta haur eta gazteen sailean paper garrantzitsua jokatzen duten beste hainbat eragile aritu dira. Beste batzutan aldiz, teknikoagoa izan den lana burutu dugu, EGKk horretarako duen lantalde teknikitik landua izan dena. Erronka, elkarteak, mugimenduak, plataformak... EGKren jardueran geroz eta gehiago inplika daitezzen lortzea da. Haien aldetik geroz eta eskaera gehiago jasotzea gazte mugimenduari behar duten zerbitzu hori emateko, haien eskaerak bideratzeko, modu koordinatuan arazoak gainditzen joateko, eta Administrazio publikoekin bitartekari lana egiteko.



1. BIZI BALDINTZA MATERIALAK

1.1 ENPLEGUA

Gazteok eta Enplegua jardunaldiak

“Ilaratik irtengo gara? Enpleguko gazte politika batentzako alternatibak”

Iazko jardunaldien antolaketaarako sortutako lantaldean agertutako behar bati erantzuna eman eta proiektu berari jarraitasuna emateko asmoarekin, enpleguko lantaldeko kideekin batera (CCOO, JOC eta Gazte Komunistak) osatu genuen jardunaldi hauek egiteko proiektua.

Helburu nagusia “Gazteok eta enplegua” gaiaren gaineko formakuntza eta eztabaidarako espazioa sortzea izanik, aurtengo jardunaldien asmoa prekarietatea, malgutasuna eta langabezi egoera pairatzen duen gazteriaren beharrei erantzuteko gai izango den gazte enplegurako politika batentzako alternatibak bilatzea izan da. Bestalde elkarteetako gazteak, administrazioako teknikariak eta maila politikoko arduradunak erlazioan jarri nahi izan dugu.



Proiektua ezagutzera emateko dagokion difusio kanpaina burutu da, euskarri digital eta paperezkoan; honetaz aparte, esfortzu zehatza egin da deialdia sare sozialen bidez egiteko (facebook etab.).

Jardunaldiak bi saio ezberdinetan eman dira (Urriaren 7 eta 8an) Bilbon eta Donostian. Lau ordutako iraupena izandako bi saioetan, Pablo Lopez Callek (UCM, irakaslea eta ikerlaria, gazte enpleguan aditua) gidatutako formakuntza tarteari eta alternatibak plazaratu eta adosteari begirako eztabaidari ekin zitzaion. Guztira 50 pertsona inguru parte hartu dute, lurralde, sexu (%45 emakumeak eta %55 gizonak), adin eta eremu anitzetakoak (gazte elkarteak, sindikatueta kideak, gazte eta enplegu teknikariak, kargu politikoak eta enpresetako kideak).



Hortaz gain, bi saioetan hizlari izan genuen Pablo Lópezek emandako diagnosiarekin eta eztabaidetan ateratako ondorioekin garatutako Txostenaren 800 ale argitaratu eta gizarteratu ditugu.

EGK barruko lan taldea indartu eta egonkortu da, helburuetatik haratago erantzuteko gaitasuna erakutsiz.



Bestalde, saioetan izandako parte hartzea nabarmenki igo da eta aurten bi lurraldeetan antolatzea modu positiboan kontutan hartzen dugu.

Parte hartzaileen aniztasunak ere saioen eztabaidaren kalitatea hobetzea ekarri du eta hauek burututako ebaluazioaren arabera saioek 5tik 3.8ko puntuazioa jaso dute.

Eztabaida saioetan plazaratutako proposamenak eta gaiari loturiko zenbait puntuetan eskuratutako adostasunetik sortu den materiala eta diskurtsoa erabilgarritzat jotzen dugu.

- Lantaldearen jarraikortasuna: bilera bat hilean Uztailetik Abendura
- Jardunaldiak: 2 egun eta 2 lurraldeetan.
- Komunikazio bitartekoak: 4000 gonbidapen eta 300 kartel.
- Parte hartzaileak: eremu ezberdinetako 50 pertsona.
- Parte hartzaileen ebaluaketa: 3,8 / 5.
- Ondorio txostena: 800 ale, 500 bidalketa eta difusio kanpaina.

Gai honen gainean formazioa eta eragile ezberdinen arteko erlazioa baliatzeko esparruak beharrezkoak diren heinean, jarraipena izan dezaten saiatuko gara, hasitako bidea jarraituz eta saioen kalitate eta interesean sakonduz. Pixkanaka eremu ezberdinetako eragile eta pertsonen arteko eztabaidari esker gaiaren gainean garatzen ari garen irakurketa eta neurri multzoetan sakontzeko beharra dago; honelako ekimenak elkar ezagutze hori ahalbidetzen dutelako beharrezkoak dira.

Lan Istripuak

Proiektu hau Presidentearekin eta Komunikazio Teknikariarekin batera garatu da. Egitasmoa abian jarri zenetik bezala, Apirilaren 28an (Lan Istripuen Kontrako Nazioarteko Eguna) eta lan istripu baten kausa gazte bat hiltzen denean adierazpen publiko bat egitean datza.

EGKk dituen hedabide propioen bidez, EAEn gazte bat lan istripu baten kausa hilda suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egiteko asmoarekin eta Apirilaren 28ak irekitzen duen aukeraz baliatuz, hedabideetan gazteek pairatzen dituzten lan istripuei buruzko iritzi artikulua plazaratu genuen. Horretaz gain, EAEn lan istripu baten kausa gazte bat hiltzen den bakoitzean prentsa ohar plazaratzeko protokoloa aurrera eraman izan da.

Ekimena aurrera eraman da jarraikortasuna izan du urtean zehar.

- Ekintzaren jarraipena: ona, urte guztian zehar
- Inpaktu komunikatiboa: nahikoa

Protokoloarekin jarraitu eta Apirilaren 28aren inguruan zer edo zer egiteaz gain, Eusko Jaurlaritzak udaberrian gai honen inguruan gauzak egiteko irekitzen duen diru laguntza deialdian parte hartzeko proiektua garatuko dugu.



1.2 OINARRIZKO ERRENTA

Txostena: "Gazte emantzipazioa eta Hiritartasunerako Oinarrizko Errenta"

Enplegua eta hiritartasunaren arteko harremanak aztertzeko 2008an ospatutako jardunaldietan sortutako kezkatik eratorrita eta 2008an zehar Oinarrizko Errentari buruz burututako mintegi eta eraturako sarean izandako esperientziatik sortutako proiektua dugu.

Honela, EGK barnean gai honen inguruko hausnarketa propioa egin eta berau gizarteratzeko asmoarekin, gazte prekaritatea eta emantzipazioaren auzian oinarrizko errenta unibertsalak izan dezakeen eragina aztertzen duen txosten bat garatu dugu.

Presidentetzarekin elkarlanean, EGK gazte emantzipazioaren inguruan egindako hausnarketatik abiatu eta egungo testuingurura egokituz, lan baldintzen eta emantzipazioaren diagnosi bat egin da. Hortik, egungo oinarrizko errentatik unibertsalera eta baldintza gabeko batera igarotzean gazteen bizi baldintzetan eman daitezkeen hobekuntzak laburbiltzen dituen dokumentua garatu da. Dokumentu honen 500 ale inguru kaleratu eta gizarteratu dira.

EGK moduan gaiaren gainean egindako lehengo adierazpen publikoa eta hurbilpen teorikoa izan da, positiboki baloratzen dugu. Hala ere, txostenaren difusioa urtearen azken hilabeteen egiterakoan zailtasunak izan ditugu honen jarraipena egiteko eta eragile ezberdinekin kontrastatzeko.

- Presidentziarekin bilera 1
- Txostenaren 200 ale

Txostena, EGKren barruko eta kanpoko gazte eragileekin gaia jorratzeko tresna ona da. Gai honen inguruan EGKren berezko analisisa eta ikuspegia gizarteratu beharko genuke. Horrela, dokumentuaren ildo nagusiak azaldu eta proposamenaren gainean eztabaida ahalbidetzeko saioak antolatu daitezke, proposamenean eta diskurtsoan sakontzeko.

Oinarrizko Errenta Sarearen IX.Sinposum-a

Proiektu hau Presidentearekin batera garatu izan da. 2008an EAE mailan Oinarrizko Errentaren inguruan gizarte mailako eragile ezberdinekin





batera (Ezker Gogoia, EHNE, ESK, Gazte Berdeak, Argilan, Txiroekin Bat Eginez, EHU) hasitako ibilbidearen ondorioz, lan talde egonkorrago bat osatu eta bertan parte hartu izan dugu, zeregin nagusia sinposiumaren antolaketa izanik.

Helburu nagusia 2008an sortutako sarea eta abiatutako lan dinamika finkatu eta berau aurrera eramateko beharrezkoak diren ardura eta jarrera hartzeaz gain, lan prozesua zehar gizarte eragile gehiagorekin kontaktatzea izan da.

Urte guztian zehar jarraipen bileretan parte hartu izan dugu eta elkarlan horren harira, maiatzaren 26an gizarte mugimenduetako eragileei zuzendutako mintegia diseinatu eta antolatu genuen.

Hortaz gain Oinarrizko Errentaren sarearen laguntzaz, Azaroaren 21 eta 22an Bilbon ospatu zen Oinarrizko Errentaren Sinposiumaren antolaketa lanetan aritu ginen, zenbait ardura gure gain hartuz eta EGKren baliabideak proiektu honen mesedetara jarritz.



Sinposium-en arrakasta nabarmena izan da, prozesuan zehar landu diren haramanengatik (taldeko kideekin eta bestelako eragileekin), sinposiumean egondako parte hartzaileen kopurua eta aniztasuna (arlotan akademikoak, gizarte mugimenduak eta gizarte langileak).

EGKren papera, bizi baldintzetako teknikaria eta presidentearena, biak kontutan izanik, pisuzkoa izan da eta diskurtso propioa garatzea zein eztabaidetan gazte ikuspegia txertatzea ahalbidetu du.

- Prestakuntza bilerak, 6 inguru.
- Inplikaturako taldeen kopuru eta aniztasuna handia. Talde eragileko elkarte kopurua: 7
- Gizartearengan lortutako inpaktua: minimoa, difusioan eta prentsan landutakoa.
- Gizarte taldeen artean eta erakundeengan lortutako eragin handia
- Sinposiumaren iraupena: 2egun
- Sinposiumean parte hartzaile kopurua: 80 ingurukoa

Aurrera begira, Sinposiumari esker landutako harremanak elikatu eta datorren urtean aurreikusita dagoen lan taldearen berregituraketa prozesuan parte hartzea dagokigu, sortu daitekeen taldean eta proiektuetan gazte ikuspegia txertatu eta modu proaktiboan parte hartuz.



1.3 ETXEBIZITZA

Etxebizitza Politiketari Parte Hartzeko Foroa

2007tik hasitako ibilbidearekin jarraituz, foroan parte hartu eta honetan gure ekarpenak egiteaz gain EGKren esku egon diren baliabideak honen mesedeetara jarri ditugu.

Bertan, beste eragileekin batera¹ etxebizitza legearen osaketa prozesua aprobetxatuz, foroak hiru gaien gaineko (hots, etxebizitzarako eskubidea, alokairu publikoa eta etxebizitza hutsak) eztabaida eman eta ekarpenak egiteko lanean jardun du, gobernu eta administrazioarekiko harreman zubia irudikatuz.

Foroaren web gunea (www.etxebizitza.com) finkatu eta hitzartutakoaren arabera, parlamentuan aurkeztu beharreko fiskalitatea eta desjabetzearen inguruko txostenak garatu izan dira. Hala ere, 2009aren maiatzaren egondako gobernu aldaketaren ondorioz, dokumentu hauen lanketa eta foroaren dinamika orokorra baldintzatuak izan dira. Alde batetik, Foro moduan orain arte izandako Gobernuarekiko harremana eten da (etxebizitza arloko gobernuko ordezkariarekin mantendutako bileran eta bestelako hartu emanetan adierazi den bezala), eta bestetik idazkaritza teknikorako kontratua (AZ Procesos Participativos-en esku zegoena) ez da berritu, taldearen abiadura moteldu delarik.



Gauzak horrela, bileren jarraikortasuna mantendu da eta Foroaren betebeharrak zehazteko lanetan gure ekarpen maila mantentzeaz gain handitu egin dugularik (idazkaritza teknikoko zenbait ardura gure gain hartuz).

Aurreikusitako ekimenak gutxi gora behera aurrera eramanez. Hala ere, Foroaren dinamika moteltzeaz gain, dokumentuen produkzioan eta administrazioarekiko harremanean atzera pausoak egon dira. Dena den, talde eta eragile desberdinek aurrera egiteko eta lanean jarraitzeko interesa erakutsi dute eta EGKren papera proaktiboa izan da uneoro.

- Prestakuntza bilerak, hilero behin.
- Sortutako dokumentuak: 2
- Foroan izandako proaktibitatea: handia

Garrantzitsua da garatutako diskurtsoari jarraitasuna ematea eta eragile desberdinek konpartitzen dugun espazio amankomun hau mantentzea, baina foro moduan birdefinitu eta beste eragileengana zabaltzeko baldintzarekin. Gaur egun etxebizitzaren inguruan eragile desberdinak batzen dituen gune bakarrenetarikoa izanik premia handia da hau mantentzea.

¹ EGK, Ezker Gogoia, Harresiak Apurtuz, CC.OO, EHNE, Kepasakonlakasa, Caritas Bizkaia, Gazteleku eta Etxebizitza Sailburuordetza, AZ Procesos Participativos enpresaren idazkaritza teknikoaren laguntzarekin



Aurreikusitakoaren arabera, datorren urtean foroak jarraituko du eta egitasmo berriak martxan jarriko dira.

Hizpideak: Gazteok eta Etxebizitza

EAEn gazteen etxebizitzarako eskubidearen egoeraren azterketaren 4. berrikuspena den *Hizpideak 5* argitalpena ezin izan da aurrera eraman. Arloko ardura teknikoan emandako erreleboa batetik, lan pilaketa bestetik eta azkenik etxebizitza arloan eta politiketan aurreikusten diren aldaketak direla eta, argitalpena atzeratzearen alde egitera eraman gaituzte.

Datorren urteari begira ordea, diagnosi berritua egiteko momentu aproposa izango delakoan gaude, EGK osatzen duten elkarteekin batera hausnarketa eguneratu eta eman diren testuinguru aldaketen aurrean gazteen etxebizitzarako sarbidearen gaineko azterketa beharrezkoa delako.

Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saitetik martxan jarritako *Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean* parte hartzen ari gara. Honen helburua etxebizitza arloan dauden gizarte-eragileen eta eragile publiko zein pribatu guztien artean adostasuna lortzea izanik, gazte eragile moduan deituak izan gara.

Gure asmoa EGK-k urtetan zehar garatu izan duen diskurtsoa bertan defendatu eta gazteen etxebizitzarako sarbidea bermatuko duten politiken alde egitea, etxebizitzarekin zerikusia duten beste eragileak ezagutu eta gobernu berriarekin hartu emana ahalbidetzea izan da.

Ituna lortzeko prozesua hastapenetan dagoen arren, izan ere, prozesu guztiaren lehengo urratsa den *World Cafe*-a baino ez da egin, bertan aktiboki hartu dugu parte.

Lehenengo saio horren izaera ikusita eta ondorioak jasotzean prozesuak dauzkan mugekin topo egin dugu, bertan plazaratutakoak legean izango duen eragina ez dagoelako argi eta denbora aldetik estu samar garatzen ari delako.

Itunean parte hartzeak gobernuarekin egon litekeen komunikazio zuzena eteten du, kanal honen bidez ematen baita hartu eman fluxu bakarra eta Etxebizitza Politiketan Parte Hartzeko Foro Sozialari zilegitasuna kendu diolako.

- Izandako bilera kopurua: 1
- Kontaktuak: nahiko

HACIA EL PACTO SOCIAL POR LA VIVIENDA
ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA
LORTZEKO BIDEAN





2010.urteko lehenengo hiru hilabeteen osatuko diren mahai sektorialetan parte hartuko dugu. Hala ere itunean parte hartzeak suposatzen duena argitu beharra dago.

Etxebizitza Gazteontzat

2008an abian jarri eta ekimen gehienak urte horretan garatu zituen Bilboko Plataforma honen itxiera prozesuan parte hartu dugu. Gazte eragile eta gizarte eragile anitzekin batera etxebizitza eskubidearen aldeko diskurtsoa gizarteratu eta honen aldeko ekimenak gauzatzea izan da gure asmoa.

Lan dinamika moteltzearekin eta zenbait eragileen interesetan emandako aldaketa dela eta, plataformak bere ibilbidearekin amaitzea erabaki zuen.

Ekimenarekiko geneuzkan aurreikuspenak ezin izan dira bete (kalera begirako ekimenak eta komunikabideetan agertzea), ez delako la dinamikaren jarraitu. Hala ere, Bilboko gazte eragile eta gizarte eragile ezberdinekin egon den elkarlana positiboa izan da.

- Komunikabideetan izandako oihartzuna: EZ.
- Parte hartutako eragile kopurua: 10 inguru.

Ez du jarraipenik izando

EAPNko Etxebizitza lantaldea

Etorkinentzako etxebizitza programen ebaluaketa prozesua

EAPN-Euskadik abian jarritako etorkinei zuzendutako etxebizitza programen ebaluaketa prozesuan parte hartu dugu. Gure asmoa etxebizitza arloan lanean dauden beste eragileekin jardutea, egitasmoa ezagutzea eta gure diskurtsoa edota gazte ikuspegia bertan plazaratzea izan da.

Pobrezia eta giza bazterketaren
aurkako europar sarea Euskadin

Red europea de lucha contra la pobreza
y la exclusión social en Euskadi

European Anti Poverty
Network in the Basque Country



Horretarako, etxebizitzako lan taldean parte hartu izan dugu eta bertan, immigrazioa arloan etxebizitza duinen eskuragarritasuna errazteko ematen diren praktika onen inguruko gomendioekin garatu den dekalogoaren lan prozesuan gure ekarpena egin dugu.

Prozesuan gure parte hartzea aurriusitakoa izan da.

- Prozesuan egindako ekarpen maila: ona.
- 2009an txostena bukatu eta kaleratu da, ez da jarraipenik aurreikusten



Etxebizitza duina guztiontzat

Sindikatuak eta sozio-ekonomiko arlo eragileak

Etxebizitza Itun Soziala dela eta zenbait sindikatu eta gizarte mugimenduko eragileekin batera elkarlan puntuala sortu da.

Gure helburua, etxebizitza eskubidearen aldeko beste eragileekin sareak sortzea izan da, elkarlanetik lortu daitekeen oihartzuna aprobetxatzeaz aparte. Elkarlanaren edukia Itunaren salaketa egitea izan da.

Bilera bakarra mantendu da eta harremana nagusiki komunikatu bat prestatu eta kontzentrazioa antolatzean zentratu da.



Proiektzio txikia eta laburra izan duen ekimena izan da, hala ere, jarritako helburuak bete ditugu.

- Arloan lanean diharduten eragileekin hartu emana eman da.
- Oihartzun publiko minimoa lortu da.

Ekimen honek ez du jarraipenik izango.

Lurralde Ordenamendurako Irizpideak

Gipuzkoako lurraldeko koordinatzailearekin batera garatutako egitasmoa da hau. Lurraldearen antolamenduak gazteon bizi baldintzetan, bai etxebizitzaren eskuragarritasunean zein espazioaren antolamenduan duen eraginaz jabetuta, gaiaren inguruko informazioa jaso eta diskurtso propioa garatzen hasi gara.



Horretarako, Eusko Jaurlaritzak 2009an idatzi eta jorratu nahi zuen gai bat zela jakinda, Copenhagen-go klima aldaketa gailurra egonda eta EHNEren proposamenari erantzunez, sustengarritasuna oinarri zuen "DOT alternatiboak" idazterei ekin diogu, ondoren EGKk bere dokumentotzat jaso zezan. Bertan lurralde antolamenduarekin harreman dute esparru ezberdinei dagokion ideia multzoak bildu dira, printzipioetatik ekintza konketuagoetara dihoaztenak.

Honela, dokumentua garatzeaz arduratu den EGK barruko lan taldean Gipuzkoako koordinatzaileak parte hartu duen arren, arloari (etxebizitza) dagokion puntua garatzeko arduratu egokitu zaio, beti ere EGK-k gaur egun arte jorratutako ildo diskurtsiboarekin jarraituz.



Hortaz gain Bilbon ospatutako *Euskal Hiria VIII. Kongresuan* parte hartu dugu, bertan eskuragarri egon den informazioaz buzti eta gai jorratzen duten bestelako gazteekin ere sareak eraitzeko intentsioarekin.

Dokumentua garatzerakoan beste eragileekin batera aritu gara eta zenbait elkarteekin harremanak eguneratu ditugu. Etxebizitza arloari dagokionez, EGKren diskurtsoa barnebiltzen duen dokumentua egitean, etxebizitza arloako proposamenak dokumentu bakar baten zentralizatu dira.

Dokumentua EGK elkarteekin batzorde iraunkorrean onartu eta kanpoko eragileekin lantzea dagokigu, ardura arloko teknikariaren esku utziz. Hortaz gain, eta ekintza osagarri bezala, jendarteari begira, lurralde antolamendu eta espazio publikoaren antolamenduren gaian gazte ikuspegia lantzeko hitzaldi edo tailer zehatzak antolatzea ere aurreikusten da.

Bilboko Udala, PGOUaren berrikuspena (Plan General de Ordenación Urbana)
"Zer nahi du hiria/herriak? Los diferentes prismas en la planificación urbana de Bilbao"

Bilboko Udalak, Parte Hartuz-en laguntzaz (EHU) PGOUaren berrikuspenaren inguruan herritarren iritzia jasotzeko ospatutako saioetan parte hartu dugu. Gazte eragile bakarra izanik bertan gazteen etxebizitzarako sarbidea erraztuko duten politiken aldeko iritzia eman genuen.

Saioak 2009ko Ekainean ospatu ziren Bilbon eta ostean ondorioak jaso eta ekarpenak egiteko tartea ere egon zen.

Parte hartzeko aukera mugatu izan da, planaren errebisioaren hasietarik baino momentu konkretu batean bakarrik eman baita, baina diskurtsoa bertan plazaratzen ahalegindu gara. Hala ere, aproposagoa litzateke EGK beharren Bilboko bestelako gazte eragileak parte hartu izana.

Prozesu honen etorkizuna ez dago argi; dena den, hemendik aurrera Bilboko gazte elkarteak parte har dezaten ahaleginduko gara.



1.4 LANDA EREMUA

Hizpideak **Gazte Baserritarrak**

Proiektu hau Presidentearekin batera garatu da. 2008an, landa eremuko gazteen bizi baldintzen gaineko azterketarekin hasitako lanari jarraipena emateko, Hizpideak 4. "Gazte Baserritarrak" liburuxkaren edizio eta publikazioari ekin diogu.

Modu honetan, EAEko gazte baserritarrek bizi duten testuingurua eta bizi baldintzen diagnosia gizarteratu eta berau hobetzeko edo gainditzeko dauden aukerak ezagutzera eman nahi izan dira. Bide batez instituzioak interpelatu nahi izan ditugu.

Honetarako, dokumentuan, nekazaritza eta landa eremua osatzen duten faktoreei so eginda, sektore honetako langile gazteen egoera laburbildu da, 2008an egindako ikerketatik edanda baina bestelako iturriak erabiliz.

Berau egiteko lan teknikoaz gain, EGK-ko taldeen inplikazio bilatu da. Horretarako presidentziarekin bermatu den uneoroko kontrasteaz aparte, EHNErekin kolaborazio estua egon da, txostenaren erredakzioaren zati bat euren gain utzi delarik. Bileraz ezberdinak egin dira txostenaren zirriborroaren berrikuspen tekniko eta ideologikoa egiteko.

Dokumentuaren publikazioari ekin arren, arlo teknikoan egondako erreleboagatik batetik eta txostena egokitzeak (erredakzio finala eta itzulpena) suposatu duen denboragatik bestetik, ezinezkoa izan da honen aurkezpen kanpaina egitea, epeak atzeratu baitira.

Ezin izan dugu dokumentuaren zabalpena egin, baina prozesuan zehar berenganatutako jakintza eta sortutako sareak positiboki baloratzen ditugu.

- Erakundeekin prestakuntza bilerak, 6 inguru.
- Txostenaren komunikazio kanpainarekin lortutako oihartzuna: EZ

Datorren urtearen hasieran, publikazioaren gizarteratzeari ekin behar diogu, administrazioari aurkeztuz, aurkezpen publiko baten bitartez eta liburuxkaren banaketarekin. Horretaz gain, eduki hauetatik abiatuta, gazte baserritarren beharren aldeko ekimenak eta euren errealitatearen ikusarazteari begirako ekimenetan sakondu beharra dago, landa eremuko gazte elkarteekin harremanetan eta lanean.



Elikadura Subiranotasuna

“Zer da Elikadura Subiranotasuna? Mintegiak”



2008an, landa eremuko gazteen bizi baldintzen gaineko azterketarekin eta Hizpideak-en erredakzioarekin batera datorren proiektua da, landa eremuko gazteen eta gazte baserritarren bizi baldintzak hobetzeari begira elikadura subiranotasunaren ideiak izan ditzakeen onurak eta suposatzen duena ezagutzera emateko hitzaldi-tailerrak antolatzean datzana.

Helburu nagusia elikadura subiranotasunaren kontzeptua ezagutzera ematea izan den arren, elikadura subiranotasunari lotutako gazteen eta gazte elkartearen arteko sareak bultzatzeaz gain, beste eremuetako eta landa eremuko gazteen arteko elkar ezagutza bultzatu nahi izan da.

Horrela, EHNEkin batera bi orduko iraupeneko tailerrak diseinatu eta lurraldeko koordinatzaileen laguntzaz, deialdi irekia egin eta hiru lurraldetako hiriburuetan (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) aurrera eraman dira (Urriaren 28, 29 eta Azaroren 4an hurrenez hurren). Bertan herri bakoitzak behar dituen elikagaiak ekoizteko izan beharko lukeen askatasunaz eta hau garatzeko ematen ari diren aukeraz izan ginen berbetan, kontsumitzaile eta nekazari gazteen esperientzietatik abiatuta. Guztira, 30 gazte inguruk parte hartu dute. Gazte hauen profila, anitza izan da: nekazaritza eta geografia ikasleak, gazte asanbladetakako kideak, gobernu kanpoko erakundeetako kideak, gazte nekazariak, kontsumo taldetako kideak etab.





Deialdia egiterakoan tailerren edukiak gizarteratu dira hein batean eta elikadura subiranotasuneran ideia mahai gainean jarri da nolabait (prentsan eta telebistan). Bestalde, tailerren formatoa eta garapena oso positibotzat jotzen dugu, dinamikoak izateaz gain mamitsuak ere badirelako.

Tailerren difusioa egiterakoan elkarte askorekin harremanetan jarri gara eta gainera partehartzaileen aniztasunak helburu moduan markatutako hartu emana bermatu du.

Hiriburuetan bakarrik egin izana ez du ahalbidetu interesa izan dezaketen gazte askoren partehartzea.

- Prestakuntza bilerak, 2 inguru.
- Difusioa: 200 triptiko, telebista, irratia, prentsa.
- Saioak: 2 saio hiru hiriburuetan
- Partehartzaile kopurua: 30 inguru

Hiriburuetatik aparte, proiektua herrietako gazteengana ere zabaltzea komenigarria litzateke.

1.5 BESTE ERAGILEEKIN ELKARLANA

Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua

Bertan 2007tik parte hartzen dugu. Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua organo aholku-emailea da, eta organo horretan gizarte-zerbitzuen eremuan lan egiten duten entitateek, elkarteak, sindikatuak etab.ek hartzen dute parte, gizarte-ongizate alorreko proposamenak plazaratu eta Eusko Jaurlaritzarekin lantzeko helburuarekin.

Gure asmoa EGKren diskurtsoa bertan defendatu eta gazteen bizi baldintzen hobekuntza bermatuko duten politiken alde egiteaz gain, beste eragileak ezagutu eta gobernu berriarekin hartu emana ahalbidetzea izan da.

Urtean zehar bilera ezberdinetan parte hartu dugu.

Urte honetan zehar, ardura teknikoan emandako erreleboaren ondorioz, geure burua kokatzen ari gara eta egindako ekarpenak ez dira oso nabarmenak izan, hala ere, aurreko urtetako esperientziak ageri agerian utzi dute mota honetako organoek dauzkaten mugak eta guk hauetan ekarpenak egiteko dauzkagun mugak ere (ekimen guztietan diskurtsoa eguneratuak garatzeko behar den denboragatik batez ere).

- Izandako bilera kopurua: 5 inguru
- Kontaktuak: nahiko



2009. urtean Gizarte Ongizate Kontseiluan mantenduko gara eta saiatuko gara honen funtzionamendu eretan, elkarteen parte hartzea era garbiago eta indartsuagoan izan dadin, eragina izaten.

Beste Gazte Kontseiluekin eta sareekin elkarlana

Aurten Espainiako Gazte Kontseiluarekin (CJE) bakarrik ohikoa den erlazio mantendu da, batez ere etxebizitzaren gaiari dagokionez. Hortaz gain KABUEÑES 09 nazioarteko gazte topaketetan ere parte hartu dugu, estatu mailako eta nazioarteko kontseilu kide, elkarrekin eta gazteria zerbitzuteako kideekin batera.

CJErekin Informazio trukaketa jarotasuna egon da. Aurten, agenda arazoak medio, ezin izan dugu Etxebizitza Politikak Planifikatu eta Ebaluatzeako Foroan parte hartu izan.



Kabueñesen hirigintza sostengarriaren lantaldean parte hartu dugu, eta seguru asko gaia datorren urtean jorratzen hasiko garenez, hurbilpen teoriko ona suposatu du, beste lurralde ezberdinetako esperientzia positiboak eta interesgarriak ezagutzea ahalbidetu diguna.

CJErekin aurreikusten genuen elkarlana ezin izan dugu behar bezala mantendu arloan egondako erreleboa eta lan kargatik ezin izan baitugu etxebizitza lan taldean parte hartu. Hala ere minimoak bete dira, komunikazioa bermatu delako. Beste kontseiluekin, NGK eta EHKGrekin ez da ezer jorratu, kontseilu hauen dinamikatik.

- Mantendutako bileren kopurua: 0
- Elkarren arteko erlazioaren kalitatea: ona
- Aurrera eramandako ekimen kopuru eta kalitatea: 0

CJErekin daukagun erlazio eta elkarlana mantentzea da perspektiba, bestalde EHKG eta NGKri begira haien plangintza eta asmoetara erreparatuz lan egiteko irekitzen diren esparruak baloratuko dugu.

1.6.ADIERAZPEN PUBLIKOAK

Hiru motatakoak izan dira egindako balorazio edo posiziomenduak. Batetik iritzi artikulua formakoak, bestetik txosten mamitsuagoak eta azkenik elkarrikeria edo interbentzio erako momentuko adierazpenak. Presidentziarekin koordinatuak izan dira plazaratutako gehienak.

Helburua hainbat gaien inguruan EGKren diskurtsoa hedabideetan (iritzi artikulua, txostenak,...) plazaratzea eta une-unez gaurkotatzean gazteoi eragiten gaituzten gaien gaineko iritzia ematea, gazte emantzipazioaren perspektibatik.



Iritzi artikuluei dagokionez, bi egin eta bi publikatu dira, bata etxebizitza politika berriaren gainekoa (Gara, Berria, Diario de Noticias de Alava de Gipuzkoa eta Deia publikatutakoa eta blog ezberdinetan agertutakoa) eta bigarren bat *deshaucio expres* lege moldapenaren ingurukoa (Deian eta Garan agertutakoa).

Aurten, plangintzan zehaztutakoaren arabera, kaleratu den txostena Oinarrizko Errentaren ingurukoa izan da (memorian, enpleguaren atalen zehazki azalduta datorrena), oraindik zabalpen prozesuan dagoena.

Eta azkenik, erritmo nahiko biziarekin, momentuko gertakarien gainean iritzia eman da gunee eta medio anitzetan: Irratian (Radio Ser, Radio Vitoria, Euskadi Irratia, Bizkaia Irratia, Hala Bedi eta Tas-Tas irratia), Telebistan (ETB2, "Pásalo"-n) eta egunkari zein aldizkarietan (Deian, El Paisen, Bilboko Udaleko egunkarian, DATO aldizkarian).

EGK lantzen ari den gai ezberdinen iritzia plazaratzeaz gain unez-uneko gaurkotasunari erantzuteko gaiztasuna erakutsi dugu.

Aurreikusita zeuden gai batzuk ezin izan dira jorratu (aurrekontuak) eta zeregin honek esperotakoa baino dedikazio handiagoa eskatu du. Hala ere, eman den erantzuna ona izan da, kalitatean eta kantitatean, eta medioek gugana jotzeak EGK gazteriaren erreferentetzat jotzen dutela adierazten digu.

- Hedabideetan lortutako oihartzuna: handia

Aurtengo plangintzatik bete ezin izan diren gaiak lehenetsiz jarraituko da ildo honekin.

1.7. EGKko BESTE ARLOEKIN ELKARLANA

EGKk antolatu zuen Berbakeita, "Gazteak eta Komunikabideak" izeneko World Caffea, Gazteak komunikabideetan nola ikusten diren aztertu nahi zen eragile desberdinen eskutik.

Ekitaldi hau Gipuzkoan, Azaroak 26ean burutu zen, komunikazio arduradunak antolatu eta kudeatuta.

BBM teknikariaren lana egunean bertan antolaketan aritzeaz gain, mahai bat dinamizatu eta ondorioak idaztean oinarritu zen.

Helburua, komunikazio teknikariari laguntza teknikoa ematea izanik bete zela esan dezakegu.

- Jarrera proaktiboa: bai
- Eskainitako laguntza: ona

Datorren ikasturtean ere beste arloetako beharrei erantzuteko premia dagoenean ekipo teknikoaren arteko elkarlana sustatuko da.

**AHOTIK AT 7****Emakume gazteak.**

Ahotik at aldizkari monografikoaren 7.alea prestatu dugu, emakume gazteen errealitatea hizpide izan duena.

Alde batetik gaur egun emakume gazteen errealitatearen alde ezberdinak aztertu nahi izan ditugu, bestetik *elkartegintza eta emakume gazteak* gaia aztertu nahi izan dugu, eremu honetan EGKren diskurtsoa garatzeko.

Komunikazio eta kultur-artekotasun teknikariarekin batera, aldizkariaren 7. ale honen edukiak planifikatu eta 3 arlo hauen arteko elkarlanaz burutu dira aldizkariaren lanak. EGK-ko partaide diren zenbait taldeei sakoneko elkarrizketak egin dizkiegu, eta bestetik, gai zentralaren irakurketa ideologikoa garateko asmoarekin, Batzorde Iraunkorreko talde guztien artean lantalde bat osatzeko deialdia zabaldu eta izena eman zuten pertsonekin elkarlanean aritu gara. Honen ondorioa, aldizkariaren gai zentrolean argitaratutako testua daukagu.

Hortaz gain, artikulu guztien bilketa eta maketazioaren ikuskaritza lanetan aritu gara.

Emakume gazteen errealitatea modu berezitan lantzeko aspaldiko beharrari erantzuteko lehengo urratsa dugu. Gainera mugimendu feminista eta generoaren gaia jorratzen duten bestelako eragile, pertsona eta taldeekin harremanetan jarri gara.

2010ren lehen hilabetetan publikazioaren aurkezpen publikoa eta bidalketa egin behar da. Bestalde garatutako diskurtsoan sakondu eta aurrera begira emakume gazteen errealitateari so egiten dioten ekimenak garatzen joan beharko gara.



2. KOMUNIKAZIOA

****Urriaren erdialdean arloko-teknikaria aldatu da; zazpi urtez komunikazio-arduraduna izan den kazetariak beste kazetari bati utzi dio erreleboa****

2.1 egkDIGITALA



Hilaren amaieran EGKren jardueraren berri ematen duen buletina digitala da egkDIGITALA.

2008an EGK-k bere hileroko jardueraren jarraipena egin eta ezagutarazteko beharra ikusi zuen. Hori dela eta, buletin digital berria jarri zuen martxan. Bertan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak hilabetean zehar egin duenaren berri ematen da. Aurten lehenengo 10.aleak argitaratu ditugu.

- Bost-zortzi orrialde izaten ditu.
- Berriak formatu-laburrean ematen dira, buletin arina, erakargarria eta irakurterraza izan dadin.
- Elebiduna da.
- Hilabeteko azken astean edo hurrengo hilabeteko aurreneko egunetan bidaltzen da.
- Hartzaileak: EGK osatzen duten elkarteak, talde politikoak, gazte-bulegoak.
- Zein da “ekoizpen-prozesua”? Lehenengo, *teknikari guztiei eskakizuna luzatzen die komunikazio teknikariak: egin dutenaren berri bidali (argazkiak, loturak...)*. Ondoren, *buletina maketatu eta idatzi egiten da, teknikari guztiekin hartu-emanen. Azkenik, buletinaren bidalketa egiten da.*

Buletin honen xede nagusia EGKren lana ezagutaraztea da, eta zehazkiago, klnpora-begira hain agerikoa ez den barne-lanaren berri ematea ere. Alde honetatik, helburua lortu dela baieztatu genezake, hilero-hilero kontseiluaren jardueraren berri eman baitu egkDIGITALAK. Horretaz gain, beste helburu bat ere badu buletin honek: hartzaileekin harreman iraunkor eta erregularra izatea. Asmo hau ere bete izan da.



Ebaluazio irizpideei dagokionez, orain arte ez da proiektu jaio-berri honen ebaluaketa sistematikorik egin; aurrerantzean, auto-ebaluazio fitxak beteko ditu komunikazio teknikariak (zein arlo agertu diren, zenbat orrialde, epeak bete diren, akatsak izan diren...).

Ebaluaketa sistematikoa egiteke badago ere, beharrezko tresnatzat jotzen dugu. Hori dela eta, 2010ean egk_Digitala hilero argitaratuko dugu. Berrikuntzak egiteko aukera ere ez dugu baztertzen.

2.2 BERRIZBERRI – BZB poster agenda



Berriz-Berria poster-agenda bat da. Bertan, EGK osatzen duten elkarteen eta beste elkarte batzuen ekimen, ikastaro, jai, txosten eta jardueraren berri ematen da.

Berriz Berria 2003an jarri zen martxan. Ordutik, hilero (oporrak salbu) ale bat argitaratu eta bidaltzen da. Dagoeneko 85. alea kaleratu dugu.

- Hilero 10-12 berri txertatzen dira.
- Euskarari ematen zaio lehentasuna. Edukien %80 euskaraz argitaratzen da eta, gainerakoa, gaztelaniaz.
- Gai-aniztasuna bermatzen da.
- Lurraldetasuna bermatzen da: hau da, EAEko hiru lurraldeetako deialdiak txertatzen dira hilero.
- Elkarte eta ideologia aniztasuna bermatzen da.
- Albiste bakoitzarekin batera, taldearen kontaktua (helbidea, telefonoa...) ematen dugu, harpidedunen eta elkarteen arteko zuzeneko harremana errazten saiatzeko.
- Batzutan, elkarteek hala eskatuta, taldeen foileto eta txostenak enkartatzen ditugu (alegia, berriz-berriarekin batera bidaltzen ditugu).
- 1.800 elkarte, talde eta erakundek jasotzen dute.
- Ekoizpen prozesuari dagokionez, hiru pausu daude:
Albisteen jasotzea: Hilabeteko bigarren artean EGKko elkarteei eta gainerakoei BZBrako deialdia luzatzen diegu, poster-agendan txertatu nahi ditusten berriak bidali diezazkiguten.



Erredakzioa eta egituraketa: behin jarduerak jasota, hautaketa egiten da aniztasun irizpidea jarraituz. Ondoren, buletina maketatu eta idatzi egiten du komunikazio-teknikariak, beste teknikariekin hartu-emanen.

Maketazioa eta editatzea: A4 enpresak edukia maketatzen du; ondoren, teknikari guztiek oniritzia eman behar diote eta, azkenik, postaz bidaltzen da. Aurten lehen aldiz Bigarren Hezkuntzako zentroetara bidali izan dugu.

Aurreko plangintzan finkatu bezala, 2009ko bigarren sei-hilekoan komunikazio teknikariak ebaluazio-fitxak bete ditu hilabetero. Fitxa horietan, eduki mota, elkarte-mota (EGKkoak eta kanponkoak), hitzkontza, tamaina, maketazioa eta akatsak ebaluatzen dira. (Azkenengo hiru fitxak ez dira bete, teknikari aldaketa dela-eta).

Fitxa horien arabera, helburu guztiak bete dira. Alegia:

- Elkarteen jardueraren bozgorailu izatea.
- Baliabide gutxi dituzten elkartei bere deialdiak ezagutzera emateko tresna bat eskaini.
- Elkarte ezberdinen jardueraren bateragune izatea.
- Talde eta ekimen aniztasuna islatzea.

Berriz Berria EGKko komunikazio arloko tresna "aitzindari" eta iraunkorra da. Are gehiago, elkarte askorentzat, Kontseiluko irudirik nagusia da. Hori dela eta, mantenduko dugu. Oraingoz ez dugu aldaketarik aurreikusi.

2.3 gaztePRESS prentsa buletina



Hamabostaldi bidaltzen den buletin digital bat da. Gazteei buruzko edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen 200-300 bat berri bildu eta sailkatu egiten ditu.

Hartzaileei gazteei buruz diren berriak eta gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen berriak modu sailkatu batean helaraztea.

Berriz Berria 2003an jarri zen martxan. Ordutik, hilero (oporrak salbu) ale bat argitaratu eta bidaltzen da. Dagoeneko 85. alea kaleratu dugu.

- Hilero 10-12 berri txertatzen dira.
- Euskarari ematen zaio lehentasuna. Edukien %80 euskaraz argitaratzen da eta, gainerakoa, gaztelaniaz.
- Gai-aniztasuna bermatzen da.



- Lurraldetasuna bermatzen da: hau da, EAEko hiru lurraldeetako deialdiak txertatzen dira hileror.
- Elkarre eta ideologia aniztasuna bermatzen da.
- Albiste bakoitzarekin batera, taldearen kontaktua (helbidea, telefonoa...) ematen dugu, harpidedunen eta elkartearen arteko zuzeneko harremana errazten saiatzeko.
- Batzutan, elkarteek hala eskatuta, taldeen foilero eta txostenak enkartatzen ditugu (alegia, berriz-berriarekin batera bidaltzen ditugu).
- 1.800 elkarte, talde eta erakundek jasotzen dute.
- Ekoizpen prozesuari dagokionez, hiru pausu daude:

Albisteen jasotzea: Hilabeteko bigarren artean EGKko elkartei eta gainerakoei BZBrako deialdia luzatzen diegu, poster-agendan txertatu nahi ditusten berriak bidali diezazkiguten.

Erredakzioa eta egituraketa: *ehin jarduerak jasota, hautaketa egiten da aniztasun irizpidea jarraituz. Ondoren, buletina maketatu eta idatzi egiten du komunikazio-teknikariak, beste teknikariekin hartu-emanen.*

Maketazioa eta editatzea: A4 enpresak edukia maketatzen du; ondoren, teknikari guztiek oniritzia eman behar diote eta, azkenik, postaz bidaltzen da. Aurten lehen aldiz Bigarren Hezkuntzako zentroetara bidali izan dugu.

Aurreko plangintzan finkatu bezala, 2009ko bigarren sei-hilekoan komunikazio teknikariak ebaluazio-fitxak bete ditu hilabetero. Fitxa horietan, eduki mota, elkarte-mota (EGKkoak eta kanponkoak), hitz-kuntza, tamaina, maketazioa eta akatsak ebaluatzen dira. (Azkenengo hiru fitxak ez dira bete, teknikari aldatuta dela-eta). Fitxa horien arabera, helburu guztiak bete dira. Alegia:

- Elkarrearen jardueraren bozgorailu izatea.
- Baliabide gutxi dituzten elkartei bere deialdiak ezagutzera emateko tresna bat eskaini.
- Elkarre ezberdinen jardueraren bateragune izatea.
- Talde eta ekimen aniztasuna islatzea.

Berriz Berria EGKko komunikazio arloko tresna "aitzindari" eta iraunkorra da. Are gehiago, elkarte askorentzat, Kontseiluko irudirik nagusia da. Hori dela eta, mantenduko dugu. Oraingoz ez dugu aldaketarik aurreikusi.

2.4 AHOTIK AT ALDIZKARIA





Ahotik At aldizkaria gazteok egindako aldizkaria da, gazteak protagonista dituen edota gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak jorratzen dituen, 25-35 orrialdekoa. Sei-hilero kaleratzen da eta monografikoa izaten da.

2006ko abenduan kaleratu zen Ahotik At argitalpeneko lehen alea. Ordutik, sei hilero gutxi gora behera monografiko bat plazaratzen dugu. “Gazteria politikak” eta “Astialdi hezitzailea” izan dira 2009an argitaratutako bi aleen gai nagusiak; horietaz gain, 7.alea labeaz sartu da, eta 2010ean ikusiko du argia. Honakoan “Emakume gazteak” izango dira protagonista.

Hartzaileei dagokionez, gaiaren arabera aldatzen dira. Dena den, badaude hartzaile tinko batzuk: udaletxetako gazteria teknikariak, liburutegiak eta elkarteak, esaterako.

Argitalpen honen ardura ez da komunikazio teknikariarena bakarrik: ale bakoitza prestatzeko lan-talde bat sortzen da; komunikazio arduraduna beti dago lan-talde horietan; aldiz, beste partaideak gaiaren arabekoak izaten dira. Zazpigarren alerako, adibidez, Bizi-baldintza materialetako teknikaria eta Kulturartekotasun teknikaria arituko dira lan-taldean. Horretaz gain, batzorde iraunkorreko kideek ere prozesuan parte hartzeko aukera dute.

Proiektu honen helburuak honakoak ziren:

- Gazteei buruzko gaiak edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeenak jorratu, gazteok egindako aldizkari batean, modu sakon eta kontrastatuan.
- Gai zehatz batzuei buruz komunikabide tradizionaletan jendarteratzen denari kontrapisua egin.
- EGK eta elkarten helburuak, ildo ideologikoak eta lana jendartarazi.
- Elkarteak prozesuaren parte egin eta bere ahotsari ere komunikazio euskarri bat eskaini.

5. eta 6. aleen arduratutako lan-taldeak egindako ebaluazioen arabera (akatsak/ edukia/ aniztasuna/ prozedura/ hartzaile-hautaketa/ maketazioa/ bidalketa eta komunikazio kanpainia ebaluatzen dira) Ahotik At aldizkariak bere xedea betetzen du. Zazpigarren alearen ebaluazioari dagokionez, behin bidalketa eginda burutuko da, beti bezala, erredakzio-taldearen bileren bitartez. 2010ean 7.alea ikusiko du argia, eta 8. eta 9.a ekoiztuko dugu ere. Gaiak finkatzeke daude. Erredakzio-taldea gaiaren arabera osatzen da.



2.5 BERBAKEITA WORD KAFEAK



“Gazteak eta komunikabideak” gaiari buruz eztabaidatzeko antolatutako hiru word-kafe/eztabaida izan ziren.

Hiru eztabaida saio antolatu dira:

Bilbon: Azaroaren 25ean, Boluntan.

Donostian: Azaroaren 26an, CRAJen.

Gasteizen: Azaroaren 27an, Simone de Beauvoiren.

EGKren world kafean lau profil ezberdineko jendea egon zen:

- Gazte elkartuak.
- Gazte ez-elkartuak.
- Kazetariak.
- Gazteria teknikariak/Politikariak.

Guztira, 20-22 egon ziren saio bakoitzean. Profil bakoitzeko, lau (bat gora bat behera). Lau mahai zeuden eta horietako bakoitzean profil ezberdinetako lau pertsona eseri behar ziren. Ezin zituzten bere buruak aurkeztu, aurreiritzirik gabeko eztabaida errazteko (aurkezpenak amaieran egin ziren).

Lau galdera egin ziren saio bakoitzeko (hirutan berdina). Galdera bakoitzari buruz eztabaidatzeko ordu laurden bat zegoen. Behin ordu laurden hori bukatuta, parte-hartzaileak mahaiez aldatu behar ziren, betiere profil berdineko pertsonaekin nahastu gabe (gomets-en bitartez ezberdindu genituen profilak).

Mahai bakoitzean dinamizatzaile bat zegoen (Kazetaritza irakasleak, Parte-Hartuzeko kideak, Astialdi eskoletako hezitzaileak, EGKko teknikariak). Dinamizatzaileek hitz egindakoaren oharra hartu zituzten eta saioaren amaieran ozenez azaldu zituzten. Ondoren, idatziz bidali behar izan dizkiote Komunikazio teknikariak. Memoria hau idazterako orduan oraindik ez zeuden txosten guztiak jasota.



Solaskideak honakoak izan ziren:

Bilbao (Bolunta)	Donostia (CRAJ)	Vitoria (Simone de Beauvoir)
KAZETARIAK		
Deia	Gaztea irratia	Berria
20 minutos	Info7 irratia	Eusko News-Gaztea
Hamaika telebista	D.Noticias de Gipuzkoa	Radio Vitoria
Tas-tas irratia	Zuzeu.com	
ELKARTEAK		
Revista Goitibera (Euskalerriko Eskautak-Bizkaia)	Gaztegehitu	Técnico Comunicación Coordinadora ONGDS Eus.
AFS Euskadi Interkultura	Lakaxita Gaztetxea (Irun)	Técnico Comunicación Foro Rural Mundial
BOM (Bilboko Okupazio Mugimendua)	Mugak	Ai Laket
Yal-Lah Gazte Ekimena	Yal-Lah Gazte Ekimena	Arduradun Eskola
ADMINISTRAZIOA		
Técnico de Juventud de Getxo	Concejal de Juventud Ayto. Donostia (PSE)	Concejala de Juventud Ayto. Vitoria-Gasteiz (PSE)
Técnica de Juventud de Leioa	Concejala de Igualdad Ayto. Donostia (Aralar)	Concejala PNV en materia Juventud en Ayto.Vitoria.
Técnico de Juventud de Barakaldo	Técnico de Juventud del Ayuntamiento de Donostia	Técnica de Juventud del Ayto. de Vitoria-Gasteiz
Técnica del Observatorio de la Juventud del G.V.	Técnica de Kontsumo Gelak	Técnica de Juventud de la Diputación foral de Álava.
MISTOA- Gazte ez-elkartuak eta besterik		
Estudiante de periodismo	Bizi Alai Taldea (BAT)	Periodista Gara
Estudiante de periodismo.	Técnica joven de Lokarri	Joven asociada (varios mvts).
No asociado/ Ingeniero y estudiante de RR.II.	Lakaxita Gaztetxea (Irun)	Radio Vitoria
Asociado Lurgorri-EGI	Lakaxita Gaztetxea (Irun)	
Asociado Lurgorri-EGI		
DINAMIZATZAILEAK		
Investigadora de Parte Hartuz	Educador Urtxintxa	Investigador de Parte Hartuz
Profesora de Comunicación Audiovisual de la UPV	Trabajadora social en Ayto.Lezo	Profesor de Comunicación de la UPV
Investigadora Facultad CC. de la Comunicación UPV	Educadora social	Coordinadora de EGK-Álava
Técnica de Bakeola	Técnica de Condiciones de Vida materiales de EGK	Coordinador EGK-Bizkaia



Berbakeita prestatzeko pausoak honakoak izan ziren:

- Metodologia definitu
- Irudia eskatu (NemoStudio).
- Partehartzaileen lehen zerrenden zirriborroa egin beste teknikariekin
- Aretoen erreserba
- Opariak erosi
- Prentsa-ebakinak egin
- Mahaiko tarjetoiak egin
- Materiala prestatu: pastak, ura, boligrafoak, errotulkiak, mantelak
- E-mailak/Telefono deiak parte hartzaileei. Zerrendak berregin. Hasierako zerrendak ia ia goitik-behera berregin behar izan ziren. Guztira, 60 pertsona lortzeko 300 deitok gora egin eta 500 mail baino gehiago bidali ziren.
- World-kafea bera burutu.
- Txostenak jaso
- Txosten bateratua egin.
- Jendarteratu: Hurrengo eragile eta norbanakoei bidali zaie:
Parte hartzaile guztiei.
EGKko elkarte guztiei.
EAEko beste elkarte gehieneri.
EHU, Mondragon eta Deustuko Komunikazio Fakultetetako irakasleei.
Bestalde, web orrialdean eskegi da.
2010eko hasieran komunikabide guztiei bidaliko zaie.

Azaroan bidali nahi genituen ebaluaketa-galdetegiak. Ez da egin denbora-faltagatik. Horren ordez, e-mail bat bidali genien parte hartzaile guztiei ekarpenak eta kritikak eskatzen. Oso gutxi bidali dute bere balorazioa.

Txostena ebaluatzeko ere eskatu diegu parte-hartzaileei. Bostek egin dituzte ekarpenak.

Dena den, finkatutako helburuak bete direla uste dugu; alegia:

- Gazteei eta gazte-elkarteei buruz komunikabideek ematen duten irudia aztertu.
- Hausnarketa piztu bai elkarte bai kazetariengan.
- Profil ezberdinen arteko harremanak eta arlo berekoen artekoak sortzen erraztu.
- Hobekuntza-proposamenak jaso.
- Komunikabideei gazteen irudia sortzen duen egonezina helarazi.

Guztiarekin ere, ematen duen fruiturako ereite-lan gehiegi eskatzen duela ondorioztatu dugu.

2010ean ez da errepikatuko. Hori bai, Berbakeita egitasmotik abiatuta "Gazteak Komunikabideetan" jorratzen jarraituko dugu 2010ean. Printzipioz, word-kafeen ondorioak abiapuntu hartuta elkarteentzako tailerra prestatzea da asmoa.



2.6. DURANGOKO AZOKA

EGKk stand bat ordaintzen du Durangoko Azokan eta, kontseilua osatzen duten elkarteei stand-ean parte hartzeko aukera luzatzen die.

Aurten 6. urtea izan da EGK-k Durangoko azokan stand bat izan duena. Prozedura honakoa da:

- Elkarteei proposamena luzatu. Behintzat hiru badaude (EGKk finkatutako gutxieneko kopurua stand-a alokatzeko), standaren erreserba egin.
- Elkarteei bildu eta katalogoa egin.
- Azken antolakuntza-lanak (etiketak, kanbioak...) stand-ean egon (egun bat prestatzeko, beste bat txanda egiteko eta hirugarren bat dena jasotzeko) eta ebaluaketa bilera egin.
- Gero, komunikazio teknikaria arduratzen da antolakuntzaz: alegia, materiala prestatu, katalogoa idatzi elkartearen material guztiaren argazki eta fitxekin, prezioen etiketak egin eta Gerediaga elkartearekin (antolatzailea) harremanetan egon.
- Behin dena prest, stand-ean egoten gara, txandaka. Azoka bukatu eta egun gutxitara, ebaluaketa bilera egiten dugu EGK eta parte hartu duten elkarteek.

Azoka bukatu eta egun gutxitara egiten da ebaluaketa bilera, parte hartu duten talde guztiekin. Akta batean jasotzen dira ondorioak, hurrengo urtean kontuan hartzeko.

Helburu orokorrak bete dira, alegia:

- Gazte elkartearen lana jendartarazi eta ikuskor bihurtu.
- Materiala banatu/saldu.
- Kulturgintza gaztea eta bestelakoa ere badela erakutsi.
- Elkartearen arteko ezagutza sustatu.
- Jendearekin harreman zuzenerako 'leihatila' izan.

Dena den, hurrengo urterako aldaketa zehatzak proposatu dira:

Txanda-banaketari dagokionez:

- Aurreko zozketa-formula berreskuratzea erabaki da: hau da, zenbaki bat **aukeratu** eta, asmatzen duenak, nahiago duen txanda aukeratu; horrela, txanda guztiak bermatuta egon arte.
- Bilerara **etortzen ez den** elkarteari, aukeratua izan ez den turnoa egotziko zaio.
- Prestakuntza bileran, bakoitzak bere materiala eta elkartearen zertan datzan azaldu, standean txanda egiten dugunok jarrera aktiboagoa izan dezagun (jendearen elkartearen xedea helaraziz, jolasak azalduz...).
-

Stand-ari dagokionez:

- Atzekaldearen itxura-aldatzea erabaki da. Atzeko panela aldatu eta **EGK zer den azalduko** duen zerbait ipintzea da asmoa.
- Mahaian-bertan, **elkarte bakoitzaren lekua hobeto identifikatu**, jendeak jakin dezan norenak diren jolasak, norenak kondoia... etab.
- **Mahai laua** mantentzea erabaki da.



- Hurrengo urtean atzekaldean **soporte/euskarri bat** eskatuko dugu, gauzak bertikalki jartzeko ere.
- **Armairua hobeto antolatu** eta kutxa bakoitza norena den eta zer dauka identifikatzea erabaki da.
- **Dohaineakoak** diren gauzak identifikatu.

Antolakuntza:

- **Paperezko poltsak** eramango dira hurrengo ediziora.
- Poltsetan elkarten trikptikoak sartu, elkarteak ezagutarazteko.
- **Kanbio gehiago** eraman.
- Katalogoa **enkoadernatu**.
- Stand-a gauean estaltzeko **oihala** eraman.
- **Elkarte guztiak bilera guztietan** eta material prestakuntzan zein jasotzeko-egunean egon behar direla azpimarratu dute parte-hartzaileek, bileren datak eta orduak moldatzeko prest agertuz.

Gutxienez 3 elkarte izan behar dute interesa EGKk standak jarri dezan. Beraz, hurrengo urtetan ere gutxienerako kopuru hori bermatzen bada, bere txokoa izango du EGKk.

2.7 WEB ZAHARRA KUDEATU

Web orrialdea eguneratzean datza.

Egunero:

- Data aldatu.
- Zazpi egunkari irakurri eta web-orrialdera eguneko berriak, gazteen ingurukoak, igo.

Gutxienez astean behin:

- Home-a (gune nagusia) berritu, EGKren edo elkarten berri eta deialdiekin.

Hilean behin:

- Berriz berria igo.

Unean unekoak:

- Artikuluak eta manifestuak igo. Elkarten edo teknikarien izen/helbideak etab... berritu da.

133635 bisita egon dira.

Kualitatiboki: Ez dago ebaluaketa irizpide egituratu eta sistematikorik.

Guztiarekin, helburuak bete direla uste du teknikariak:

- Eguneko prentsaren sailkapena egin.
- Deialdiak, agenda, artikuluak... edukiak eskaini.



- EGKren irudia zaindu.

Noski, web-orrialdea eguneratzen jarraituko dugu, baina lana errazagoa eta arinagoa izango da, web-orrialde berria estreinatuko baitugu.

2.8 WEB ORRIALDE BERRIA SORTU



2009ko hasieran hasitako proiektua da. Motivación enpresa ari da programazio lanetan. Printzipioz, urte bukaerarako estreinatuta egon behar zen baina, orrialdea diseinatuta badago ere, orain komunikazio teknikariak edukiz hornitu behar du.

Urte hasieratik prozesu parte hartzaile bat jarri zen martxan, web-orrialdea nola izan behar zen eta zein eduki izan behar zituen finkatzeko. Brain-storming-ak eta gero, presidenteak eta komunikazio teknikariak hartu zuten orrialdearen ardura. Ordutik, Motivación enpresarekin hartu-emanen, orrialdea definitzen ari dira. Laburbilduz, prozesua honakoa izan da:

- Talde-lana/ Ideia-ekaitza/ Web berriaren ezaugarriak finkatu/ Motivacióni encargua eta lehenengo bilerak.
- Lana fintzeko bilerak egin.
- Edukiz hornitu, estreinatu eta difusioa egin (2010).

Zer eskainiko du orrialde berriak?

- Edukien egituraketa hobe / **Itxura** hobe eta garbiagoa.
- **Agenda**. Urte osokoa.
- **Komentarioak** egiteko aukera.
- **Sare-sozial** guztietan informazioa konpartitzeko aukera eta EGKk bultzatutako sare berri batena: **Gaztelinka**, hain zuzen (*Ikus.Gipuzkoako Lurralde-Koordinazioaren memoria*).



- Buletinetara **harpidetzeko** aukera.
- Gure **RSSetara** harpidetzeko aukera.
- **GazteSfera**: EGKko elkarten RSSak era automatikoa erakusten dituen gunea.
- **Ogi-apurrak** (Nabegazioa bitartean zein atal/azpiataletan zauden esaten dizun etengabeko oharra).
- **Gaztepress integratua**: hau da, "Gaur prentsan"eko berriak zuzenean txertatu daitezke Gaztepressen. Bestalde, hamabostaldiako buletin hau automatikoki bidaliko da. Bidalketa horretan ez da, gaur egun bezala, buletina ikusteko linka bidaliko, baizik eta buletina bera.
- **Audio eta irratia** normaltasunez eskegitzeko aukera.

Behin web-orrialdea prest dagoenean egingo dugu. Nortzuk? Lan talde teknikoa eta batzorde iraunkorra. Ondoren, ebaluazioaren emaitzen arabera Motivación enpresarekin azken detaileak lotuko ditugu.

Etengabeko eguneratze-eta-berrikuntza lanetan egongo den web-orrialdea izatea nahi dugu; orrialde bizia, beti aldatzen, baina beti erreferentziazko orrialde berdina.

2.9 KOMUNIKAZIO KANPAINAK - KOLABORAZIOAK



EGKren ekintza zein EGKk parte hartzen duen ekimenen hedapena egin, hala nola EGK osatzen duten elkartei komunikazio kanpainetarako laguntza eskaintzen.

- Prentsaurrekoak.
- Prentsa Oharrak.
- Iritzi-artikuluen txertaketa.
- Deialdiak egunkarietako agendan sartzeko kudeaketa.
- Unean-uneko komunikazio planak (Elkarrizketak saldu Hiritartasun Oinarriko Errentaren Kongresurako, edo Unibertsitateko elkartegintzaren txostena esparruko-prentsan txertatu...).



- Bestalde, elkarteei euren komunikazio planetan laguntzeko eskaintza.
- Kazetarien eskaerak/proposamenak kudeatu.
- Elkarteen hedabideetan kolaborazioak.

Proiektu edo plan bakoitzak epe eta lan egiteko modu zehatzak eskatu ditu.

Pobreziaren aurkako kanpainan, adibidez, 15 bat elkarrizketa kudeatu genituen, kazetariak beraiek eskatuta.

Errentaren sinposiumerako, ordea, ez zen kazetarien aldetik apenas eskakizunik egon eta, beraz, egunkari zehatz bati elkarrizketa 'saldu' genion.

Bestalde, unean-unekoek ez dute garapen-prozesurik. Alegia, irrati-tertulia batean edo telebistan parte hartu dezagun deitzen badute, hortxe bukatzen da ekintza horren 'garapena'.

Etengabeko-jarraipen-txostena agerpen bat dagoen aldiro osatzen da. Txosten honek jasotzen duenez, aurten. 600tik gora artikulua, albistegi, teleberri, magazineta... agerraldiak izan ditu EGKk. Helburu nagusia bete da: EGKren lana eta diskurtsoa, EGKk parte hartzen duen plataformen ekimenak, EGKren elkarteen egitasmoak... jendarteratu eta gazteria eta elkarteak ikuskor egin, hain zuzen.

Jarripena izango du lan-ildo honek, noski, betiere gogoratuz tresna bat dela, eta ez helburua bera: EGKren eta arlo ezberdinen mesedera egon behar da eta, horrenbestez, horiek finkatuko dute lan-ildo honen norabidea zentzu handi batean.



3. LURRALDE TASUNA

3.1 EGKKO ELKARTEEKIKO LANA

2009a urte ona izan da barne mailan garatzen dugunaren lanari dagokionez. Azken urteotan jarraitutako lan ildoek esker (elkarteen ezagutza, hurbiltasuna eta komunikazioa), eta talde askok egindako apustuagatik ere, EGK-k bizitza dario barrutik. Oraindik falta zaiguna, edo gainditzeko pendiente dugun ikasgaia da egoera hau ohizko bihurtzea. Baita, elkarteekin bi norabidezko harremana lortzea. Elkarteetara jotzen dugun bakoitzean eurek horrela erabaki dutelako da eta EGKren urteko plangintzan ezarri nahi izan dutelako. Horregatik, elkarte batzuen jarrera ulertzea zaila egiten zaigu.

Lurraldeko elkarteekiko lana esaten dugunean, hurrengoak adierazi nahi dugu:

- Laguntza eskeini: bereziki egoera larrian dauden elkarteak. Gaizki egote horretan, bere buruan isten diren elkarteak zuzendua.
- Lan sareak sortu: hazitzeko eta hobetzeko besteekin aritzea ezinbestekoa da. Besteekin egin, besteekin partekatu eta besteekin/besteengandik ikasiz.
- Informatu: jardueraz, dirulaguntzaz, formakuntzaz...
- Aholkatu/ bideratu: gugandik ezin ez bada, lagundu ahalko duen beste batengana bideratu.

Elkarteak EGK direla eta haiek gabe EGKrik ez dagoela ulertarazi behar diegu. Boluntarioki osatzen duten erakunde batetan ez parte hartzea ez dugu ulertzen. Honengatik EGKrekiko erantzukizuna eta orokorrean parte-hartzea bultzatzea aurrean daukagun erronkarik handiena da. Hots, jarraian azaltzen diren jarduera guztien hartzaileak EGKko 55 elkarteak dira (**ikus. I. Eranskina**).

- Harremanean sakondu.
- Erantzunkidetasuna sustatu.
- Bideratzaileak izan.
- Barne sarea indartu.
- Administrazioekiko bitartekari lana burutu.

- **Elkarteekin harremanetan jarri.**

Banan banako bileretarako deialdia zabaldu. Email eta telefonozko deiak egin, elkarriketa zehaztu arte. Euren lokaletara bixita, hurbiltasuna erakusteko. Euren egoerari jarraipena egin, dituzten beharrak, kexak, plangintza...ezagutu. EGKren komunikaziorako eta bestelako baliabideak eskaini.

Urte osoan zehar eraman da jarduera. Inoiz baino bilera eta topaketa gehiago egin dira aurtan. Bai bilera formaletan, bai bestelako esparruetan topatu izan dugulako. Lurraldeko elkarte gehienekin banan-banako bilera formalak burutu ditugu.



EGKren bizitzan ohi parte hartzen dutenekin, jarraipenerako bilerak izan dira, batez ere euren plangintzaren zein egoeraren berri izateko eta harremana indartzeko. Hauetako askorekin bilera bat baino gehiago egin dira urtean zehar.

Harreman gutxi dugun elkarteekin saiatu gara bereziki EGKren dinamikan sar zitezen, eta azaltzen zertan zatzan EGK-n parte-hartzea, zein esparruetan kokatzen dira hobeto, zertan parte hartu, komunikaziorako euskarriak erakutsi edo bestelako zalantzak argituz.

Askotan, elkarteetan, erreleboak ematen dira eta jendea aldatzen doa. Horregatik harremana eta kontaktua maiztasunezkoa izatea garrantzitsua da. Elkarteak duten EGKrekiko lotura eta konpromezua ezin da pertsonengan geratu, erakundean baizik. Ezinbestekoa zaigu honetarako elkarteetan erantzukizuna bultzatu eta bi norabidezko harreman orekatua jorratzea.

Azkenekoa hau da gehien landu behar dugun ildoak: eman, asko ematen da, eta elkarteetara jotzen dugu beti, baina bueltako norabidea ez da oso sarritan ematen. Elkarteetan inplikazioa, parte hartzea eta erantzukizuna bilatu eta bultzatu denean EGKk bultzatutako lantaldeetan, jardueretan zein egitasmoetan oso erantzun eskasa lortu izan da: normalean betiko elkarteak parte hartzen dute eta horrek arrisku zuzena dauka: elkarte horien nekea.

Barne sarea bultzatzeko, elkarteak ikusi behar dute elkar eta elkarren arteko hartu emanak landu, konfindantzaz elikatzeko. Bestela, nahiz eta elkarteetan artean hedatu besteen jarduerak, inor ez da animatuko, aurreko bidea landu ez bada, besteekin parte hartzera. Horregatik, ezinbestekoa da elkarte bakoitzak EGKrekiko duen inplikazio mailaren inguruko hausnarketa bat egitea.

Bideratzaile lanarekin berdina gertatzen da. Oso gutxitan antzeztu dezakegun rola da. Elkarteetatik oso proposamen gutxi jasotzen dugu eta horretarako bideak errazten direnean, jasotako erantzuna ere oso eskasa izaten da.

Komunikazioa ere ezinbestekoa zaigu. Askotan e-mail batekin nahikoa da. Pentsatzen duguna baino gehiagotan gertatzen da, elkarte edo federazio bat egoera larrian egotea. Hori, EGKko teknikariok ez badakigu, ezin diogu lagundu. Beste batzutan, nahiz eta jakinaren gainean egon gerta daiteke laguntza ezinezkoa izatea, baina behintzak jakin dugu, eta horrek suposatu du ahal den guztia egin izan dugula. Bestelako egoerak adierazteko ere inportantea zaigu komunikazioa, bestela ohi den bezala elkarteetara joko dugu elkarlanerako edo parte hartzeko proposamenekin. Eta aldiz, ez badakigu zelan dauden aipatu elkarteak ezin izango dugu hauetatik jasotako erantzuna behar bezala ulertu.

- **Elkarteen artean EGKren berriak zabaldu.**

EGKtik sortzen diren egitasmoak, lan taldeak, publikazioak, jarduerak hedapena ematea elkarteetan artean, batez ere emaila erabiliz. Baten batek besteak baino interesa handiagoa eduki balezake, bereziki berarengana joz.

EGKren hedapenerako erabiltzen diren ohiko kanaletaz haratago (egkDIGITALA, BerrizBerri, web-orria, ahotikAT....) lurraldetasun arlotik, elkarteetan berezko ezagutza izanda, hedapen proaktiboa egiten dugu.



Gehienak interes generaleko gauzak direnez, modu orokorrean bidaltzen ditugu. EGKko elkarte batzuei interes handiagokoa izan daitekeenean, bidalketa orokorra egiteaz aparte, haien arreta lortzeko bestelako ahaleginak egin izan dira: telefono deiak, e-mail pertsonalizatuak.

Informazioa inoiz soberan ez dagoenez eta elkarte ororentzako jarduera interesgarria denez, honekin jarraituko dugu.

- **Beste elkarteen berriak/jarduerak zabaldu EGKko elkarteen artean.**

EGKtik kanpo datozkigun beste eragileen jardueren berriak zabaldu gure elkarteen artean, emailaz edo web-orriaren bidez.

- **Elkarteen proposamenak jaso.**

Bai banan banako bileretan, bai urtean zehar emailaz edo telefonoz. Behin jasota, elkarrekin garatuko genuke zer egin, zelan, noiz, nor(tzue)i.

EHNE – udako auzolandegiak

Uda garaia bereziki larria da emakume baserritarrentzako, landan lanerako sasoi handia delako eta gainera euren emakume rola betetzen jarraitu behar dutelako ere.

Astialdi Talde batzuentzako ere auzolandegiak egiteko aukera aparta da uda garaia. Hala ere, dauden auzolandegi guztiak ez dira behar bezala egokitzen astialdi talde guztien beharretara, eta horregatik edo ez doaz edo nahi ez duten baldintzetan joaten dira.

Bi behar hauen uztarketa posible eta interesgarria dela ikusita, 2010ean aurrera eramaten saiatuko gara. Horretarako 2009an zehar zenbait taldekin harremanetan jarri gara, egitasmoaren egingarritasuna aztertzeko.

Kulturartekotasun topaketak

Biluts, Urtxintxa Eskola, Euskal Interkultura eta Gurutze Gorria.

Urte hasieran, Biluts elkarteak proposamen batluzatu zion EGKri: kulturartekotasuna lantzen duen EGKko elkartekidea zen heinean eta beste elkarte askorekin Topaketa Interkulturalak antolatzen erabat jantzita zegoenez, EGKko elkarteekin antzeko topaketak egiteko proposamena luzatu zuen. EGKko kideen arteko elkar ezagutza sustatzea zen topaketen helburu nagusia, baina kultur aniztasunean oinarritutako topaketen bidez. Bilutsen barruan, herri zein kultur askotako gazteak parte hartzen dutenez bizikidetza eta kultur ezagutza bultzatzeko izugarrizko bilgunea izan zitezkeen topaketak.

Idea oso interesgarria zen, eta aspalditik elkarte batetik sarean lan egiteko proposamenik ez genuenez jasotzen horri ekin genion. Hasierako asmoa, lan eremuagatik antza zuten elkarteetara hurbiltzea zen, topaketen ospakizuna bermatzearren. Hurrengo pausua, EGKko elkarte orori eskaintza zabaltzea. Urtean zehar egindako topaketa guztien ezaugarri komunak



hartuz, urte bukaeran jaialdi bat antolatzen amaitzeko, topaketetan parte hartutako elkarte guztien eskutik.

Egin genuen hurrengo esandako elkarteei deitzea izan zen. Topaketarako proposamenari so egin ziotenekin, hasi ginen bilerak hitzartzen. Bilutsekin adostu genuen bezala, EGKk lehengo bileretan parte hartuko zuen aurkezpenak egiten, egitasmoaren nondik norakoak azaltzen eta EGKren inplikazioa irudikatzen. Behin hori eginda, Biluts eta ala erabaki zuten elkarteak jarraituko zuten bidea bakarrik. EGK horren atzean egongo zen behar zuten guztirako.

Elkarte parte-hartzaileekin etengabeko harremana egon da – Bilutsekin izan ezik, ezinezkoa izan delako – topaketen inguruko informazioa izateko. Ekaina aldera, saiatu ginen ebaluaketa bilera bat antolatzen baina ez zen posible izan. Udatik bueltan, saiakera gehiago egin dira, baina ez dugu inolako erantzunik jaso.

Lastima izan da topaketak ezin gauzatu izana, oso jarduera polita iruditzen zitzaigulako, batez ere barne sarea sendotzeari begira.

Ebaluaketa borobiltzeko, jarduera honetan parte hartu zuten elkarteei balorapen bat egiteko eskatu genien. Jarraian, talde bakoitzaren ebaluaketa (Biluts eta Euskal Interkulturarena izan ezik):

Bizkaiko Gurutze Gorria

“En relación a los encuentros; bueno, voy a intentar expresar lo mejor posible.

Nosotros, por un lado, tenemos la programación anual, que te comenté cuando te pasaste por aquí y estuvimos charlando. Pero te lo redacto aquí para que puedas disponer de ello por escrito. Tenemos una programación a nivel estatal, de un par de encuentros. Luego una programación autonómica, después la provincial, y luego la comarcal o local. Es decir, el tiempo que no tenemos programado, es prácticamente ninguno. De modo que para tomar parte en alguno de los encuentros, tendría que suceder que ese fin de semana no tuviéramos una actividad muy fuerte; o tendría que suceder que contáramos con una fecha (independientemente de que luego se decida más adelante la temática) desde septiembre para incluirla en la programación anual.

A ésto se suma que no sabría yo muy bien decir porqué, desde los grupos locales de tiempo libre de Cruz Roja Juventud Bizkaia no hay demasiado buena predisposición a este tipo de encuentros. No sabría muy bien decir si es porque prefieren estar con los chavales, o si es porque tienen experiencias previas negativas... No lo sé, la verdad. Si es de vuestro interés, lo puedo comentar con ellos más profundamente y ver qué explicación puede tener.

Por otro lado, te comento. Las veces que nos reunimos, yo en concreto me reuní creo que con Ane y Maitane de Urtxintxa. La verdad es que con ellas me encontré muy a gusto. No sólo a nivel personal, si no que creo que había buen entendimiento. Yo me fui con muy buen sabor de boca en ese sentido. Con el chico de Biluts, no recuerdo si se llamaba Gorka, no sabría decir... también me encontré a gusto. Pero luego la impresión que me quedaba era un poco extraña,



porque yo seguía en coordinación con Ane y Maitane, pero estábamos (bajo mi punto de vista, tal vez ellas te refieran otra cosa) un poco a la deriva.

Hemos tenido, de hecho, dos tentativas de encuentro. En la primera, por lo que te comentaba antes, trabajé la motivación con los chavales, y cuando estaban dispuestos a dar un paso adelante, el encuentro finalmente no tuvo lugar. En la segunda tentativa... ya no pude promocionar el encuentro del mismo modo, entre otras cosas, por esa experiencia previa.

Entonces, soy super consciente de lo complicado que es organizar un encuentro con nosotros, y también de que los chavales no lo perciben como algo atractivo (y lo hemos trabajado), pero también ha habido cierta descordinación que no ha ayudado demasiado.

De todos modos, sí que me gustaría remarcar que el encuentro en plan reunión me resultó agradable, y que al menos, aunque muy poca, he tenido relación con el EGK, en concreto contigo, y eso siempre ayuda y viene bien."

Urtxintxa Eskola

"Topaketa hau burutzeko bi saiakera egin ziren, baina azkenean ez zen lortu aurrera ateratzea. Hasieran batean, ekainaren 6an izan behar zen. Horretarako, Bilutseko arduraduna, Gurutzeko Gorriko arduraduna eta Urtxintxako kulturartekotasuneko eta euskarako arduradunak bildu ginen. Bilera horretan egitaraua eta ordutegia finkatu ziren eta bakoitza bere ekintzak prestatzekotan geratu ginen. Denbora bat pasata, Gurutze Gorrikoek egitasmo honekin aurrera ezingo zutela egin aipatu zuten, eta beraz, Biluts eta Urtxintxaren arteko topaketa egingo zela erabaki zen.

Eguna hurbildu ahala, ez genuen Bilutsen partetik berririk jaso. Urtxintxakook, berriro bildu nahi genuen dena ondo prestatzeko, baina ez genuen erantzunik jaso. Topaketa baino egun bat edo bi lehenago, Bilutseko arduradunak arazo larri bat izan zutela aitortu zigun eta ezingo zela topaketa aurrera eramane.

Handik denbora batera, beste saiakera bat egitea adostu zen, hori dela eta, berriro bildu ginen eta urrian egitea erabaki zen. Urtxintxaren aldetik, gauzak denboraz zehazteko eskatu genuen, gure funtzionatzeko era ez delako bat batekoa, guk jendea lotzeko denbora behar dugulako, eta hala adostu zen. Bilutsekoak arduratu ziren tokia lotzeaz, bazkaria zehazteaz eta jolas batzuk aukeratzeaz, eta Urtxintxakook, gure aldetik, jolasak, musika eta postreren bat lotuko genituen.

Azkenean, honetan ere, gauza bera gertatu zen. Eguna hurbildu ahala, beraiekin biltzen saiatu ginen baina ez genuen lortu. Mezuak bidali genizkien, telefonoz deitu genien baina ez genuen beraien berririk izan. Beraz, bilera bat burutu zen Urtxintxan eta topaketa baino hiru bat egun lehenago topaketarekin aurrera ez egitea erabaki zen. Bilutsekoei abisatu zitzaie eta handik denbora batera dena lotuta zutela baina komunikazio arazo bat egon zela adierazi ziguten.



Azken finean pena bat izan da topaketa ez ateratzearena. Urtxintxatik indar eta denbora nahikotxo jarri genituen horretan eta ez genuen berdina jaso Bilutsekoen aldetik. Beraien egitasmoa izanik, beraien aldetik arduragabekeria nabarmendu dela esango genuke.”

Euskal Interkultura

“En un principio yo y otra voluntaria nos reunimos con Biluts para tener algun encuentro con el fin de conocernos mejor como organización. Pensabamos hacer algo simple que nos diese la posibilidad de interactuar y pasar un buen rato.

A Biluts se le ocurrió crear las Olimpiadas Interculturales, era una actividad que ya habian llevado a cabo con otras organizaciones y nos pareció buena idea, ya que nosotros trabajamos con gente de entre 15 y 18 años y sería una actividad educativa y al mismo tiempo lúdica.

La idea era preparar varios juegos de varios países, entre ellos alguno vasco, africano y de algún país de alguno de nuestros estudiantes, Japón, Noruega...

Luego se crearían equipos del mismo número de personas a ser posible. Después de los juegos comeríamos en la cafetería. Biluts se había encargado de llevar los platos principales, nosotros los postres.

El plan era ese, el horario de 12 a 14.00 y luego la comida, acabaríamos sobre las cinco.

No se pudo hacer al final porque tuvimos problemas para que pudiesen asistir todos los estudiantes.

Esperamos poder reunirnos otra vez.”

Aniztasuna gazte politiketan hausnarketarako taldea

EGK-k denbora darama gazte politika ereduaren hausnarketa prozesu orokorrean murgilduta. Prozesu honen harira, “Aniztasuna Gazte Politiketan hedatzeko hausnarketa taldea Araban” ekimena eraman dugu aurrera eta jarraituko dugu eramaten. Berau garatzearen ideia ez da ezerezetik sortu eta dituen aurrekariak azaltzea beharrezkoa da proiektuaren nondik- norakoak azaldu aurretik.

2009ko martxoan Ahotik At argitalpenaren 5. zenbakia argitaratu zen “Gazteria Politikak” gaiaren inguruan iritzi artikulu, elkarrizketa, erreportai eta mahai inguruz osatua. “Gazteekin lan egiten duten eragileen artean aniztasuna da nagusi, hori dela eta gazteria politikek aniztasun hau kontutan izan behar dute”; ideia hau oinarri hartuz, argitalpen honetan mahai inguru bat eratu zen Araban, 4 gazte elkarteetako kiderekin: Unión de Juventud Progresista de la ONCE, Asociación de discapacidad física de Araba EGINAREN EGINEZ, Kale dor Kayikó Gazteak eta Gaztegehitu.



Hau dela eta, Ahotik At argitalpenaren 5. zenbakia argitaratzeko eratu zen mahai inguruko parte hartzaileei deialdia zabaldu zitzaien: Unión de Juventud Progresista de la ONCE, Asociación de discapacidad física de Araba EGINAREN EGINEZ, Kale dor Kayikó Gazteak eta Gaztegehituri hain zuzen. Bertatik, lan talde bat osatu da gazteen artean ematen den aniztasunaren islada izan asmoz

Unión de Juventud Progresista de la ONCE eta Gaztegehituk parte hartu izan dute. Hauekin batera, beste elkarteetako gazte kideei zabaldu zitzaien eta bertan ere parte hartu izan dute: Gao Lacho Drom, Ehgam eta Igor Nabarrok (Eginarez Eginenez-eko kide ohia, momentu hauetan pertsona ez elkartu bezala aurkezten da)

Beraien errealitate edo egoera fisikoak, sozialak eta kulturalak sortzen dizkien beharrak eta nahiak anitzak izanik, gizarte politikek, eta bereziki gazte politikek, hauei ez dietela behar adina erantzuten ondorioztatu izan dute. Hezkuntza formala eta aisialdian, etxebizitza, mugikortasuna, enplegua....alorretan dituzten beharrak edozein gaztek izan ditzaken berdinak izateaz gain, beraien errealitate fisiko, sozial eta kulturalak sortzen dizkien arazoak dituzte. Aukera berdintasunean bizi eta gizartean normalizazioa aldarrikatzen dute. Gizarte bizitza eta parte hartzea sarbide unibertsala izatea. Honetarako gazteria politikek hau lortzera zuzenduak ere egon behar dutela adierazi dute.

Hainbat eskari egin dituzte izandako bileretan, besteak beste, zeharkakotasuneko politiken beharra eta hauen diseinuan beraien parte hartze erreala bultzatzea, beren nahi, desio eta beharrei erantzun egokiak emateko, bizi duten errealitatearen ezagutza eta sentsibilizazioa eskatuz.

Aurkezteko dugun proiektua, mahai inguruan izandako lehen hurbilpenean sortutakoa hausnarketan eta eztabaidan oinarritzen da.

Gazteria politikek gazte errealitatearen aniztasunaren ikuspuntutik, izan ditzaketen hutsuneak, gabeziak identifikatu eta proposamenak egin dira, ondoren dagozkien erakunde eta arduradunei zuzenduko zaizkielarik.

Jarritako kronogramari jarraituz, ekainetik aurrera “Aniztasuna Gazte Politiketan hedatzeko hausnarketa taldea Araban” proiektuaren difusio fasearekin hasi ginen. Horretarako, EGKak difusiorako dituen bideak erabili ziren, batez ere mailen bidalketa bitartez egin zen. Deialdi hauen erantzun mugatua ikusita, irailetik aurrera bestelako bide bat zabaldu zen (telefono deiak). EGKko kide diren elkarteekin eta kide ez diren elkarteekin harremanetan jarri ginen. Hala ere, Arabako errealitatea ikusita eta lantalde guztia egun berdinean biltzeko ezintasuna ikusita, bestelako bide bat proposatzearen beharrean aurkitu ginen. Hau dela eta, elkarteetako kide bakoitzarekin hitzorduak adostu ziren eta banan banako bilerak gauzatu.

Gauzatu ziren bilerak, kronograman jarrita zegoen bezala, irailetik hasita abendura bitartean, hilean behin taldekako bilerak izan behar ziren, baina Arabako errealitatea kontutan hartuta, deialdira deitutako taldeen ordezkariak mahai inguru berdin batean biltzea ezinezkoa suertatu



zitzaigun. Hau dela eta, hasiera batetik estrategia aldaketa bat proposatu zitzaien, hau da, banan banako hausnarketa sakona egin ahal izateko, talde bakoitzarekin banan banako elkarrizketak egitea proposatu zitzaien. Honek, talde guztion artean eztabaidatzeko gune amankomunik eman ez dela ekarri digu. Hala ere talde anitz eta desberdinekin biltzeko aukera izan dugu. EGK kide diren elkarteekin biltzeaz gain (Gaztegehitu, Unión de Juventud Progresista de la ONCE), bestelako taldeekin bildu izan baikara: Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua, Gao Lacho Drom (ijitoen kolektiboa) eta Igor Nabarrokekin. Irailetik aurrera talde bakoitzeko ordezkariekin telefono bilerak eta mailen bitarteko hartu- emanak izan ditugu. Urriko hilabetea bilerak presentzialak ez ziren gauzatu, soilik Igor Nabarrokekin (Eginareze Eginezeko kide ohia). Azaroan aldiz, Igor Nabarro, EHGAM, Gao Lacho Drom eta Gaztegehitukoekin presentzialki bildu izan gara. Telefonoz eta mailen bitartez ere, Unión de Juventud Progresista de la ONCEtik ekarpenak jaso izan ditugu.

“Aniztasuna Gazte Politiketan hedatzeko hausnarketa taldea Araban” 2009ko martxoan Ahotik At argitalpenean parte hartu zutenen talde eta ergileen arteko hartu emanak indartzeari eta taldeen nahi eta interesei zuzenean erantzuteko egitasmoari erantzunez lan taldea antolatu zen. Bertan, nahi zuten taldeek hartuko zuten parte eta horretarako bidalketa eta telefono deien bidez, talde desberdinetara zuzendu ginen. Oso aberasgarria dela uste dugu lantalde hauek sortu eta indartzea, hauen bidez EGKren indarra eta erreferentzialtasuna handitzeaz haratago taldeak elkarrekin lan egiteko ohitura barneratzen doazelako. Hau oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu, sareak eta elkar uneak finkatu eta indartzeako.

DOT lantaldea

“Directrices de Ordenación del Territorio” etorkizunean lurralde batek izango duen eraldaketa eta bizi eredua oinarritzen dituen lanketa da. Berau da, etorkizuneko azpiegitura, plan ekonomiko zein eredu ekonomiko sozialaren bizkar hezurra. Eusko Jaurlaritzak 2009an idatzi eta jorratu nahi zuen gai bat zela jakinda, Kopenhageko klima aldaketa gailurra egonda eta EHNEren proposamenari erantzunez, sustengarritasuna oinarri zuen “DOT alternatiboak” idazteri ekin genion, ondoren EGKk bere dokumentotzat jaso zezan.

Txosten holistiko bat jorratu da, hau da zehaztasun eta konprezio txikiak bilatu baino ikuspegi eta gai desberdinen jorraketa bat bultzatu da. Puntu desberdin ugari lantzen da, askok harremanik ez dutela eman arren ondoren orokortasunean irakurtzean, zentzu globalaz konturatzen da bat eta hori zen hain zuzen bilatzen genuena. Finean, dokumentu honekin bilatu nahi genuena, talde desberdinen artean eginiko lan bat egitea izan da, ikuspegi eta gai sektorial desberdinetatik sustengarritasuna oinarri bide berdinean batera martxan jarriko zituen txosten bat idaztea. “DOT lantaldea” azken asanbladan EGK osatzen zuten talde eta teknikarien arteko hartu emanak indartzeari eta taldeen nahi eta interesei zuzenean erantzuteko egitasmoari erantzunez lan talde mistoak antolatu ziren tematika desberdinen artean. Esan beharra dago gai hauen proposamenak taldeek egin zituztela azken asanblada orokorrean eta teknikarion lana hauek jaso eta lantade bateratuak egitea izan zela. Bertan, nahi zuten taldeek hartuko zuten parte eta horretarako bidalketa eta telefono deien bidez, talde desberdinetara zuzendu ginen. Oso aberasgarria dela uste dugu lantalde misto hauek sortu eta indartzea, hauen bidez



EGKren indarra eta erreferentzialtasuna handitzeaz haratago taldeak elkarrekin lan egiteko ohitura barneratzen doazelako.

Txostenaren prestaketa amaituta, orain lurralde koordinatzaileak zuen ardura amaitzen da eta Bizi Baldintza Materialaren lan arloa jorratzen duen teknikariarena da honekin jarraitzearen ardura duena.

- **Elkarteei proposamenak bideratu. Bai EGKrekin elkarlanean, beste elkarteekin edota zuzenean elkarte horri berezko proposamena bideratu.**

ZUBIETXE ELKARTEA <http://www.zubietxe.org/>

Gizarte bazterketaren kontra eta horren arriskuan dauden pertsonen aldeko gizarteratze lanean diharduen elkarte da Zubietxe. Beren esku-hartze 3 arloetatik bat immigrazioari lotuta dago. Gai honetan duten proiektu bat da "Immigrazio arloan kulturartekotasunari buruzko hitzaldi-mintegiak". Gizartea sentsibilizatzeko sortu zuten egitasmoa da, non pertsona etorkinak aurrez aurre azaltzen dute euren migrazio prozesu osoa. Hitzaldiaren ostean, gidaturiko arte tailer bat eskaintzen dute, hitzaldian bizi izan diren esperientzia eta emozioak modu grafiko batean irudikatzen saiatuz.

Urtean zehar egiten dituzten hitzaldi-mintegien kopurua mugatua da, baina bereziki pertsona gazteengana iristeko asmoarekin kopuru horretatik gazte-elkarteentzako gordetzen dituzte batzuk.

Horregatik, EGKra hurbildu ziren. Hitzaldi-mintegiak EGKko elkarteei eskeintzeko asmoarekin. Horretarako, hedapen kanpaina berezi bat asmatu genuen Zubietxe eta EGKko bi arduradunek. Hitzaldia eta mintegia antolatu genuen, EGKko taldeetara zuzendutako gutuna prestatu genuen ekimena azaltzeko, eta izen emateko epea zabaldu genuen. Horrez gain, taldeekin izandako banan banako bileretan, emailaz zein telefonoz hedatu genuen jarduera. Hala eta guztiz ere, elkarte bakar batek azaldu zuen interesa. Erantzuna ikusita, bertan behera utzi genuen aipatu hitzaldia.

Ikusitakoaz, bigarren sei hilabeterako elkarteetara gerturatzeko beste estrategia bat asmatu genuen: hitzaldi pertsonalizatuak eskeintzea. Zubietxe Elkarteak, EGKko elkarte guztien emailak hartuko zituen gure web-orritik eta e-mail pertsonalizatuak bidali. Gure aldetik, elkarteen artean hedatuko genuela jarduera, eta animatuko geniola parte-hartzen. Hori zen asmoa.

Urte bukaerarako, Zubietxekoekin hitz egin genuen, eta antza, inork ez zuen interesa adierazi. Bestalde, EGKko elkarteekin hitz eginda, inork ez zuen gogoratzen Zubietxeren email hori.



- **EGKren beste arloetako egitasmoak lurralde bakoitzean garatzea/egitea lagundu.**

HEZKUNTZA:

▪ **TIPI-TOPA**

Astialdi hezitzailearen kongresua otsailean gauzatu zen azkenik. Aurreko hilabeteetan egindako guztiak etekinak eman zituen. Oraingoan, hedapen kanpainara bideratu behar genituzke esfortzuak.

Lurraldeko koordinatzaileen lana EAE mailan administrazioko teknikariei zuzendua izan zen batez ere, hauek biltzarrean eta aurrez burutu ziren tailerretan parte hartu zezaten. Taldeekiko lana hezkuntza lantzen zuen teknikariak burutu zuen, beraiekin harreman zuzena baitu Astialdi Foroari (AF) esker. Ez horrela lurralde mailan administrazioetatik lan egiten duten teknikariekin. Hori dela eta lurralde koordinatzaileak deiak, emailak eta bisiten bidez teknikari hauek "lotzen" saiatu zen.

Biltzarraren egunetan, arduradunen esanetara jarri ginen eta eskatutakoari ekin genion: pankartak egin, materialak jaso, bildu eta ordenatu, harretetarako atean egon,...Dena ondo atera zedin beharrezkoa zen guztia gauzatuz.

▪ **ASTIALDI FOROA.**

Nahiz eta EGKko elkarteak izan, Astialdi Foroko elkarteak dinamika propioa daramate, maiztasun handiz biltzen dira lantalde moduan eta gutxi ez bezala EGKren egunerokotasuna ezagutzen dute. Ezaugarri hau kontuan hartuta, eta EGKrekiko lana eta bilerak ez biderkatzearren, Lurraldetasun arlotik Hezkuntza teknikariarekin batera Astialdi Foroko elkarteekin jokatzeko modu ezberdin bat asmatu genuen: gauzak komunikatzeko Astialdi Foroko bilerak erabiliko ziren eta banan banako bileretara biak joan. Horrela bi helburu betetzen ziren: alde batetik, elkartei eskatzen zaizkien bileren kopurua murriztea, eta bestetik, Astialdi Foroko eta EGKren arteko dinamika gehiago uztartzea.

Esan beharra dago, lurralde koordinatzaile berriak (Gipuzkoan eta Araban) hasiera batetan taldeak ezagutzeari eta harremanak indartzeari begira foroan parte hartzen bazuen ere, urtea aurrera joan ahala ardura hau alboratu dutela neurri batetan, horretarako alorretako teknikaria baitago. Hala ere, lurralde koordinatzailea egiten diren bileren jakitun da eta akta zein bestelako materialak irakurtzen ditu, foroa zertan dabilen jakiteko.

▪ **UDAKO EKINTZEN ESKU-ORRIA**

Uda aurretik kaleratu ohi den esku-orriak jada badu bere tokia. Aurten ere, hezkuntzaren arlo honetan taldeek burutzen duten lana gizarteratzeari begira esku-orria kaleratu dugu. Aurreko urteetako irizpideak jarraituta, aurten ere beste bi lurraldeekin bateratuta atera da. Horrela, pasadan urtean hasitakoa jarraituz, diseinu bereko esku-orriak kaleratu dira hiru herrialdeetan.



Horrekin batera, esku-orriak berak eta bertan jasotzen diren jarduerak medioetan leku zabala izan dute esparruari eskaini ohi zaion toki murrizta eta sarritan esperientzia negatiboetara lotutakoa gaituz.

BIZI BALDINTZAK MATERIALAK:

Arlo honetatik garatu diren egitasmoak lurraldera hobeto egokitzeko, aurretik koordinazio lan baten diseinua eskatu dute arloko teknikariaren eskutik.: Egitasmoen garapenerako lekuak proposatu, lurraldeko eragileak identifikatu, bai gazte elkarteak bai gazte teknikariak, administrazioak eta bestelako eragile pribatuak aurre lana eskatzen du. Hedapenean ere parte hartu dugu. EGKko elkarteetara dagokionez, banan banako bileretan ahozko transmisio zuzena egin zaie. Lurraldeko beste eragileekin antzekoa egin izan dugu, topatzen ginen plataformak aprobetxatuz. E-mailez zein telegonoz hedatu dugu informazioa ere. Hala eta guztiz ere, ezagutzen genuen kontaktuen harremanetarako beharrezko informazioa arloko teknikariari pasatzen genion.

Egitasmoetan parte hartu dugu baita momentuan beharrezkoa zen laguntza eskaini, gauzak ahalik eta hoberen atera zitezten.

▪ **OSASUNA: HIESA KANPAINA**

CJE- Espainiako Gazteriaren kontseiluak egindako HIESA-ren saihezpenerako kanpainaren barruan ("Condonéate. Atsegina, babestuta, atseginago" lelopean), gure elkarte zein arloko eragileen artean banatzeko asmoarekin zenbait material eskatu ditugu: kondoiak – aurten bakarrik gizonezkoak, esku-orriak, kartelak, etab. HIESAren inguruan aspaldin ez dago berezko lanketa edota egitasmorik EGKren barruan, ezta ez da ezer ez garatzeko proposatu EGKren elkarteetatik. Hala ere, dohako materialak ez aprobetxatzea zentzugabekeria dirudigu: badakigu EGKko elkarte askok gaiaren inguruan formakuntza berezia egiten dutela, beste batzuk kanpaina propioak dituztela eta EGKtik kanpo badaudela ere eragile askok material honi uko egingo ez lioketenak. Horregatik urtero materialaren eskaera egiten dugu lurraldetasun arlotik, elkarteetara zerbitzu moduan eskaintzeko.

Iaz ez bezala, aurten eskaera kanpora zabaltzeko baino lehen, EGKko elkarteetara eskaini zitzaizkien materialak. Markatutako epea bukatzean, oso elkarte gutxiak eskatu zituzten. Hain erantzun eskasa ikusita, aurreko urteetan jaso zituzten kanpoko eragileetara eskaini zitzaizkien materialak. Hau guztia esanda, hauek dira materialak eraman zituzten elkarteak:

EGKko elkarteak:

- Biluts
- JSE-Egaz
- Gaztegehitu
- Gazteleku



- AVIEM
- Iratzarri

Beste elkarteak:

- Comision Ciudadana Anti-Sida de Bizkaia
- Hegoak
- Galdakaoko EISE
- Itxarobide
- Aldarte
- Askabide
- Arabako hiesaren kontrako batzordea
- EHGAM
- Ailaket
- Acasgi
- Andoaingo gazte lokala
- Zarautzeko gaztegunea

Banatutako materialak izan dira:

- 6.000 gizonezko kondoiak
- 200 emakumezko kondoiak.
- 1350 gidak (500 euskaraz / 750 gazteleraz / 100 arabieraz).
- 500 Lubrifikatzailak.
- 30 aho-sexurako ohialak.
- 450 postalak (200 euskaraz / 200 gazteleraz / 50 arabieraz).

Bidalketa MRW-en bidez egin da, jasotzaileak jasotzean ordainduz. Bilboko elkarte gehienak pasatu ziren EGK-ko egoitzatik materialaren bila.

Aurten ere elkarte batzuen arduragabeko jarrera salatu behar dugu: zertarako eskatu jasotzera etorriko ez zireten materialak? Larriena, elkarte berak hirugarren urtez jarraian hau egin duela da.

• **GAZTEOK ETA ENPLEGUA.**

Bizi Baldintza Materialen alorrean enpleguaren gaia gazte prespektiba batetik jorratu da. Zentzu horretan, Bizkaian eta Gipuzkoan burutu ziren jardunaldi hauek.. Lurralde koordinatzaileek jardunaldiak antolatzen lagundu zuten. Alde batetik egunean bertan, mahaiak dinamizatzen eta



bestetik aurretiko lanketa burutzen. Parte hartzaileak bilatu, interesatuei informazioa helarazi dei zein email bidez...

- **ELIKADURA SUBIRANOTASUNA**

EGKko beste lan alorretako teknikariekin lankidetzaz Elikadura Subirautzaren inguruko tailer batzuen antolaketan oinarritu da ere. Modu horretan EGKko kide den EHNE sindikatuaz batera lan egin da tailer hauek antolatzeko.

Bizkaian, urriaren 28an, Gipuzkoan urriaren 29an eta Araban azaroaren 4an burutu ziren tailerrak. Bertan herri bakoitzak behar dituen elikagaiak ekoizteko izan beharko lukeen askatasunaz eta hau garatzeko ematen ari diren aukeraz izan ginen berbetan.

Jardunaldi hauek ahalik eta arrakasta handiena izan zezaten aurretiko lan sakona egin zen. Lurralde mailan gai honen inguruan zeuden eragileak identifikatzen, beraiekin harremanetan jartzen, jardunaldien berri ematen... Finean, jardunaldietara ahalik eta jende gehien etor zedin egin zen aurretiko lan hura.

- **OINARRIZKO ERRENTAREN IX SIMPOSIUM-a**

Azaroaren 19tik 2era ospatu zen Oinarrizko Errenta Sarearen IX Simposium-a Bilboko boluntaren lokaletan. Beharrezko ziren kudeaketa lan guztiak betetzeko prestutasunaz parte hartu genuen bertan, antolatzaileak beren gauzetan lasaitasunez aritu zitezten. Beraz, grabazio lanetan zein parte-hartzaileei harrera egiten ibili ginen.

KOMUNIKAZIOA.

Arlo honetako egitasmoetan laguntzeaz aparte, EGKko elkarteei eta lurraldeko beste eragileei, behar izan dutenean, arloko beste zerbitzuak hedatzeko bideratzaile lana bete dugu.

- **BERBAKEITA.**

Teknikarien arteko lankidetzaren beste alor bat, komunikazio teknikariarekin gauzatu zen. "Berbakeita, Gazteak eta Komunikabideak" izeneko World Caffea antolatu zuen EGKk, komunikazio teknikariak hain zuzen. Gazteak komunikabideetan nola ikusten diren aztertu nahi zen eragile desberdinen eskutik.

Hiru lurraldetako hiriburuetan antolatu ziren ekitaldiak: azaroaren 25ean Bilbon, 26an Donostian eta 27an Gasteizen. Lurralde koordinatzailearen lana bertako partaideak aurre ikusi, egiteko lekua, eta aurre lan logistikoaren antolaketan oinarritzeaz gain, taldeen dinamizazioan parte hartzea ere izan da. Parte hartzaileen identifikazioan lagundu lurralde bakoitzean dauden eragile-multzo desberdinetatik eragileak proposatuz, ekarpenak egin eta Gasteizko saioan mahai bateko moderatzailea izan.

- **DURANGOKO AZOKA.**

Lehenengo eguneko goizeko txandan EGKko stand-ean egon gara.

- **AURKEZPEN EUSKARRIA.**



laz egitasmoaren %99a egin genuen, baina garrantzitsuena falta zen, aurten burutu duguna: errealitatean bilakatu. Azkeneko gakoak lotzeko falta ziren, horien artean, elkarte guztietako logo ofizialak kalitate onean euskarrirako moldeatu ahal izateko. Horrela elkarteei eskaera luzatu genien eta espero ez genuen arintasunez erantzuna eman zuten. Horri esker, urtearen lehengo hiruhilabetekorako behar zen guztia bilduta geneukan eta inprentara bidali zen.

JUSTIZIA ETA BERDINTASUNERAKO BALDINTZAK

▪ **SAHARA**

2008ko irailean, udaran Nuyum taldetik egin ziguten eskaria onartu ostean, euskal gazte talde zein gazteen artean Saharar herriak bizi duen egoera agerian jartzeko lanketari ekin genion. Hasiera batetan EAE mailan talde bat osatzeko asmoa agertu zen, baina lehen deialdiak izan zuen arrakasta ikusita Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan talde bana antolatzea erabaki zen. Orotara 100 bat gaztek hartu dugu parte talde hauetan

Talde hauek, Saharar herriak bizi dituen egoerak, egunerokoa eta hauen zergatien inguruan informatua izan ziren egindako 3 saio desberdinen bidez hiru lurralde historikoetan. Aipatzekoa da baita, Hondarribiko egoitzan burututako 2 egunetako topaketak. Bertan eta lehenengo aldiz, 3 lurraldeetako lan taldeak bildu eta elkar ezagutu ziren. Topaketa hauetan formazio saioak burutu ziren eta baita, errefuxiatuen kanpamentuetan landuko ziren gaien inguruko taldeak sortu eta lanketarekin hasi. Guzti honek balio izan du taldeak gutxika indartu eta kohesionatzeko eta azkenean lan gogor baten ostean 2009ko apirilaren 12tik 18ra Argeliako errefuxiatu kanpamenduetara bidaiatu zuten. Bidai honekin *euskal eta saharar gazteen lehen topaketak* burutu ziren Auserten.

Lantalde honen inguruan egiten den balorazioa, hasiera batean aurreikusitakoa baino askozaz hobe izan da eta egun, bidaiatik bueltan, lantaldea, gazte ekimen bilakatu eta lanean jarraitzeko asmoa agertu du. Honen bidez, euskal gazteen artean, Saharar herriak bizi duen egoera ezagutaraztea du helburu. Zentzu horretan, proiektu hau hasi eta urte betera, jada Ya-lah izeneko gazte plataforma bat dago Gipuzkoa mailan lanean dabilena gazteen artean Mendebaldeko Saharan ematen diren injustizien berri emateko.

Aste Santuetatik bueltan, EGKren papera etorkizunean zein izan beharko litzatekeen eztabaidatu zen. Hasiera batetik izan ziren EGK zein Nuyum egitasmo hau bultzatu eta protagonismo nagusia hartu zutenak.

Errefuxiatu kanpamenduetatik bueltan, bertan parte hartu zuten gazteek biltzen, antolatzen jarraitu nahi zuten, are gehiago bertako errealitatea ezagutu eta bertako gazteek lan politikoa, hemen Euskal Herrian egiteko eskatu zieten. Ondorioz, EGKk lurralde koordinatzaile bat bideratu zuen Ya-lah, sortu zen gazte ekimen horri lehen aupada, bultzakada horretan lagun ziezaion. Ardura hori Gipuzkoako lurralde koordinatzaileak hartu zuen eta 2009 urte amaieran lada Ya-lahk dinamika propioa hartzen ari dela ikusita, EGKren papera taldeari ibilbide propioa egiten uztearena izango da beti ere beste elkarteei eskeintzen dien asesoria eta laguntza bera eskainiz.



▪ **IJITO HERRIARI BURUZKO JARDUNALDIAK**

Nahiz eta jardunaldiak Gipuzkoan ospatu, horren antolaketarako behar izan duen guztirako prest agertu gara lurralde koordinatzaileok. Kartelak egokitu, ekarpenak egiten edo bestelako laguntza eskaini da.

PRESIDENTETZA

▪ **GAZTELEGEA 2.0.**

Aurreko legegintzaldian porrot egin zuen gazteria legea eratzearen asmoak, prozesuak eta arduradunak. Egian, EGKk lan potoloa bete zuen, baina ez geunden behar bezala prestatuta holako prozesu bateri benetako diskurtso bateratuarekin aurre egiteko. Behin hauteskundeak pasatu eta gobernuak aldatuta, beste gazteria legearen prozesuarekin hasteko prestatzen hasi ginen. Honetarako, *Gaztelegea 2.0* sortu genuen: Zer esan behar du EGKk honen inguruan? Gazteria legearen ereduari buruzko hausnarketa eta lan prozesua abian zen. Prozesu honi bultzada emateko lantalde bat eratu zen, EGKko presidentea, Batzorde Iraunkorreko kide 2 eta lantalde tekniko pertsona batekin.

ARLOETAKO KOORDINAZIOA

▪ **EGKren XXVIII BATZARRA.**

Batzar guztiekin bezala, antolaketarako ezinbesteko pausuak eman ziren. Lurralde lanari dagokionez, Batzarraren nondik norakoak elkarte guztietara helaraztea zen helburua. Honetarako, ohiko bideak jarraitu genituen: posta, telefonoa, posta elektronikoa eta lurraldeko elkarteekin bilera, martxoaren 5ean burutu zena.

▪ **2010 URTERako PLANGINTZA PARTE HARTZAILEA.**

Aurten inoiz egin ez den ekimen bat aurrera eramaten saiatu gara. Nahiz eta EGKren lan ildoak elkarteetan batzarrak erabaki, bertatik ondorioztatzen ziren urteko plangintzak garapen teknikoak izan dute betidanik. Beraz, elkarte gehienak EGKren urte horretarako plangintzaz batzarrean bertan ohartzen ziren. Egoera hau saihesteko, lurraldeko bilerak egin ohi dira batzar guztiak baino lehen. Hala ere, elkarteetan parte hartzea oso eskasa zen eta urterokoa errepikatzen zen behin eta berriz.

Horregatik, betiko pausuen aurreko beste bat asmatu dugu: urtea bukatu baino lehen, elkarte guztietara galdetegi moduko zerbait bidali genien, erantzuteko eta ekarpenak egiteko eskean. Hilabete osoko epea utzi zen – urriaren 5etik azaroaren 5era. Hori baino lehen eta bitartean, elkarteekin izandako bileretan, prozesu honi buruz informatu zaie. Erantzun duten elkarteak 8 izan dira. Lantalde teknikoan eta Batzorde Iraunkorrean jasotakoak jorratu ditugu eta kontuan hartu ditugu 2010 urteko plangintza sortzerakoan. Oso positibotzat jotzen dugu prozesu honen jaiotza, hurrengo urteetarako kontuan hartzeko abiapuntu bat suposatzen duelako.



- **SARE LANA BULTZATU.**

Elkarteen plangintzak ezagutuz gero, antzeko helburuak, jarduerak edo interesak eduki litzazketen elkarteei elkarlanerako proposamena zabaldu.

JOC - Juventud Obrera Cristiana: maiatzak 1

Langileen eremuaren heziketan eta ebanjelizatzean lanean dabilen Gazte kristauek osaturiko mugimendua eta langileagoaren esparrua eraldatu nahi duen elkartea da.

Maiatzaren 1ero kalera ateratzen dira bere kabuz, beste inoren siglak jarraituz, euren preguak aldarrikatuz.

Elkartearekin bildu ostean (hau da, egoera, egitura, egoitza, asmoak, plangintza eta abar ezagutu) EGKn dauden beste kristau mugimenduekin lan sarea sortzeko proposamena mahaigaineratu genien: guztiak gazte, kristauak eta gizartearen eraldatzaileak diren heinean, egun horretan bat egiteko eta batera ateratzeko taldeen plataforma aintzindariak izateko.

Lan sare hori bultzatzean, JOCen eguneroko lana berpiztuko lukeela konbentzituaz, koordinazio lanera behar duten guztirako EGK prest izango dutela azaldu zaie.

1. Urtean bildutako elkarteak: 42 elkart
2. EGKko jardueretan parte hartu duten elkart kopurua. 30
3. Elkart bakoitzarekin sortutako kontaktuak. 98 bilera
4. Sortutako sareak-harremanak elkarten artean. 7
5. Elkarteengandik jasotako lanerako proposamenak. 5
6. Elkarteei proposatutako elkarlanak. 6

3.2. EAEko ELKARTE SAREAK/ERAGILEAK

Aurten inoiz baino kanpo eragile gehiagorekin izan dugu harremana (**ikusi II. Eranskina**), aurreko urtearekin konparatuz ia 70 eragile berri. Azkeneko urteetan egindako lanagatik, EGK erreferentzizko eragilea bilakatu dela esan dezakegu. Urtearen hasieran dinamika finko batzuk identifikatuta geneuzkan, baina krisia eta munduaren egoera dela eta, kaleko mobilizazioak nabarmen areagotu dira eta gizarte mugimenduak ohi baino gehiago atera dira kalera.

Guzti honi erantzuteko ahalegin berezia egin dugu EGKtik, batez ere jasotako edo ezagututako deialdiak beste lurraldeetara luzatzeko. EGK presente egon da lurralde mailan sortu diren gizarte eragileen plataforma gehienetan.

Gazteen ahotsa bertaratu baino, inplikazio maila altu honek gazte eragile berriak ezagutzeko aukera eman digu, EGKren erreferentzi sarea modu nabarmen batean indartzeko eta beste eragileekin geneuzkan dinamikak eta lan sareak finkatzeko.



Aipatzekoa da ere, Bizkaiko boluntzariotza agentziarekin – bolunta – sortutako harreman egonkorra eta etorkizun labur batean lankidetzan islatuko dena.

Urte hasieran markatutako helburuak soberan bete direla esan dezakegu harro. Zalantza barik 2009a izan behar dugu eredutzat kanpo eragileekiko lanari dagokionez.

- Sortzen diren ekimen berrietan parte-hartu/ ezagutu.
- EGKren erreferentzia sarea zabaltu/indartu.
- Boluntariotza agentziekin hausnarketa komunak burutu.
- Finkatutako dinamiketan partaidetza bermatu

• **PALESTINA HERRIAREKIKO ELKARTASUNEZKO PLATAFORMAK**
<http://palestinaelkartasuna.blogspot.com/>



Urtearen hasieran, Palestinan gertatzen ari zen sarraskiaren harira, hainbat gizarte eragile biltzen hasi ginen horren kontrako mobilizazio adierazpenak antolatzeke. Erailketa masibo eta bonbardaketaren momentu gorenean Plataforma oso modu aktiboan funtzionatzen zuen: astero bilera bat edo bi antolaketarako, mobilizazio ugari, agerraldiak prentsan, informazio mahaiak, Israeldar produktuei boikot kanpaina bultzatu zen besteak beste. Palestinan bertan zen jendearekin komunikazioa, Bilborock-en egindako jaialdi baten bidez diru-bilketa bat etab. Egoera larriena eten zenean, kolektibo askoren inplikazioa eten zen ere. Hasieran modu erraz batean antolatzen ziren ekintzak, oraingoan esfortzu handiago bat eskatzen zuten. Horregatik Plataformaren barruan beren etorkizunari buruzko hausnarketa bat bultzatu zen. Talde askoren iritzia jarraitzearen aldekoak ziren, baina gero eta eragile gutxiago agertzen ziren bileretara. Horregatik Plataformaren zeregina bestelako jarduetara aldatu zen, kaleko mobilizazioetatik politiko eta sentzibilazio ekintzetara: Hala ere, Boikot kanpainak eta gizarteari zuzendutako kaleko ekintza deigarriak. Ekainerako jarduera eten zuen, Plataformak bezalaxe.

Gipuzkoan, berrantolaturiko Gerraren Aurkako Plataforman parte hartu genuen. Horrela, kontzentrazio desberdinak antolatu ziren baita Noa abeslari israeldarraren aurkako kanpaina egin, Donostian izan zuen kontzertua aprobetxatuz. Plataforma horretan zeuden eragile desberdinekin harremantzeko eta bakoitza zertan zebilen jakiteko aukera izan genuen.



2009ko urte amaieran, berriz ere taldea martxan jarri da, oraingoan pasadan urtean hasi zen Gazaren aurkako bonbardaketa eta blokeo egoerak salatzea begira. Honen harira, Nazioarteko Martxa deiturikoa doa Palestinarantz blokeoaren amaiera eskatzeko. Bertan, Gipuzkoako plataforman parte hartzen duten hiru kide doaz.

- **EKINTZA GLOBALERAKO ASTEA.**



Bigarren urtez jarraian, martxoan, FSMko (Munduko Jendarte Foroa) deialdi mundialari so eginez, bestelako mundu baten aldeko ekintzaz beteriko aste bat antolatzeko lanetan hasi ginen. Mugimedu honetan murgilduta dabiltzan Euskadiko eragile batzuk proposatu ziguten aipatu astea EGKtik bultzatzea eta koordinatzea, erreferentzizko eragilea ginelako, eta gure parte hartzeari esker, eragile gehiagorengana iristeko aukera izango genuelako.

Mobilizazioak bi gai zehatzetan gauzatu ziren: mundu mailako krisi ekonomikoa eta NATOren (Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea) 60. urteurrena.

Aste oso batean, eragile bakoitzak bere lan eremutik, jardueraz beteriko egitaraua antolatu genuen: hitzaldiak, tailerrak, elkarrataratzeak, manifestazioak...

Nahiz eta kalean iaz baino oihartzun gutxiagoa izan, talde guztiak oso positibotzat jo genuen aldarrikapen orokor batepean guztientzako berezko esparrua ireki ahal izana.



- **G-8 AKATU!.**



Badira jada 3 urte batez ere gazte eragilez osaturiko plataforma hau martxan dabilela. Eta hau da lan-sare honek daukan hoberena: gaztetasuna. Parte hartzen duten gehienak gazteak dira, eta hauetako asko, EGKn ez dauden gazte taldeak. Gazteengandik sortutako dinamika honek lurraldean mugitzen diren beste talde batzuk ezagutzeko, EGK ezagutarazteko eta beraiekin harremanetan egoteko aukera ematen digu. Haietako askok daukaten eskarmentu faltagatik eta EGKk talde horretan gaineratzen duenarekin erreferentziazko eragile positiboan bihurtzen gaitu euren begietara. Gerturatze horrek, beste gazteengana iristeko atea irekitzen dizkigu eta etorkizunerako aukera ona eskaintzen digu.

- **ZERO POBREZIA**

Hainbat urteren ostean egonkortasun handia lortu duen lantalde honetan lanean jarraitu dugu. Aurreko urteko irizpidea jarraituz, lantaldeak gaiaren inguruko formakuntza eta eztabaidari eman dio garrantzia, ekintzen jarduera gutxituz eta egun eta ekitaldi puntualetan parte hartuz.

Hilero ekintzak burutzearen dinamika aldatu eta ekintza puntualagoak eta esanguratsuagoak egitea pasatu da taldea. Horrela, Pobrezia Zero Plataforma moduan, Gipuzkoan bigarren aldiz burutu den munduko arrosak jaiari parte hartu dugu. Elkarrekin askoren elkarlana sustatu eta urtero urtero handitzen doan jarduera esanguratsua bilakatzen ari da. Bestalde, Urriaren 17an nazioarteko pobreziaren aurkako eguna dela eta aste guzti horretan zehar gai hau gizarteratzeko ekitaldi desberdinak burutu genituen Gipuzkoako puntu desberdinetan. Aurtengoan, Donostian ekonomia neoliberalak jasaten duen krisi globalarekin uztartu dugu mezu nagusia. Aste beteko ekintza saioa izan da, besteak beste zine forum, krisiak emakumeei nola eragiten dien inguruko hitzaldia, bizikleta martxa eta bertso saioa antolatu ditugularik.

Bestalde, ekainak 6an Mundumira Jaialdian izan ginen eta Irailak 27an “mundu zabala, errealitate anitz” ekitaldian besteak beste. Finean, urte guztian zehar martxa duen lantaldea da eta ekitaldi anitzetan hartzen du parte.



- **URRIAK 17 - POBREZIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.**



Bostgarren urtez, sortutako lan-sareak martxan jarraitzen du. Talde finko eta sendoa bilakatu da. Tamalez, urteroko aldarrikapenak, helburuak, salaketak ez dira aldatu, baina gizartea eraldatzeko nahiak beti bezain sendo jarraitzen dute. Horretarako, Urriaren 17tik gertuen dagoen ostiralean, adin guztietako jardunaldi berezi bat antolatzen dugu urtero. Aurten, *Noizko pobreziaaren aurkako txertoaren* lelopean atera gara kalera. Munduan dagoen arazorik larrienari konponbiderik bilatzen ez dutenean, A Gripearekin sortutako histeriari ironiaz beteriko keinu bat egin nahi izan diogu.

- **GIZALDE. BOLUNTARIOTZA LANTALDEA.**

Aurtengo ikasturtean ere Gipuzkoan diharduten beste eragileekin batera hausnarketarako espazio hau mantendu dugu. Zehazki taldeetan diharduten liberatu eta boluntarioen elkarlanaz hausnartu dugu. Zentzu horretan, Boluntariotza Lantaldean hartzen du parte EGKk. Lantalde hau, Cáritas, Hezkide Eskola, Atzegi, Mundo Nuevo, Gizalde eta EGKk osatzen dugu eta urte osoko jarraipena izaten du. Hilean behin elkartzen da lantaldea gizarte eragileek izan ohi dituzten arazoari hurbilketa teoriko bat egiteko. 2009ko urte amaiera honetan lanketa berriak jorratzen hasi nahi du taldeak, *“administrazioek boluntariotzaren inguruko duten jarrera”* ren inguruan.

- **EHGK - EUSKAL HERRIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA**

Aurtengo ikasturtean Euskal Herriko Gazteriaren Kontseiluarekin harremanetan egon gara. Harreman hau elkarren arteko elkar ezagutza sustatzeari begira egon da nagusiki. Eragile bakoitzaren lan ildoak eta lehentasunak zeintzuk diren jakin eta bata bestearen berri izateko antolatuak. Horrela, nahiz eta bakoitzak lan ildo eta esparru geografiko desberdinak jorratu garrantzizkoa da gutxieneko harremana bermatzea prozesu eta egitasmoak ez biderkatzera begira.

Esan bezala, norberaren dinamika berezituak, dugun harreman hori batez ere informaziozkoa izatea egin du.

Hala ere, harreman hau 2009 urtearen hasieran eman da nagusiki, urtearen bigarren zatitik aurrera arrazoi desberdinak medio ez dugu elkarren berri izan.



- **HEMEN EZ DAGO INOR SOBRAN**
(<http://www.harresiak.org/www/campanas.php?regid=20>)



Harresiak Apurtuz – EHko etorkinen laguntzarako GKEen kordinakundeak Atzerritarrei buruzko Legearen erreformaren Aurreproiektuaren kontrako bultzatutako kanpainarekin bat egiteko eskaera egin ziguten. Baiezkoa emateaz gain, bestelako inplikazioa hartu genuen, euren kanpainaren difusioan eta horren bultzadaren ekintzetan parte hartzen. Honi esker, lurraldean dauden dozenaka etorkin elkarte ezagutzeko aukera izan genuen.

- **KEPASAKONLAKASAREN MANIFESTAZIOA**

Euskal Herrian eta neurri berean Gipuzkoan etxebizitza eskubidearen urraketa gauza ohikoa bilakatu da. Horrela, gazteek emantzipaziorako dituzten aukerak hutsaren hurrenekoak dira, etxebizitza merkatu libreko espekulazio gai bilakatu delako. Kepasakonlakasa, gipuzkoan etxebizitza eskubidea benetan errespetatu eta bete dadin lan egiten duen kolektiboa da. Hauen eskakizun nagusiak, benetako etxebizitza eskubidea bermatzearena da eta eskubidea den tematika hau, merkatu libreko espekulazio horretatik atera eta benetan eskubide bezala gauzatzean datza. Ideia hauek indartu eta gizarteratzeko Kepasakonlakasakoek manifestaldia antolatu zuten martxoaren 14ean Donostian. Honen antolaketan EGKk parte hartze zuzena izan zuen, kontseiluak eragile honek duen ikuspegiarekin bat egiten duelako. Gutaz aparte, eragile andana bat atxikitu zen manifestazio honen deialdira.

- **HERRIA ABIAN** (<http://www.herria-abian.org/>)

Mugimendua ezagutzeko hasierako bilera batean parte hartu ostean, Batzorde Iraunkorretik pasatu zen plataforma horretan parte-hartze formala izateko proposamena. Ezezko erantzuna erabaki ostean, erantzuna luzatu genien bertan parte hartzen zuten mugimenduei.

- **M-21KO GREBA OROKORRA** (<http://www.grebaorokorra.info/>)

Euskal gehiengo sindikalak, gizarte mugimenduoiei gonbidatu zigun bilera batetara grebaren nondik norakoak azaltzeko eta gizarte eragileen atxikimendua bilatzeko. EGKko Batzorde Iraunkorrean ezezkoa erabaki zen eta horrela azaldu genien sindikatuei.



- **GAROÑA:ITXI ORAIN!** (<http://www.ekologistakmartxan.org/>)



Garofiaren erabilera 10 urte gehiago luzatu ez zedin eta Zapateroren gobernuari, Nuclenorrekin eskatutako luzapena arbuilatu zezan aldarrikatuz sortu zen Ekologistak Martxan-ek bultzatutako ekimena. Ekainaren 25ean deitutako manifestazio deialdiarekin bat egin genuen 39 eragile sozial, sindikal eta politiko.

- **ALDAKETA KLIMATIKOAREN KONTRAKO PLATAFORMA**



Ekintza Globarelako Asteko esperientzia eredutzat hartu, Ekologistak Martxanetik deitu ziguten laguntza eskean Copenhagen garatuko zen klima aldaketaren inguruko goi-bilera zela eta zer edo zer antolatzeke asmoarekin. Hasteko, Ekologistak Martxaneko arduradunak eta EGKk hedapen kanpaina diseinatu genuen lehenengo bilera irekira ahalik eta eragile gehien hurbildu zitezten. Hortik aurrera, dinamizazio eta koordinazio lanak euren eskuetan geratuko lirakeela adostu genuen. Lehenengo bilera horretara 40 pertsona inguru bildu ginen.



- **GURE AMETSAK 360.000** (<http://gureametsak360000.blogspot.com/>)



Urria aldera, Zallako “Harrikada” Gaztetxeko jendea harremanetan jarri zen EGKrekin euren egoera larria ezagutarazten laguntzeko eta gure elkarte zein kontaktuen artean hedatzeko. Eurek idatzitakoa aztertu ostean*, eta EGKren 22. Batzarrean Gaztetxeen inguruan adostutako testua oinarria hartuta, EGKren babes eskaini genien etaprentsarako iritzi artikulua idatzi genuen.

Hortik aurrera, maiztasunezko kontaktua sortu zen eta babesaren irudikapena abenduaren 11an, Bilboko La Bolsa Auzoetxean burututako prentsaurrekoan izan zen.

* “...hondamen bidean eta hutsik dagoen etxe bat okupatzeagatik espazio kultural eta sozial bat eraikitzeko, epaiketa batera ailegatu egin gara eta Zallako Gazte Asanbladako hiru gazteri isun bat jarri zaie: 360.000 € (lehengo 60 milioi pezeta). Hiru gazte epaiketetan sarturik etxe bat okupatzeagatik eta hiruretako inork ez zegoen herrian egun horretan, beraz, ezin izan zuten okupazioan parte hartu....” (Dokumentu osoa goian aipatutako web helbidean)

- **GOITIBERA ALDIZKARIA** (<http://www.goitibera.org/>)

2008an aldizkariarekin eta EGKren artean sinatutako lakidetzarako hitzarmena mantentzen dugu 2009an. Gazte elkartegintzatik - EGKko kide batengatik – sortutako aldizkari bati laguntzeko nahian jaio zen bi eragileon arteko lankidetzak. Aldizkariak hilabeterako alean orri oso bat eskaintzen digu eta EGKtik edukinez betetzen dugu, hori bai, beti alearen dagokion gairi lotutako edukiekin.

- **ERDU**

Aurten momentu desberdinetan elkartu gara: batez ere, ERDUren X. urteurrenean, Arabako Elkartearen Azokaren antolakuntzan parte hartzen.

ERDUren erakunde sustatzaileek – Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteizko Udala eta Caja Vital Kutxa- erakundearen X. urteurrena ospatu zuten Arabako Elkartearen Azoka antolatuz, arabako elkartegintza eta elkarteek gure gizartean duten papera ezagutzera emateko ekimen baliagarria izan zitekeelakoan.



Arabar lurraldeko 50 elkarteetako ordezkariak parte hartu zuten. EGK eta EGKko elkarteak, Elkarteen Azokaren antolakuntza eta edukien diseinuko partaidetza prozesuaren hasierako oinarriak definitzen parte hartu genuen.

Elkarteen azokaren prestaketaren prozesuan parte hartzeak, batez ere Arabako elkarteen egoeraren jarraipena egiteko balio izan digu eta ERDUren eta EGKren funtzioen inguruan hausnartu eta ekarpenak egiteko. Hau dela eta, elkarteen akonpainamendu prozesuari garrantzi gehiago eman behar zaiola uste dugu, batez ere euren beharrak etengabe eta momentuan ezagutzeko, eta formakuntza edota bestelako zerbitzuak beharrei egokitu ahal izateko.

- **BOLUNTA** (<http://www.bolunta.org/>)

Abenduaren 5erako – Boluntariotzaren nazioarteko eguna – EGK, EGKko elkarteak eta Bizkaiko boluntariotza agentziak modu bateratuan egun honen harira jardueraren bat antolatzeke proposamena luzatu zigun Euskal Interkultura elkarteak. EGKren elkarte honen proposamenekin boluntaria jo genuen eta bilera bat burutu genuen honen inguruan hitz egiteko. Hasiera batean, ematen zuen ekimenak aurrera joko zuela baina ez-ulertu batzuegatik bertan behera geratu zen dena.

Gertatukoari buruz hitz egiteko geratu ginen berriro, eta dena adostu eta konpondu ostean, hasi ginen asmatzen epe-ertain luzerako lankidetzarako hitzarmen bat, 2010 urtean gauzatuko dena.

- **BIZKAIA IRRATIA** (<http://www.bizkaiairratia.com/>)

Bizkaia Irratitik hilabetea behin Lau Haizetara tertulian parte hartzeko proposamena luzatu ziguten, bai komunikazio teknikariari zein Bizkaiko koordinatzaileari. Tartekatuz joatea erabaki genuen, hilabete bakoitzean bat. Irratsaioak, tertulia programa den heinean, beste gonbidatuekin batera eguneko gizarte gai ezberdinei buruz eztabaidatzean zatsan. Gazteen iritzia eta EGKren diskurtsoa erakusteko gune aparta iruditu zitzaigun.

Egun, 142 eragile sozialekin gaude elkarlanean (**GIPUZKOA ETA ARABAKO ERANSKINAK**)

- Parte hartutako plataformak. 22
- Egondako eragile sozialak. 1XX
- Sortutako topagune/ sare berriak. 8

3.3 EAEKO ADMINISTRAZIOETAKO GAZTERIA SAILEKIN LANA

Gazte eragile handiena den administrazioarekin, derrigorrezko harremana bilatu behar dugu. Askotan, EGKren funtzionamendua bermatzeko, beste gehiagotan gazteria politiketan eragina izaten saiatzeko. Gazte elkartegintzaren ahotsa entzunarazteko ere parte hartzen dugu administrazio ezberdinen zenbait guneetan. Gauza bat edo beste medio, argi dago elkarren beharra daukagula. Horregatik, urtero saiatzen gara maiztasunezko harremana izaten maila ezberdineko administrazioekin: aldundiak eta udalak nagusiki. Egian, urteko emaitzak ez dira



nahiko genituzkeenak, baina lorpen esanguratsuak gureganatu ditugu behintzat. Aipagarriena, Bizkaiko Aldundiarekin lortutako hiru urteetarako hitzarmena, harremanaren sendotzea eta Bilboko Udalarekin berreskuratutako harremana dira, gutxi, baina bada zerbait. Jarrain erakundez erakunde egindakoa aipatuko dugu.

- Hitzarmenak aztertu.
- Elkarlanerako espazioak sortu/sustatu:
 - Gasteizko Foroa: bizkaiko lurraldearekin ere lotuta dago.
 - Gizarte egutegia
 - BFAko Foro Gaztedi
 - BFAko Hitzarmenerako batzordea
 - Gazte Planarako Batzorde Forala
 - ...
- Lurraldearen ezagutza: udaletako gazteria zerbitzuekin lana

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Aurreko urtean bakoitzak besteari, norberaren lan esparruaren berri eman eta elkarlanean aritzeko ideiarekin jarraituz, hitzarmen berria egiteari begirako bilerak burutu dira. Elkarkidetza hau definitu eta hobetzea zuten helburu aipatu bilerek. Horrekin batera, aldun nagusiaren bulegoaren eskutik Partaidetza eta Gobernantzaren inguruko ausnarketetan parte hartu eta prozesu hauen zabalketa lanetan lan egin dugu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak azken urte honetan Partaidetza sustatzeko hausnarketa gune desberdinak jarri ditu martxan. Hauetako asko gazteei zuzenduak izan dira, gizarte sektore hau baita etorkizuna, eta aldi berean administrazio publiko orotik urrunen bere buruak ikusten duena. Ondorioz, aldundiak enpresa desberdinei ikerketak egitea zuzenduriko lanetan, hauek EGKri deitu izan diote, prozesuen zabaltze zein berauetan parte hartze zuzena izateko.

Modu honetan, “Gaztematika” edo “*Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenerako sistema*” izenekoan parte hartu dugu. Esan beharra dago, aldundiak aurkezpen formal bat egin digula eta gune honetan benetako partaidetza 2010. urtean ematen hasiko dela.

Bestalde, “*Gipuzkoa + 20*” (G+20) proiektuan ere parte hartu dugu, email eta deien bidez parte hartzaileak bideratzen. Proiektu hau esparru desberdinetara zabaltzen da eta gazteria arloa Elhuyar Fudazioak bideratzen du. Beraiek izan ziren gurekin harremanetan jarri eta laguntza eskatu zigutenak.

Aurreko bi proiektuekin batera “*Parte hartuz erabakitzen dugu*” izeneko jardunaldi batzuetan ere parte hartu zuen EGKk. Hau aldundiak bultzaturiko beste partaidetza gune bat izan zen azaroaren 12an burutu zena Donostiako Kursallean. Oraingoan, Eusko Ikaskuntza izan zen antolaketa lanak egin zituen eta oinarri txosten gisa Aztikerren gazteei buruzko ikerketa erabili zen.



Eusko Ikaskuntzak gazteak bertaratzeko laguntza eske deitu gintuen eta guk gure elkarte eta harreman sareetara zuzendu ginen bertaratu zitezen. Horrekin batera EGK ere present izan zen aipatu jardunaldian.

Azkenik, Abenduaren 11ean, Gobernantzaren inguruko topaketa batzuetan parte hartzeko deituak izan ginen, *“Kultura Politikoa Gipuzkoan: Hausnarketa Jardunaldiak”* izena hartu zutenak. Bertan Gipuzkoa mailako 40 eragile erreferente elkartu ginen gazteak eta gobernarien arteko distantziamenduaz hausnartzeko.

Argi dago Partaidetza indartzea ona dela. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiari behin baino gehiagotan esan bezala honek koherentzia bat eskatzen du. Prozesu edo proiektu parte hartzaileek mugak guztiz argiak izan behar dituzte, hau da, jasotzen den iritzia zertarako izango den, zenbat saio burutuko diren, erritmoak zeintzuk izango diren...

Partaidetza geroz eta hurrunago dauden gazteak eta administrazioa elkartzen lagun dezake baldin eta hau benetan, gizarteak orokorrean eta gazteak zehazki dituzten arazoak (etxebizitza, lana...) konpontzen laguntzen baldin badu. Partaidetza marketing erraminta bat bezala erabiltzen dela ikusten dugu sarri eta horrek politikarekiko dagoen desafekzioa indartu eta partaidetzaren zilegitasun galera dakar. Beraz, emaitza oso kaltegarria izatearen harriskua du gaizki erabilbitako parte hartzeak.

Beraz, EGKk, aldundiak zuzenean antolaturiko ekintza zehatzetan parte hartuko du baldin eta aurrez esan diren baldintzak betetzen baldin badira. Ez baino, aldundiak enpresa bati emaniko kontrata bat baldin bada eta hauek beraien proiektua aurrera ateratzeko laguntza eske deitzen baldin badigute. Guk ez baidugu enpresentzako lan egiten.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Lurraldetasun arlotik, Aldundiarekin izandako harremana bi erakundeen arteko hitzarmenaren negoziatziora mugatu izan da. Urtea hasi zenetik horri ekin genion: aurreko urteatik BFAtik jada esana ziguten genuen hitzarmen eredu aldatu beharra zegoela Aldundiko Ogasun sailean justifikatzerako orduan honek zuen egiturak arazoak sortzen zituelako. Horretarako, gure plangintzak proiektuak azalduta agertu behar zuela, akordioaren barruan EGKren zenbait egitasmo zehatz hitzartzeko.

Behin-betiko dokumentu bateraino iritsi arte, hilabeteak eta bilerak pasatu ziren beti zer edo zer aldatu behar genuelako edota hitzarmenaren oinarri ideologikoan dezadostasunak zeudelako. Honetan, EGKren barne egoerak ez zuen asko lagundu.

Azkenean, hiru urterako lankidetzarako akordioa hitzartu dugu (2009-2010-2011). Esan beharra dago akordio horretara iristeko gakoa bi erakundeen borondatea izan dela



Hala ere, ia urte osoa eraman dugu honekin, eta honek beste gauzetan zentratzea eragotzi digu. Haatik, bidea lauzatu dugu datozen urteetan ereindako haziak etekinak eman ditzaten.

Aipatzekoa da ere, urte osoan egondako komunikazioa oso arina eta erraza izan dela.

ARABAKO GAZTERIA FORU ERAKUNDEA.

Aurreko urtean bakoitzak besteari, norberaren lan esparruaren berri eman eta elkarlanean aritzeko ideia proposatu zen. Hau da, “EAEko gazteria baliabideen azterketa” egiteko egitasmoa garatzeko elkarlana proposamena egin genien Hau dela eta, aurten maiatzetik abendura bitarteko hitzarmen berria egiteari begirako bilerak burutu dira. Elkarkidetzak hau definitu eta hobetzea zuten helburu aipatu bilerek. Era berean, talde teknikoarekin harremana etengabea izan da, batez ere hezkuntza arloari begira burutu diren ekintzengatik. Aurreko urteetan bezala, elkarlana sustatzeko eta sistematizatzeko marko baten beharra ezinbestekotzat jotzen dugu. Aurten, lehendabiziko aldia da Arabako Gazteria Foru Erakundearekin hitzarmen bat dugula. Aldundiko talde teknikoaren eta EGKren artean izandako elkarlana aberasgarria izan da.

BILBOKO UDALA

Beste arloetatik edo proiektu zehatzengatik harremana puntuala egon den arren, lurraldeko hiririk handieneko udal administraizoarekin beti saiatu gara harreman egonkorra sustatzen, gazteria politiketan daukan eragina eta esku-hartzeagatik. Hala ere, azkeneko urteetan hori ez da lortu, nahiz eta saiakera nahikotxo egin den hau lortzeko.

Aurten, berriro jo dugu gazteria zinegotziarengana gure asmoa aurkezteko nahian. Hasierako saiakerak telefonoz zein e-mailez izan ziren. Azkenik, zinegotziari zuzendutako gutun pertsonalaren bitartez lortu genuen kontaktatzea. Urrirako bilera bat hitzartuz, azkenean bere sailtako teknikari batekin biltzea lortu genuen bakarrik. Hala ere, bilera burutu ostetik ez dugu beraien berririk izan.

- **Gizarte Egutegia.**

Urtxintxa Eskolak, EDE Fundazioak, Bilboko Udaleko bi sailak (Partaidetza eta Barrutietako Saila eta Enplegua, Gazteria eta Kirol Saila) eta EGK-k osatutako lantaldearen helburu nagusia da Bilboko elkarte mugimenduak egiten duen ekintzen hedapena eta indartzea. Gizarte Egutegia, hilerokoa den agendaren argitaratzearekin jarraitu dugu. Bertan, gizarte eragilek egiten dituzten jardueren informazioa batzen da hilerokoa; eurek garaturiko ekimenen berri gizarteari ezagutzera emanez. Aurten, internet-en bidez ikusteko aukera berria sortu da.

Azkeneko 7 urteetan bezala, irailan argitaratu da “Elkarteen eta boluntarioen prestakuntzarako baliabideen GIDA”, non elkarte zein erakundeek gauzatuko dituzten eskaintza hezigarriak biltzen diren.



Lantaldeak berak ez du lan handirik eskatzen, baina Bilboko Elkartegintzari egiten dion mesedea handia da. Baita, beste eragileekin harremanetan egoteko eta Bilboko Elkartegintzaren zati baten jardueraz jakiteko balio digu.

- **Bilboko Bakearen V astea.**

Urtearen hasieran, Urtarrilaren 26etik Otsailaren 1ra, Bilboko bakearen V astea ospatu zen. Iazko memorian azaldu bezala, bake heziketan, giza eskubideetan eta gizarte gaietan dihardugun zenbait gizarte eragileek hartu genuen parte. Bilboko Udalak, bere V bakearen astea antolatzeko, zenbait elkarte kontuan hartu nahi izan zituen Astearen egitaraua egiteko eta betetzeko. Hauen artean ziren Itaka Fundazioa, Bakeaz, Izan ere, EDE Fundazioa, BAKEOLA, Zinhezba, Lokarri, Gesto por la Paz eta EGK. Elkarte bakoitzak konpromiso batzuk bere gain hartu zituen, gurean, askotan bezala elkarteek Ekintzen bideratzea izan zen. Iazko formatua aldatu zuten. Beste urteetan Bakearen arlo ezberdinak jorratu baikenitu, aurrean era orokorrean jorratzea zen asmoa. Geunden eragileok erabaki genuen, jarduerak proposatuz, zelan ukituko zen Bakearen gaia. Jarduera guztiak karpas handi baten azpian garatu ziren.

Geunden eragileok ikusita, Bakearen gaian ukitzen ez ziren beste gai batzuk jorratzea proposatu genuen: indarkeri matxista eta herri txirotuetan enpresa transnazionalak eragiten dituzten bortizkeriak. EGKren proposamen atzera bota zen. Udalaren esanetan, horiek ez ziren aste horretan lantzeko gaiak. Erabakiak zeinek hartzen zituen ere argi geratu zen. Hori guztia ikusita, zalantzan jartzen hasi ginen gure parte hartzea elkarteen mahai horretan, elkarteen hitzak baliorik ez baitzuen.

Azkenean, astearen lehengo egunean, uholde arriskua zegoelako, bertan behera geratu zen V Bakearen Astea.

- **Idea biribilen II lehiaketaren epaimahaia.**

Ekainaren bukaeran, Bilboko Udaleko Gazteria Zerbitzutik, deitu gintuzten lehiaketa honetako epaimahaian parte hartzeko. Txosten bat irakurri ostean, adin-gutxiko gazteak aurkeztutako proposamen guztien artean, 2 aukeratu behar genituen, eta gazte helduak aurkeztutakoen artean beste 5 aukeratu.

Txostena aztertu eta aukeraketa eginda eta gero, epaimahaian batzartu ginen egin genituen aukeraketak partekatu eta bakar batetara iristeko.

- **Mintzakide Programa: Udalaren Euskara Zerbitzua eta Ulibarri Euskaltegia.**

Bilboko Udaleko Euskara Zerbitzutik, Ulibarri Euskaltegiarekin batera, bilerak batera deitu gintuzten haiengandik sortutako *Euskara Sustatzeko Mintzakide Programa* azaltzeko, eta EGKren kontaktuen artean hedatu eta helarazteko aukerak aztertzeko. Eskarari so egin genion eta Bilboko Bulegoan Programaren publizitate euskarriak jarri genituen, baita gure kontaktuen artean informazioa zabaltzeko ere.



GASTEIZKO UDALA

Egindako lana etengabea izan da. Lanak, batez ere, “Gazteria Politikak Aztertze Foroa”ren aurtengo udaberriko jardunaldiaren antolaketarekin zerikusia izan du, baina baita Gazte Planaren Jarraipen Batzordearekin ere.

Gasteizko II. Gazte Planaren eraketaren Jarraipen Batzordean, gero eta elkarte gehiago ari dira parte hartzen, momentu honetan hamahiru inguru, eta badirudi lan egiteko sare interesgarri bihurtu daitekeela. Udaletxeak elkarteei gero eta protagonismo handiagoa eman nahian, lan garrantzitsua egiten saiatzen ari da. Hala ere, momentuz, espazio honen bitartez elkarleen indartzea eta benetako elkarlana sustatzea ez da lortu. Horretarako aldaketa garrantzitsuak, (Zerbitzuari helarazi dizkiogunak), eman beharko lirateke, Batzorde honek Gazte Planaren ebaluaketa egiteko Udaletxearen beharra asetzeko esparrua bakarrik bilakatu ez dadin.

Gasteizko Udaleko II. Gazte Planaren Jarraipen Batzordean urte guztian zehar, hilabeteen behin gauzatu diren bileretan parte hartu izan dugu. Parte hartze hori, aktiboa izan da. Momentu hauetan, taldea ebaluazio fasean aurkitzen da. Gazte Planaren proposamenak egiteko aukera izateaz gain, gasteizko eragile desberdinak ezagutzeko eta hauekin elkarlana bultzatzeko balio izan digu.

“*Gazteria Politikak aztertze Foroa*”: Gazteria-agenteentzako gogoeta eta berrikuntzarako topagunea” proiektua, Gasteizko Udaletxeko Gazteria Zerbitzua eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren arteko lankidetzarekin sortu zen 2007. urtean.

Foro honen ezaugarri gorena, administrazioetako teknikariek, gazteria elkarrekin batera lan egiteko aukera dutela da, honen bitartez, errealitatea hobeto ezagutuz eta ikuspegi ezberdinak kontrastatuz.

Urte honetan 5. jardunaldia ospatu dugu. Bosgarren edizio hau eta 2009ko aurtengo lehena, maiatzaren 6an, asteazkena, ospatu zen. Gazteria Politikei buruzko 5. foro honetarako, Gazteria Politikak eta partaidetza gaitzat aukeratu zen. Oraingoan, **"GAZTEAK ETA PARTAIDETZA LARRUGORRIAN"** izenburupean.

“Parte Hartuz”eko Alicia Susok dinamizatu zuen jardunaldiko lehen zatia, Gasteizko Udaletxeko Herriarren Parte hartze Zerbitzuko Juan Carlos Alonsoren laguntzarekin.

Hiru hizlari egon ziren, beraien esperientzia pertsonalez hitz-egiteko. Landu ziren esperientzien artean, Udal batzuek eta Aldundiek, gazteek parte hartzeko egindako hainbat esperientzia aztertze aukera izan genuen.

Aurkeztu eta landu ziren esperientziak honako hauek izan ziren:

- Gasteizko Udala: Gazteak eta Etxebizitza lan taldea.
- Bizkaiko Foru Aldundia: Gazte Plan Forala
- Gipuzkoako Foru Aldundia: Gaztematika.



Esperientzia hauen analisia, Alicia Susok aurretik eztabaidan jarritakoarekin eta azaldutakoarekin, hiru lan taldetan banatu ziren, non analisiaren ostean, irizpideak adosten aritu ziren jarraian arratsaldeko lan talde handira eramateko.

Bukatzeko, eztabaida gunen baten bitartez lan talde handian landu ziren irizpide guztiak bat eginez saiatu ziren, non Alicia Susok, jardunaldi guztian zehar landu zena laburtzen eta jardunaldiaren ebaluazio parte hartzaile bat egiteaz arduratu zen.

Euskal Autonomi erkidegoko 47 teknikari eta administrazio desberdinetako politikari eta elkarte (Urtxintxa eskola, EDE suspergintza, Elhuyar, Elgoibarko Izarra elkarte, Erdu...) eta enpresa (Ortzadar S.L, Atelier, AZ prozesu parte hartzailea...) desberdinetako ordezkariak, Simone de Beauvoir elkarte-etxean bildu ziren.

Ospatutako lehenengo jardunalditik aurrera, gazteria- agenteen harrera oso ona izan da eta parte hartu ahal izateko leku kopurua etengabe handitu behar izan da. Gaur egun, sare trinkoa, anitza, motibatua, gaitasun kritiko handikoa dela, hau da, aukera asko dituen, esan dezakegu. Balorazio orokorra positiboa izan zen.

Ospatutako bost jardunaldiek eta gazte eragileen harrera ezin hobia eta gero, egitasmo honek erronka berriei egin behar die aurre: lurraldetasuna bermatzeari begira; elkarteentzako partaidetza handitzeari begira; gazte eragile heterogeneoen sare emankor, solidoa, hurbila, sortzeari begira. Horretarako egitasmoa berridatzi dugu eta finantziario bide berriak bilatu beharrean gaude.

Era berean, gazte politika eta eragileen erreferentzi, hausnarketa, etengabeko prestakuntza, informazio, sorkuntza eta berrikuntza gunea izateko bidean jarraitu behar du. Gainera, sortu den gazteria politikan parte hartzen duten eragile desberdinen sarea indartzen jarraituko dugu, garatzen diren politiken etengabeko hobekuntza ahalbidetuz.

Gasteizko Foroan gazteria gaiaren inguruan gazteria arloan dihardugun eragileen arteko hausnarketarako eta analisirako beharraz jabetuta, Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik espazio honen dinamizazio lana burutzen jarraituko du.

3.4 EAEko HERRIETAKO UDALAK

Udal desberdinek dituzten, gazte teknikari, hezitzaile zein zinegotziekin egin ditugun bileren helburua bakoitzak bestearen berri izan eta sareak indartzea izan da.

Horrela, udal bakoitzak dituen baliabide pertsonal zein fisikoak identifikatzeaz gain bakoitzaren lanketa zertan oinarritzen den jakiten saiatzen gara. Horrez gain, EGKren lan ildoak nondik doazen esplikatze ere erabiltzen da abagune hori. Finean, elkarren arteko harremanak indartu eta udal teknikarientzako EGK beste erreferente bat gehiago bilakatu nahi izaten dugu bilera hauen bidez. Aipatzekoa da, udal teknikarien aldetik jaso izan dugun lanerako prestutasun eta harrera positiboak.



Lurraldeko Administrazio desberdinekin lortutako harreman maila eta elkarlanerako guneak mantentzea izango da datorren urterako erronka.

Horrela, udal teknikariez harremana mantentzea eta 2009an lorturiko konfidantzei eustea ezinbestekotzat jotzen dugu datorren urtean. Landu diren harremanak mantendu eta landugabekoak lantzen saitzea da gure erronka. Denok nahi ditugu gazteria politika landu eta egoki batzuk eta denok tira behar dugu soka beretik. Bizi gudun errealitatea ezagutzeko ezinbestekoa da udal teknikari hauek harreman zuzena izatea bai guk beraiena zein beraiek gukanakoa. Zentzu horretan, esanguratsua deritzot telefonoz deitu eta beste aldean dagoenari aurpegia jartzea, informazioa eskatzean bakoitzak linearen beste aldean nor dagoen jakitea, horrela indartuko baidugu sarea eta gazteria alorrean egiten diren saiakerak hobetu.

GIPUZKOAKO BULEGO TEKNIKOAK

Lan esparru bera dugula jakinda, Gipuzkoako Bulego Teknikoarekin harremanak izaten ditugu norberaren proiektuen berri jakin eta hauen inguruko hausnarketa bateratuak egiteko. Gainera, "EAEko Gazteria Baliabideen Mapa" proiektuari begira oso egokia da beraiek eman diezaguketen informazioa, gipuzkoako udal asko eta askorekin baitituzte kolaborazio hitzarmenak sinatuta.

Guztira pasadan kurtsoan hiru bilera burutu genituen. Aurretik esan bezala, hauek elkarri norberaren lan dinamiken berri emateko aukera eman dute. Horrekin batera hainbat kezken eta hausnarketen inguruan sakontzeko abagune izaten dira.

Udalerrien dinamika konpartitzeko, gazteen eta gazte eragileen egitasmoen jarraipena emateko, partaidetza ereduen gainean sakontzeko, esperientzia berriak ezagutzeko, azken batean esparruaren ezagutza hobea eta sakonagoa izateko aukera eman digu espazio horrek.

Bulego Teknikoaz ditugun zuzeneko harreman hauek bi eragileoi laguntzen digute. Informazio trukaketa horrek, askotan lanak arintzen dizkigute, udalen errealitateari hurbilketa sakonago bat egiten lagundu.

Horregatik, interesgarria dela deritzogu lan esparru honen mantenuaz jarraitzea, beraiek baidira Gipuzkoako Udalerrietako gazteria politikak homogenizatu eta kriterio bateratua sortu eta indartu nahi dutenak.

- EAEko Udalak
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Gipuzkoako Bulego Teknikoa
- Arabako Gazteria Foru Erakundea
- Urtean burututako bilerak.⁴³
- Parte hartutako esparru/jarduera ezberdinetan.⁴
- Sortutako esparru berriak.¹



- Herrietako administrazio berriein izandako kontaktuak.25

3.5. GAZTERIA POLITIKEN EAE-KO MAPA



2008 urtean hasitako gazteria politiken hobekuntzari begirako erreminta informatikoaren sorkuntzan, lurralde bakoitzean gazterian lan egiten den markoa eta errealitatea ezagutu eta ulertzea beharrezkoa zela ikusi genuen.

- Alde batetik, instituzioek zuzentzen dituzten giza eta material baliabide eta programak jasotzeko.
- Bestetik, gazteria esparruan diharduten elkarten, taldeen, plataformen zein ekimenen berri jasotzeko.

Lan hori egiteko udal mailako gazteria teknikari, hezitzaile zein zinegotziekin harremanetan jarri gara. Lurraldeetan urte honetan zehar ondorengo udalerriein izan dugu harremana (ikusi III. Eranskina):

Norberak lan egiten duen esparrutik abiatuta, dugun ezagutza konpartituz, Eusko Autonomia Erkidegoko gazteria baliabideen mapa erreala eta erabilkorra jaso ahal izan dugu. Horrek etorkizunera begira, gazteriaren alorrean lanean dihardugun agente desberdinak zertan eta nola lanean gabiltzan ikusteko erreminta bat sortu eta erabiltzeko aukera emango dizkigu, erabilgarria izan nahi duen sare bat indartuz. Horrela, egun sistema informatiko modernoek eskaintzen dizkiguten baliabideak aprobetxatuz, agente desberdinen artean harremanak eta lan bateratuak sustatzeko tresna izan nahi du.

Modu horretan, udal desberdinen baliabideak jasotzeaz haratago euskarri informatiko bat diseinatu behar izan dugu, gure ustez funtzionamendu dinamiko eta egoki bat izan dezan jaso beharreko baliabideak bateratuz. Horretarako, egun web 2.0ak eskaintzen dituen baliabide desberdinen inguruan irakurri eta hausnartu dugu, euskal gazteriaren alorrean lan egiten duten eragileentzako ahalik eta euskarri informatiko egokiena martxan jarri asmoz.

Honetarako, enpresa eta elkarte (* RECICLANET ELKARTEA , FAMILIA, BEREIN eta GRUPO CSA) batzuekin harremanetan jarri ginen eta euskarria egiteko aurrekontua eskatu genien. Gure aldetik, euskarriak behar zituen ezaugarriak azaldu genizkien eta haiek euren proposamenak luzatu zizkiguten. Azkenean, Gipuzkoako enpresa batekin egitea erabaki genuen, aurrekontu merkeena eta kalitate hobereneko aurrekontua eskaintzen zigutelako.



Hortik aurrera, martxan jarri ziren euskarriaren eraketan. Azken hilabeteetan euskarriaren moldaketa prozesuarekin ibili gara. Hasiera batean, lurraldeko koordinatzaileak eta EGKren presidentea ibili gara prozesu honetan. Behin euskarri erdi-eginda egonda, testeatzaileen taldera zabaltu genuen konfidantzazko pertsonengana: lantalde teknikoa osatzen duten beste teknikariei, EGK elkartekide batzuei eta EGKtik gertu dabiltzan pertsona batzuei euskarria erabili zezaten eta hobekuntzarako proposamenak egin ziezazkiguten.

Oraingoan, prozesuaren azkeneko atalean gaude. 2010 urterako, behin-betiko bertsioa izango dugu eta jadanik publiko egingo dugu.

Euskarria eginda egon arren, MAPAk suposatzen duen ideia mantendu beharra daukagu. Horretarako, bixitak egiten jarraituko dugu, euskarria gizarteratzen eta gazte eragileengana helarazten. Euskarria dinamizatzea ere dagokigu eta horretarako, beste eragileekin etengabeko harremana sustatu behar dugu. Batez ere, EGKren barruan dauden elkarteekin.

Euskarriak daukan potentzialtasun osoa guztion artean ateratzen badugu, benetazko Gazteria Politiken garapen bidean jarriko gara.

- EAEko gazteria errealitatearen markoa definitu.
 - Instituzioek bermatzen dituzten giza eta material baliabide eta programak jaso.
 - Gazteria esparruan diharduten elkarteekin, plataformen nahiz ekimenen berri jaso.
 - Jasotako informazioa sistematizatu
 - Euskarri informatikoan bilakatu.
- Sistemizatzekeo tresna sortu
- Udaletako errealitateari hurbilketa
- EGKko elkarteekin koordinazioa.
- Beste eragileekin koordinazioa.
- Aldundiekin koordinazioa.
- Informazioa ordenatu.
- Tresna informatiko egokia diseinatu eta sortu.

Hartzaileak:

1. EGK
 2. EGKrekin elkarlanean diharduten beste elkarteak.
 3. EAEko Administrazioetako gazteria sailak.
 4. EAEko gazte eragileak orohar.
- Egindako bisitak. 25
 - Ezagututako eragile berriak. ZENBATZEKO



- Tresna sortu den ala ez. BAI
- Informazioaren bilketa egokia izan da ala ez. BAI
- Beste eragileekin edukitako koordinazio esparruak. 25
- Sortutako lankidetza.



4. JUSTIZIA ETA BERDINTASUNERAKO BALDINTZAK

4.1 KULTURARTEKOTASUNA

Lehenik eta behin kontuan hartu behar da, lan eremu honetan 2009ko Ekainaren 1a arte, teknikaririk ez dela egon. Beraz, 2009ko plangintza, batik bat, Ekainaren 1etik aurrera burutu da.

Marko ideologikoa: diskurtsoa argitu, hausnarketa piztu eta elkarte sarea ezagutu

2007ko Batzarrean onartutako Kulturartekotasun Dekalogoak oinarri harturik eta 2008ko lanketa kontuan harturik, marko teorikoan sakondu da. Marko teorikoan sakontzea berebizikoa baitzen, alor hau nahiko berria eta zehaztu gabea baita. Gainera, edozein ekintza burutu aurretik garrantzitsua da elkarte sarea ezagutzeaz gain oinarri teorikoak ondo finkaturik izatea.

Marko teorikoan sakontzeko, ikuspegi holistikoa bultzatzeko, irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Politikoa: herritartasunaren aitortza (subjektu politiko gisa), eskubide eta betebeharrak oroz (enplegua, etxebizitza, hezkuntza, mugikortasun askea eta generoa).
- Soziala: jendarteko kide izatea alor guztietan, parte hartzea eta ikustarazpena oinarritzat hartuz.
- Kulturala: kultura ikuspegi zabala batetik, euskal kultura eta aniztasun kulturalaren arteko oreka bilduz.
- Bizikidetzak: Jendarteko komunitateen arteko bizikidetzan sakonduz.

Marko teorikoa egituratzeko ikuspegi akademikoa eta profesionala, aniztasuna lantzen duten eragileena eta etorkinen elkartearen ahotsa kontuan hartu dira. Honela egindako lanketa bi eremutan banatu da, elkarriketak burutuz eta dokumentuak aztertuz:

Adituak:

- Ikuspegi erakundeko Xabier Aierdiri elkarriketa eta hiru dokumentuen lanketa.
- Aztiker jendarte ikerketak enpresako Susana Martinez kudeatzaileari elkarriketa eta hiru dokumentuen lanketa.
- Mondragon Unibertsitateko Amelia Barquin irakasleari elkarriketa eta bost dokumentuen lanketa.
- Euskal Herriko Unibertsitateko komunikazio arloko Josu Amezaga irakasleari elkarriketa eta hiru dokumentuen lanketa.
- Euskal Herriko Unibertsitateko Pedro Albite irakaslearekin bi elkarriketa eta bi dokumentuen lanketa.
- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Mario Zapatarri elkarriketa eta hiru dokumentuen lanketa.



Adituei eginiko elkarrizketa saioekin (guztira sei aditu) eta beraiek proposaturik dokumentuen lanketa hauekin (guztira hemeretzi), maila akademiko batean adituek alor honen inguruko ezagutza sakona helarazi digute. Bestetik, gure eremuak dakartzan berezitasunen (euskararen egoera) kudeaketarako proposamenak bildu ditugu.

Aniztasuna lantzen duten eragileena eta etorkinen elkarteak:

- Kale Dor kayiko (EGKko kide) erakundearekin harreman estua izan da, Ijitoen Kultura eta Historia Jendarteratzeko Proiektuari esker (ikus proiektua)
- Urtxintxa Eskola (EGKko kide); aisialdian kultura aniztasuna nola lantzen duten ezagutu da eta alor honekiko beraien ikuspegia argitu da.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua, erakundearen egitekoak Ijito elkartearen ezagutza bildu da.
- Kolore Guztiak Kulturarteko Elkartea, erakundea ezagutu eta lankidetzarako ateak ireki dira.
- Anitzak Ekimena; etorkinek subjektu politiko izateko beharraz hausnartu da.
- SOS Arrazakeria, arrazakeriak gurean jarraitzen duela eta krisi egoera emendatzen dela aztertu da. Bestetik, Gipuzkoan adin txikiko atzeritarren problematika aztertu da. Prentsaren eguneroko jarraipena egin da, Mugak-ek eskaintzen dituen bitartekoen bidez.
- Harresiak Apurtuz; koordinadoraren egitekoak, elkarte sarea eta lankidetzara sustatu dira (ikus kulturartekotasuna eta elkartegintza proiektua)
- Malen Etxea; emakume etorkinen errealitatea aztertu da, batez ere etxeko lanak egiten dituztenen egoera tamalgarria (dokumentu baten lanketa). Gerora, lankidetzara sortu da emakume gazteei buruzko Ahotik At aldizkarian parte hartu behar baitute.

Elkarte ezberdinei eginiko elkarrizketetan (guztira zortzi elkarte), ikuspegi ezberdinak jorratzen dituzten elkarteak hartu dira kontuan, errealitatea ahalik eta aniztasun handienarekin aztertzeke. Honela, maila akademikoa eta profesionalean landutako dokumentuak praktikan elkarteek zein ikuspegi duten zuzenean aztertu da.

Prozesu honi jarraipena eta ebaluaketa burutzeko EGKko Batzorde Iraunkorreko kideekin hilero (guztira sei) jarraipen bilerak egin dira. Honela, jasotako ekarpenekin aurrera begirako zutabe teorikoak jartzea lortu da.

Helburuen lorpena:

- Gazteengan kulturartekotasunaren eta aniztasunaren inguruko hausnarketa bultzatzea eta elkarte sarea ezagutzea.
 - EGKk barne mailan alor honen inguruko ahots propioa izatea.
 - EGKko elkarteek hausnarketa eta eztabaida zabaltzea.
 - EGKren ahotsa jendarteratzeko zutabeak jartzea.
 - Elkarte, erakunde eta EGKren arteko harremana eta lankidetzara sustatzea.



Esan liteke, helburu orokorra bete dela, izan ere *gazteengan kulturartekotasunaren eta aniztasunaren inguruko hausnarketa bultzatzea eta elkarte sarea ezagutzea* lortu da. Denbora falta zela eta EGKk barne hartzen dituen elkarte gehiagoren iritzia kontuan hartu beharko litzateke, sindikatuen ahotsa esaterako. Baina bestalde ikuspegi aniztasuna zaintzeaz gain eta marko teorikoan sakondu da. Helburu zehatzei dagokienez, zutabeak ipini dira nahiz eta oraindik bidea falta den egiteko.

EGKren zeharlerroko helburuei dagokionez, aipatu, generoa, euskara eta aniztasuna kontuan hartu direla proiektu hau lantzerakoan, besteak beste, emakume etorkinen errealitatea ezagutuz, euskara eta inmigrazioa eskolan aztertuz edota inmigrazioaren aniztasunari erreparatuz.

Proiektu honekin bestelako helburuak ere bete dira. Honela, inmigrazio eta kulturartekotasun arloan jarduten duten, elkarte, eragile eta adituekin harremana sortu da. EGKren lana eta egitura orohar, zabaltzeaz gain, beste eragileak ere gertutik ezagutu dira. Etorkizunean sortu daitezkeen lankidetzak eta elkarlanerako hurbilpen gisa ere ulertu behar da marko teorikoan sakontzeko proiektu hau.

Ebaluaketa jarraitua egin da, irizpide ezberdinak kontuan hartuz, hileroko Batzorde Iraunkorreko Kulturartekotasun arduradunekin egin diren jarraipen bileren bitartez.

Datorren urtean, 2009.an egindako lanari segida emateko asmoz, EGKren baitan eta kanpora begira eztabaida eta hausnarketa bultzatzeko, lan talde bat sortzeko asmoa dago. Honela, hausnarketa EGKko taldeetan zabaltzeaz gain, kanpora begirako ekimenak burutuko dira egindako lana jendarteratzeko.

EAEko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozilerako foroan partaidetza

EGKk foroan partaidetza aktiboa izan du azken urteetan, garrantzitsua delako erakunde publikoek eskaintzen dituzten bitartekoetan parte hartzea. Honela, EGKren egitekoa den erakunde publikoekiko lankidetzak sustatzen baita. 2009.ko lehen sei hilabeteetan hutsunea egon da (alor honetako teknikaririk ez zegoelako). Beraz, Ekainetik Abendura bitarteko partaidetza izan da.

E.A.E.ko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroan parte hartu da herritar parte hartzea, kultura eta sentsibilizazio komisioan. Honela, Bigarren Euskal Inmigrazio planari jarraipena egiteaz gain, beste erakundeekin lankidetzan, proposamenak eta iradokizunak burutu dira.

Aurten, herri mailako herritar etorkinen partaidetzarako praktika onen adibideak aztertzeaz gain, inmigrazioarekin trataerari buruzko hizkuntza egokitasuna landu da. Sentsibilizazio eta informazio kanpainak ere aztertu dira eta kulturartekotasuna bultzatzeko estrategietan sakondu. Azkenik, lan eremuako eskubide urraketen gaia aztertzeaz gain orohar etorkinen partaidetza



sustatzeko mekanismoak aztertu eta proposamenak burutu dira. Proiektu honekin, EGKren zutabeetako bat den erakunde publikoekiko lankidetzaz bultzatu da.

Jarraipen bilerak bi hiletik behin izan dira gutxi gora behera. Egunerokotasuneko jarraipena egiteko berriz, Foroak eskaintzen dituen baliabide informatikoak erabili dira.

- Bigarren Euskal Inmigrazio Planari jarraipena eta proposamenak bultzatzea, herritar parte hartzea, kultura eta sentsibilizazio komisioan.
 - Erakunde publikoekin (Eusko Jaurlaritza) lankidetzaz bultzatzea
 - Bestelak erakundeekin harremana eta elkarlana sustatzea
 - Gazteen ikuspegia txertatzea

Helburu orokorrak eta zehatzak guztiz bete dira. Hasera batean egitura eta funtzionamendua ulertzeko zailtasunak egon badira ere, azken bileretarako partaidetza aktiboagoa egon da eta gazteen ikuspegia presentegoa egon da.

Foroan izandako partaidetza positiboki baloratu denez 2010.an bertan jarraitzeko asmoa dago. EGKren ahotsa zabaltzeko bitartekoa egokia da eta hausnarketa eta beste errealitateen ezagutza bultzatzeko modu zuzena.

Ijitoen historia eta kultura jendarteratzea

2009ko Asanblada Orokorrean Kale Dor Kayiko elkartearen proposamenez, Ijitoen Historia eta Kultura Jendarteratzeko proiektua onartu zen. Aurretik, *Euskal* Autonomia Erkidegoko *Ijito* Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako *Kontseiluarekin lankidetzan topaketa batzuk burutu baziren ere, aurten Kale Dor Kayiko (EGKren barnean) eta EGKren artean proiektua egitea erabaki zen.*

Kale dor Kayiko, Ijito Kultur Elkarteak eta EGKak hitzaldi sail bat antolatu dugu euskal jendarteak kultur aniztasunean kontzientzia hartu dezan. Hitzaldi saila, Azaroaren 25an eta Abenduaren 2an eta 9an burutu dira Donostiako E.H.U.ko FIHEZI fakultatean.

Hitzaldiak hiru saiotan banatu dira; lehenengoan, ijitoen historiari eta kulturari hurbilketa egin da, nondik datozen, noiztik dauden gurean, historikoki nolako errepresioa pairatu duten, beren kulturaren ezaugarriak eta abar ezagutaraziz.

Bigarren saioan, ijito herria gaur egun zertan den galderari erantzun zaio, horretarako, beren errealitatea ezagutzeko bideo bat ikusteaz gain, beren bizipenak gertutik ezagutu dira. Saio honetan jendartearen oso zabaldurik dauden estereotipoak buelta ematea lortu da. Hirugarren saioan berriz, kulturarteko elkarrizketa landu da orohar, praktikan ijito herria eta bestelako kulturetako kideen egoera espezifikoak aztertu eta irtenbide praktikoa proposatu dira.



- Euskal jendarteak kultur aniztasunean kontzientzia hartzea
 - Ijito Herriaren Historia eta Kultura jendarteratzea
 - Gazteengan estereotipo ezkorrak ezabatzea
 - Hezkuntza formalean eta ez formalean, kulturarteko pare hartze ikuspegia txertatzea.

Helburu orokorrak eta zehatzak guztiz bete dira. Hasera batean egitura eta funtzionamendua ulertzeko zailtasunak egon badira ere, azken bileretarako partaidetza aktiboagoa egon da eta gazteen ikuspegia presenteago egon da.

Orohar balorazio positiboa egiten da, batik bat hain alor espezifikoak izanik hiru saioetan 43 partaide izan direla eta. bait dira. Partaideak batik bat, emakumezkoak izan dira eta profilari dagokionez, unibertsitateko ikasleak, kale hezitzaileak eta herritarrek izan dira. Saioak teoriko-praktikoak izan direnez, parte hartzaileak oso ondo baloratu dituzte eta ijito herriaren errealitatea jendarteratzea lortu da gazte ikuspegi batetik.

Hitzaldiak gazteleraz izan badira ere, euskeraren presentzia bultzatu da bestelako bitartekoez (power pointa) baliatuz. Genero ikuspegia ere kontuan hartu da, emakume ijitoen errealitatea modu berezitan aztertu bait da.

Etorkizunari begira jendarteratzeko ekimenekin jarraitzea aurreikusten da nahiz eta gaiak orokorrak izan beharko lukeen partaidetza handiagoa lortze aldera.

Kulturartekotasuna eta elkartegintza

Harresiak Apurtuz koordinakundearekin aurretik EGKk lan amankomuna egin du komunikazio sailaren bitartez. Lankidetza horrek fruituak eman ditu, komunikabideentzako gida lekuko. Aurten berriz, koordinakundetik antolaturik “Mundu bereko auzokideak” ekimenean parte hartzeko eskaintza jaso eta bertan parte hartzea erabaki zen.

Elkartegintzari dagokionez, Harresiak Apurtuz etorkinen koordinadorearekin lankidetza bultzatu da “Mundu bereko auzokideak” kulturartekotasun egunaren antolakuntzan. Horretarako, Ekainetik hasi eta Abendurarte, eguna prestatzeko eta ebaluaketa burutzeko sei koordinazio bileretan parte hartu da, gazte ikuspegia bultzatuz. Eguna prestatzeko lan ekimen honetan, koordinadorak barne hartzen dituen etorkin eta etorkinen aldeko elkarteekin harremana sortu eta finkatu da, EGKren presentzia bermatzeaz gain.

Azaroak 15an buruturiko “Mundu bereko auzokideak” eguneko prestaketei begira, EGKk euskarazko hedabideenganako komunikazio ardura bera gain hartu du. Honela, hiru irrati eta bi telebistei katei elkarrizketak eskaini zaizkielarik.

- EGKk elkartegintza sustatzea modu aktibo batean
 - Elkarte ezberdinak ezagutzea eta lankidetza bultzatzea
 - EGK erakunde moduan jendarteratzea
 - Gazte ikuspegia elkartegintzan txertatzea



Helburu orokor eta zehatzak bete dira. *EGKk elkartegintza sustatzea modu aktibo batean* helburua lortu da, ardurak bere gain hartu dituelako. Helburu zehatzei dagokionez, *elkarte ezberdinak ezagutu eta lankidetza bultzatu* da, *EGK erakunde moduan jendarteratzea* lortu da eta *gazte ikuspegia elkartegintzan txertatu* da.

Bestetik aipatu, “Mundu bereko auzokideak” ekimena primeran atera zela, Durango herria aniztasunaren topagune bilakatuz. EGKtik honelako egunaren prestaketan parte hartzea oso positiboki baloratzen da eta azkeneko ebaluaketa bileran ere orohar eguna positiboki baloratu da.

Aurrera begira, Harresiak Apurtuz Koordinadorearekin nahiz bestelako eragileekin lankidetza indartzea espero dugu, sortu litezkeen ekimenetan parte hartzeko bideak zabalik utziz.

4.2 HERRI ABERASTUAK HERRI TXIROTUAK

SAHARA

1. Topaketa.

- Partaideak: 67 euskal gazte eta 60 gazte saharar.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik 4 pertsonak bidaitu zuten kanpamenduetara, horien artean erakundearen presidentea Igor Mera.
- Nuyum Elkartetik 4 kidek bidaitu zuten horien artean elkarteko idazkaria Eneko Calle.
- Gainontzeko partaideak Sahararen Lan Taldeko gazte elkartuak eta ez elkartuak dira, gehienak EGK-ko kide diren hainbat taldetan sartuta daudenak.
- Saiatu gara lehenengo topaketa hau babestu duten finantzizaileetarikoz batzuk bidaia honetan parte har zezaten baina ezinezkoa izan zaie eta azkenean bidaian ez da Euskal Fondoko, Euskalteleko ezta Bilbo, Donostia zein Gasteizko udaletxetako ordezkariarik egon.
- Gazte sahararren partaidetzari dagokionez:
 - Wulaya ezberdinetako gazteek hartu zuten parte.
 - Adin desberdinetakoak.
 - Neskak zein mutilak.
- Gure kontrapartearen, UJSARIOren, antolakuntzari erreparatuz, 15 saharar arduradun izan ziren jardunaldi osoa modu egokian atera zedin arduratu zirenak. Proiektuak aurreikusten zuen programa garatzearen helburua bete zuten. Programan aurrerago zehaztuko dizkizuegun aldaketa batzuk egon ziren. Lan talde hori koordinatzeaz arduratu de UJSARIOko agintaria Chej Chada izan da, 2009ko otsailean proiektu osoa prestatzeko berarekin Aaiunen bildu eta gero ekimena lotuta geratu zelarik.



- Topaketa honetan parte hartu zuten agintari ezagun batzuk aipatuko dizkizuet:
 - Musa Selma: UJSARIOko idazkari nagusia.
 - Fatma Mehdi: Saharar Emakumeen Batasuneko Nazio Idazkaria.
 - Mohamed: “Media Luna Roja Saharaui”-ko arduraduna.
 - Mahfud Ali Beiba: Saharar Parlamentuko Presidentea.
 - Ausserdeko Wilayako gobernatzailea.
 - Fatma Brahim: Euskadin Frente Polisarioak daukan ordezkaria.

2. Helburuen LORPENA eta hauen emaitza.

Okupazioaren menpe eta atzerrian dagoen saharar gazteriari begirako konpromezua lortzeko lankidetzan, salaketan eta komunikazioan oinarritutako bide berria sortu.

- Euskal gazteak trebatu Euskal Herrian sahararren auziaren enbaxadore izan daitezen.

LORTUTA

- **UJSARIO** erakunde bezala ezagutu. **LORTUTA**
- Okupazioaren menpe eta atzerrian dagoen saharar herriaren gaineko errealitate soziala, kulturala eta politikoa ezagutu. **LORTUTA**
- Ondoko gaiei sahararrek dituztenen bizipenen berri jaso kanpamenduetan eginiko tailerren bidez: osasuna, hezkuntza, ingurumena, komunikazioa, genero ikuspegia... **LORTUTA**
- Saharar erresistentziaren sekretua arakatu. **LORTUTA**

3.- Itxarotako emaitzak.

Saharar herriarentzat eta beronen alde proiektu eta konpromiso politikoa bermatu. **LORTUTA**

Gazteek osaturiko euskal plataforma moduan RASDa saharar herriaren zilegizko ordezkari bezala onartu. **LORTUTA**

Etorkizunera begirako elkarlanerako lan ildoak sortu. **PROZESUAN** (hau denbora behar duen prozesua da, benetan hórrela egikarrituko den ezagutzeko).

Kolektibo horien arteko komunikazio sare bat sortu eta sendotu. **LORTUTA**

Etorkizunean euskal gazteen plataformaren jarraikortasuna bermatu saharar gazteriarekin elkarlanean aritzeko ametsarekin. **BETETZEN ARI DA** (hiru lurraldeetan banatutako azpi taldeak sortu dira eta talde hauek sahararen aldeko euskal gazteen plataforma osatzen dute).



4.- Aurreiusitako ekimenen erlazioa

Ausserdeko wilayan kultureteko trukea egitea euskal zein saharar gazteen artean. **LORTUTA**

Saharar gazteriaren errealitateri buruzko tailerrak: emakume gaztea, giza eskubideak eta politika, astialdia, komunikazioa, hezkuntza-kultura, ingurumena, lankidetzeta eta osasuna. **LORTUTA**

Topaketa politikoak: Bachir Mustafa Sayed (Lehen Ministroa), Fatma Mehdi (UNMSko Idazkari Nagusia) eta Media Luna Roja Saharaui.

LORTUTA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko astialdirako elkarteek sorturiko ekimenak (UJSARIOko eskaut taldearen laguntzarekin) Ausserdeko eskoletan egin izana **LORTUTA**



5. HEZKUNTZA

5.1. HEZKUNTZA EZ FORMALA

ASTIALDI FOROEN KOORDINAZIOA



Astialdi Foroa Euskadiko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio – bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sentibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Astialdiari lotutako elkartegintza indartu nahi da, baita balioetan heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki sustatu ere.

Gaur egun 11 astialdi taldeen federazio eta koordinakunde eta 14 astialdi eskola **(Ikusi IV. eranskina)**. Guztira 13.000 gazte daude erakunde guzti hauen atzean.

2009an Astialdi Foroaren funtzionamenduan bi gauza daude koordinazio lana asko baldintzatu dutenak: TIPI TOPA Biltzarra eta Astialdi Foroko koordinatzailearen aldaketa (EGKko Hezkuntza Teknikari berria izan dena).

Hiru Astialdi Foroen koordinazioa lehenengo sei hilabeteetan TIPI TOPA Biltzarraren inguruan izan da. Martxora arte koordinazioa Biltzarraren prestakuntzaren behar teknikoetan oinarritu da eta martxotik ekainera arte Biltzarrean aterarako ondorioak prestatzeko. Azken sei hilabeteetan banan-banan bildu gara Astialdi Foroko talde guztiekin taldeen eguneroko behar, zailtasun eta helburuak ezagutzeko eta, hortik abiatuta, koordinazioa hiru foroen erritmo eta errealitate propioetara moldatu dugu.

Aurten, aipatzekoa da nola Gipuzkoako eta Arabako Astialdi Foroa asko sendotu diren, foroen elkartearen arteko elkarlana askoz handiagoa izanez.

Gipuzkoan TIPI TOPAren prestaketak foroa gehiago batzeko balio zuen eta lurralde honetako elkarteek berriro hileroko batzeko dinamika hartu dute. Lan ildo garrantzitsuenak oraintxe bertan, besteak beste, kualifikazioak, behar bereziak, instituzioekin elkarlana eta kanpaldiak dira. Araban guztiz kontrakoa gertatu da, TIPI TOPA proiektu oso handia zen haienezako eta taldeen parte hartzea eskasa izan zen. Orduan, Biltzarraren ostean, Arabako Astialdi Foroa eta astialdi hezitzaileari lotutako elkartegintza indartu beharra ikusi genuen eta biderik onena haien egunerokotasunetatik abiatzea zen.



Horretarako, Astialdi Foroko talde guztiekin banan-banan elkartu ginen elkarte bakoitzaren egoera ebaluatzeko (helburuak, beharrak, ezinegonak eta berrikuntzak) eta Astialdi Foroko koordinatzaile berriak eta elkarteek elkar ezagutzeko. Biler horietan, Astialdi Foroaren plan estrategikoan eta elkartearen eguneroko beharretan oinarrituta abendura arte jorratu ditugun lan ildoak definitu genituen: finantziario bideak, instituzioekin elkarlana, elkartearen arteko informazio eta baliabide trukaketa, udako kanpalekuak eta gizarteratze eta komunikazio lana. Araban lortutako emaitza oso ona izan da taldea inoiz baino batuago baitago.

Bizkaian lan handia izan dugu Biltzarrarekin, lurralde honetan egin baita. Nahiz eta Biltzarraren talde motorra (memoriaren 3. ekintzan definituko da) aspektu teorikoz eta diseinu guztiaz arduratu TIPI TOPAren alde teknikoak aurrera eramateko Bizkaiko Astialdi Foroan parte hartzen duten taldeen inplikazioa ezin bestekoa izan da. Bestetik, haiekin jorratutako ildo nagusiak instituzioekin elkarlana, behar bereziak, kualifikazioak eta gizarteratze lana.

Bestetik Astialdi Foroaren koordinazioa lurraldeka egin da, nahiz eta gai zehatzetarako koordinaketa bateratua egon. Aurten TIPI TOPA eta kualifikazioak izan dira batera jorratutako gaiak.



Aipatzekoa da, ekainean hezkuntza teknikari berria aukeratzeko prozesua egin zela: curriculum-en aukeraketa, idatzizko frogak eta elkarriketak.

- Astialdi Foroko koordinatzailea berria sartu eta gero EGKko lurraldeko koordinatzaileak eta Batzorde Iraunkorreko arduradunarekin bilerak egin ziren koordinazioaren ebaluazioa egiteko. Behin eginda taldeen beharretara moldatu genuen koordinaketa garatu zen. Emaitza positiboa eta eraginkorra izan da. Koordinaketa bai telefonoz, emailaz eta bileren bidez garatu dugu.

Nabarmentzekoa da irailetik abendura arte batzuetan eskolen eta federazioen banaketa egin dugula bakoitzaren beharrei zuzenago aurre egiteko. Eskolen kasuan indarrean jarri nahi dituzten astialdiko kualifikazio berriak jorratu ditugu (**ikusi V. eranskina**).

- Elkartearen erakundearen behar amankomunetatik abiatuta lan taldea sendotzea lortu dugu haien arteko harremana indartuz, bai informazioa trukatzeko, bai baliabideak trukatzeko.
- Astialdi Foroari dagozkion kudeaketa-zereginak oinarrian egon dira bestelako lanak garatzeko orduan.



Foroaren lana ebaluatzeko honako irizpideak kontutan hartuko ditugu:

- Egin diren bilera kopurua: 77
- Taldeen parte hartzea: Ona
- Beste eragileekin izan diren bilerak: 38
- Programazioaren garapena: BAI
- Hobekuntzak eta proposamenak jaso: BAI

Astialdi Froaren koordinazioa da hezkuntza arloaren zeregin nagusia eta 2010ean jarraituko dugu astialdi hezitzailea sustatzen, indarrak batzen eta taldeen egiten duten gizarte lana gizarteratzen.

ASTIALDI TALDEEK ANTOLATZEN DITUZTEN UDAKO AKTIBITATEEKIN ESKUORRIA

Eskuorri honetan lurraldeko astialdiko taldeen udako kanpalekuei eta udalekuei buruzko informazioa jasotzen da. Lurraldeko koordinatzailea eta Hezkuntza arloko kontseiluko teknikaria, biak koordinaturik, kanpaleku eta udalekuen inguruko datuak jasotzen ditu eskuorriak (antolatzen duen elkartearen izena, telefono zenbakia, kanpamentu edo udalekuaren kokalekua, datak....). Uda aurretik argitaratu eta zabaltzen da.

Urtero bezala astialdiko taldeen udako kanpalekuei eta udalekuei buruzko informazioa jasotzen duten hiru lurraldeko eskuorriak egin dira eta harrera ona izan dute. Beste urteetan bezala bai Bizkaiko, bai Gipuzkoako elkarteek haien taldeen informazioa inongo arazorik gabe bidali dizkigute. Arabakoa, alderantziz, kostatu zaigu aurrera eramatea taldeen ahuleziarengatik, urteko lehenengo sei hilabeteetan taldeetako arduradunen aldaketak eta motibazio falta izan dira arrazoi nagusiak.

- Eskuorria hurrengo lekuetara zabaltu da: Gazte Informazio Bulegoetara, EGKko elkarte guztietara, Astialdi Foroko elkarte guztietara, Gurasoen elkarteetara, EISEetara eta Aldundietara.
- Aurren, hiru lurraldeko elkarteek 147 kanpaleku eta udaleku agertu dira eskuorrietan: 9 araban, 67 Bizkaian eta 71 Gipuzkoan. Elkarteek udan egiten duten lan handi hau hartuta hedabideei eta gizarteari begira diskurtso amankomun bat garatu dugu Astialdi Hezitzailearen esanahia modu bateratu eta globalean plazaratuz.





Ekainean eta uztailan eskuorriaren ebaluaketa egin zen. Orokorrean ona izan da, hala eta guztiz ere, gauza batzuk hobetzeke daude.

- Diseinuaren erakargarritasuna: BAI
- Programatutako daten egokitasuna: BAI
- Prentsaurrekoa: hedabideen erantzuna: 4
- Hedapena (bidalketak): 753
- Erantzuna: ESKASA

Eskuorria 2010ean egingo da berriro, ezinbesteko tresna da astialdiko taldeen udako aktibitateak era bateratuan plazaratzeko. Hala eta guztiz ere, eskuorriaren hedapena komunikazio kanpaina batekin indartu nahi dugu.

ASTIALDI HEZITZAILEARI BURUZKO BILTZARRA



TIPI TOPA Biltzarra 2009ko otsailaren 27an eta 28an ospatuko da Bilboko Euskalduna Jauregian. Astialdi Hezitzaileari buruzko Biltzarra gazteei, gazte eragileei, gazteria politiketan arduradunak direnei eta orokorrean, biltzar honetan interesa duenari eta bertan parte hartu nahi duen orori dago zuzendua. Biltzarra amaitu arren, TIPI TOPAren lan prozesuak aurrera egitea da helburu, Biltzarrean azaldutako ondorio eta erronka esanguratsuenak batuz, hauek landuz, zabalduz eta gizarteratuz. Honetarako, prozesuan ondorioztutako erronkak laburbiltzen dituzten material eta dokumentuak argitaratuko dira. Hala ere, sare-lan honi ibilbidea zabaltzeko, beharrezkoa da lan prozesu osoan zehar sortutako kontaktu, aukera, espazio eta sareak aprobetxatuz, hausnartutako erronken inguruan era koordinatu batean lanean aritzea. Sare-lan hau bideratzeko, atal honek, astialdi hezitzailearen inguruko agenteen arteko sare-lana bultzatzea du helburu nagusi.

TIPI TOPA Astialdi Hezitzaileari buruzko Biltzarra 9 hilabeteko proiektua izan da. Aurrera eramateko 2008an abian jarri zen lan talde “motor” bat ideiari forma emateko eta proiektuaren aspektu guztiak diseinatzeko: edukiak, hizlariak, epeak, diru sarrerak... Talde honek hartu dituen erabaki guztiak hiru Astialdi Foroetan hausnartu dira hauek hobetzeko edo deuseztatzeko. Hala eta guztiz ere, lantalde motorra TIPI TOPAren burua izan da. Hau Astialdi Foroeko elkarte batzuen arduradunek osatuta zegoen eta proiektua amaitu arte lanean egon dira. Pertsona asko pasa ziren hastapenetatik proiektua amaitu arte baina pertsona egonkorrenak eta finko egon direnak hurrengoak izan dira: Borja Ruiz (BAT Taldeak), Julian Buitron (Hezkide Eskola), Minerva Leon (EDE), Mertxe Luengo (Gaztetxoak), José Ángel Romo (EGKko teknikaria eta Astialdi Foroeko koordinatzailea) eta Ivan Barrio (TIPI TOPAren idazkari teknikoa).



Bestetik, 2008ko irailean Biltzarrerako idazkari teknikoa kontratatu zen: Ivan Barrio. Pertsona honen papera exekutiboa izan da eta lantalde motorrean hartzen ziren erabakiak aurrera eramaten zituen. Idazkari teknikoaren egiteko zehatzak:

- Astialdi Hezitzaileari buruzko Biltzarreko kudeaketa teknikoa eta koordinazioa orokorra.
- Astialdi Hezitzaileari buruzko Biltzarreko komunikazio alorra kudeatzea.
- Astialdi Hezitzaileari buruzko Biltzarrean parte hartuko duten eragileen koordinazioa eta kudeaketa.



TIPI TOPA hiru fasetan zatitu da. Lehenengo hilabeteetan, edukiak diseinatu dira eta zenbait elkarrizketa tailer egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan, eta, haietan, gazteek, gazteriaren arloko gizarte eragileek eta administrazioetako arduradunek hartu dute parte. Zenbait hedabideren bidez eman da tailer horien emaitzen berri. Ondoren, Astialdi Hezitzaileari buruzko Biltzarra egin zen, otsailaren 27an eta 28an, Bilbon, Euskalduna Jauregian. Eta, azkenik, prozesu osoan zehar parte hartu duten eragile guztien arteko lan eta komunikazio sare bat sortu, martxan

jarri eta sustatu da. Prozesu horretan zehar, hiru ardatz landu dira. Ardatz horiek Astialdi Hezitzaileari buruzko Biltzarrean landutako edukiak egituratu dituzte. Hauek dira:

- Hezkuntza ez-formala administrazioetan.
- Zeharkakotasuna astialdi hezigarrian: behar bereziak, baterako hezkuntza, euskara eta aniztasuna.
- Partaidetza aktiboa astialdi hezitzailetik.

Ahalik eta eragile gehienek parte hartzeko, eztabaida irekia sortzeko, adostasunak lortzeko, eta prozesua ebaluatzea eta hartatik ikastea ahalbidetuko zuten ondorioak lortzeko, hiru elkarrizketa tailer egin dira. Tailer horietan, gazteek, arduradun politikoek, eta hainbat udaletako eta foru aldundietako teknikariek hartu dute parte. Tailer horietan gai hauek landu dira: alde batetik, astialdi hezitzaileko taldeetako begiraleen profila eta prestakuntza beharrak, eta astialdi hezitzaileko eskolen erantzuna; eta, beste batetik, sare lana, eta elkarleen eta administrazioen arteko lankidetzak moduak, astialdi hezitzailearen arloan.


Guztira 270 pertsona parte hartu dute prozesu osoan.



- TIPI TOPAk balio handia izan du Erkidego mailako Astialdian lan egiten duten elkarte, fundazio, pertsona, talde, eskola eta federazioek elkar ezagutzeko, indarrak batzeko eta astialdi hezitzailearen esanahia modu bateratu batean plazaratzeko. Eragin handia izan du hedabideetan (21 hedabideetan agertu da eta hauetako batzuetan sarritan elkarriketak, iritzi artikulak, erreportai...) eta gizarteratze lan hori lortu da neurri handi batean.
- Asko izan dira TIPI TOPAn landu ditugun gaiak. Hiru ardatz nagusi egon dira:
 - Hezkuntza ez-formala administrazioetan.
 - Zeharkakotasuna astialdi hezigarrian: behar bereziak, baterako hezkuntza, euskara eta aniztasuna.
 - Partaidetza aktiboa astialdi hezigarritik.

Nahiz eta ardatz nagusiak hauek izan gai gehiago jorratu dira (**ikusi VI. eranskina**) Barne hausnarketarako hurrengo gaiak oso interesgarriak izan dira boluntarioen eta begiraleen perfila, zerbitzuen kudeaketa, berrikuntzak eta teknologia berriak.

- Ebaluazio orokorra: (**ikusi VII. eranskina**)



- Hedabideen erantzuna *: 21 (**ikusi VIII. eta XIX. eranskina**)
- Beste eragileak: 37

* Ezin izan dugu Interneten agertutako TIPI TOPAren inguruko berriak bildu baina asko eta asko izan dira.



TIPI TOPA proiektu puntuala izan da. Harrera oso ona izan du baina ez dago pentsatuta urtero antolatzeko, batez ere, halako proiektu bat behar duen esfortzu handiak baldintzatzen duelako urteroko plangintza eta astialdi hezitzaileko mugimenduan egin behar diren barneko hausnarketak. Hala eta guztiz ere, ez da alde batera uzten hemendik hiru urteetara TIPI TOPA 2 antolatzea.

ASTIALDI FOROKO WEBGUNEA

Astialdi foroko webgunea hamabost egunean behin eguneratzen da. Astialdiari buruzko albisteak, taldeei buruzko informazioa eta Astialdi Foroari buruzko berriak argitaratzen dira.

Aurten garrantzia handia izan du TIPI TOPA Biltzarra eta horren inguruko albiste asko plazaratu dira. Honen harira, aipatu behar dugu TIPI TOPA Biltzarrerako sortutako web berria. Bertan, TIPI TOPAren inguruko dokumentazioa eta informazio guztia eskuragarri egon da. Gaur egun, web horrek dirau eta Biltzarraren ondorioak, material grafikoa, bideoak eta dokumentazioa jaitsi daitezke: www.astialdiforooa.org/tipitopa



Webgunea Astialdi Hezitzailearen inguruko informazioa zabaltzeko erabiltzen da. Honek laguntzen du era bateratu eta globalean Astialdian lan egiten duten eragileen proiektuak eta ekintzak zabaltzeko. Webgunean finkoa den informazio teorikoa eta elkarten datuaz aparte ikastaroen, jaurdunaldien, prestakuntza saioen eta ekintzen informazioa zabaltzeko dugu Astialdi Hezitzaileari zentzu global bat emanez.

- Astialdi Foroko ebaluazioa: ONA

www.astialdiforooa.org -k irekita jarraituko du 2010ean. Ezinbesteko esparrua da astialdi hezitzailearen inguruko dokumentuak eta berriak plazaratzeko.



INSTITUZIOEKIN ELKARLANA

Astialdi hezitzaileak gaur egun betetzen duen gizarte-funtzioa dela-eta zaintzeko dagoen interesarengatik eta gizarteak espazio ez formalean hezkuntza-lanak egiten jarraitzeko daukan beharrarengatik, derrigorrezkoa da gizarte eragileen eta instituzio publikoen arteko lankidetzan aritzea, bai politikoeekin, bai teknikariekin.

2009an instituzioekin izan dugun harremana oso handia izan da, batez ere, TIPI TOPA dinamika propioagatik, honek eskatu baitu administrazioekin harremanetan egotea bai proiektuaren hiru ardatzetako bat izan delako, bai aurrera eramateko behar izan diren diru iturriengatik. Bestetik, TIPI TOPAren ondorio nagusietako bat administrazioekin elkarlana ezin bestekoa dela eta sendotu eta normalizatu behar ditugula izan da.

Ebaluazioa bilera kopuruaren arabera egingo dugu, baina ez dugu ahaztu behar telefonoz eta posta elektronikoz askoz harreman gehiago izan dugula.

Astialdi hezitzailea indartu eta sustatzeaz arduratzen diren erakunde publikoekin harremanak sendotu ditugu. Guztira 33 bilera izan ditugu. Topaketa hauetan lortu dugu harremanak normalizatzea eta askoz ere naturalagoak izatea lortu dugu.

- Egindako bilera kopurua: 33
- Ze erakundeekin bildu garen: 16 (**ikusi X.. eranskina**)
- Buruturiko eta jorratutako amankomunezko ekintzak eta gaiak: 6

Instituzioekin elkarlana astialdi foroko eragileetatik EGKri gehien eskatzen den lana da. Beharrezko da administrazioarekin eta instituzioetako gazteria politikak garatzen dituzten arduradunekin harremanetan egotea amankomunezko lan ildoak garatzeko eta informazioa elkar trukatzeko.





HERRIETAKO ASTIALDI LAN SAREAK JASO ETA HEDATZEA

Tokian tokiko esparruan (auzo, herri edo eskualdeetan) esku-hartzen duten toki-sareak sortu eta horiei laguntzea da, zalantzarik gabe, Bizkaiko Astialdi Foroaren erronka nagusietako bat. Zentzu horretan, Astialdi Foroak bere burua eskaini nahi du horrelako sareak sortze aldera. Beste esperientzietako informazioa, tokian tokiko hausnarketa egiteko espazioak (sareko lanaren ingurukoak...), eta esperientzientzako oinarritzko laguntza (sarea sortzen joateko jarraitu beharreko prozesuaren inguruko orientazioa, hausnarketarako tresnak, plangintzarako laguntza...) eskainiko lituzke Astialdi Foroak. Edonola ere, asmoa ez da sareak sortu eta horiei laguntzera mugatzen, sareen arteko harremanak ere sortzea baita helburua.

Proiektu hau aurrera eramateko EGKko lurraldeko koordinatzaileen elkarlanean aritu gara eta 2009an lan sareak jasotzeko fitxa bat sortu dugu Euskadiko Lurraldeko Koordinatzailea eta Hezkuntza teknikariak. Fitxa hau balio zaigu edozein arlotako lan sareen informazioa jasotzeko. Honetan, datuak jasotzeko galderaz aparte lan sarearen definizioa garatu genuen eremua mugatzeko: *Denboran zehar mantendutako jarduera bat antolatzeke eta garatzeko, beste eragile batekin sortzen duzun lankidetzaren eremua*. Momentuz, Astialdi Foroko taldeei bidali zaie eta oraindik informazio asko ailegatzeke dago. Bestetik, tokian tokiko informazioa jaso dugu elkarteetan batzar nagusietan.

Lan handia da eskuartean daukaguna, ordu asko eskatzen duen elkarteetan zuzeneko harremana egin beharko litzateke. Gaur, Hezkuntza arloak daukan lan samarekin erritmo motelean egin beharreko lana.

- Oraindik informazioa jasotzen ari gara. Behin informazioa edukita harremanak sendotzen hasiko gara.
- Oraindik informazioa jasotzen ari gara. Behin informazioa edukita lan sareak indartzen eta mesede egiten hasiko gara.

Irailetik aurrera egingo da eta hau da ebaluatuko dena:

- Identifikatutako sare kopurua: 5 (**Ikusi XI. eranskina**)
- Sareekin eratutako harreman mota: Orain arte ez dugu lan sare hauekin harreman esturik egin, oraindik gaude sareak jasotzen.

Oso zaila suertatzen zaigu proiektu hau aurrera eramatea. Elkarrekin zuzeneko harremana edukitzeko eta tokian tokiko informazioa jasotzeko denbora asko beharko genuke eta hezkuntza arloaren beste ildoak jo nahi baditugu ezin dugu lan hau urte batean edo bitan aurrera eramatea. 2010ean jarraituko dugu hauek jasotzen baina ez da izango lan ildo bat, baizik eta “beste eragileekin harremana” proiektuan sartuko dugu.

**GIZARTE ERAGILEEKIN ELKARLANA: EUSKARA SUSTATZEN DUTEN SAREAK**

Astialdi Foroak astialdi hezitzaileko elkarteen artean euskararen erabilera sustatu nahi du, eskuetan dituen tresna hauen bidez, horretarako, euskararen sustapenaren alde lan egiten duten elkarte eta sareekin harremanak izango ditugu (Topagunearekin, toki-sareekin...).

Astialdi Foroen errealitate linguistikoak oso ezberdinak dira: Gipuzkoako foroaren errealitatea zeharo euskalduna da; Bizkaian, errealitate elebiduna da eta; Araban erdalduna, elkarteen arduradunak ez dakite euskaraz.

Euskara sustatzen duten elkarteekin harremana irailean abiatu dugu. Jarraipen bilera egin genuen Topaguneko Sonia Perezekin, gazteria arloko arduradunarekin. Bilera honetan, Astialdi Foroako taldeen diagnostiko bat egiteko beharra dagoela edozein ekintza aurrera eraman baino lehen. Diagnostikoak hizkuntzazko gaitasuna aztertuko luke eta euskara erabiltzeko inizatiba hezitzaileek ala haur edo gazteek duten jakiteko balioko zaigu. Hau aurrera eramango genuke 2009 – 2010eko ikasturtean zehar. Oso argi izan behar dira abiapuntua eta helmuga eta oso ondo aztertu behar dira, hala bidea egiteko eskura izango diren baliabideak, nola bidea egiten lagun dezaketen edo oztopa dezaketen faktoreak.

Bilera hori izan eta denbora gutxira irailean abiatutako lana bertan behera utzi behar izan dugu Topaguneko Gazteria sailaren arduraduna bajan egon delako eta erreleborik egon ez delako.

- Astialdi Foroetan euskararen sustatzen saiatu gara, nahiz eta askotan zaila izatea lantalde batean pertsona bat hizkuntza ez dakienean zein da jokatzeko bidezko modua. Egoera horietan, gehienetan, euskararen kalterako jokatzeko erdaraz erabiliz. Hori dela eta Topagunearekin diagnostiko bat egin nahi dugu epe luzerako plan bat jarraitzeko helburu zehatzekin.

TIPI TOPAn hizkuntza eskubideak bermatu ziren. Horretarako itzultzaile bat kontratatu genuen hitzaldiak erdaraz euskarara eta euskaratik erdarara itzultzeko. Bestetik, Topaguneako Idazkaria, Iker Martínez de Lagos, hizlaria izan zen TIPI TOPAn eta euskararen egoera astialdi hezitzailean aztertu eta eremu horretan hizkuntza duen garrantzia azpimarratu zuen.

- Astialdi Foroan Astialdian esku-hartzen duten eragileetatik kalitatezko eta egungo beharrianetara egokitutako eskaintza sustatzea dugu helburu. Euskara beharrian horien artean dago eta ezin izan dugu egin nahi izan dugun guztia Topagunearekin hasitako elkarlana eten behar izan dugulako.

Emaitzen arabera eta hurrengo urtera begira amankomunezko lana diseinatuko dugu. Hala nola honako hau aztertuko da:

- Bilera kopurua: 2
- Estrategia garatu: BAI
- Topaguneko erantzuna - elkarrekin buruturiko ekintzak: 2



Astialdi Foroak eta astialdi hezitzailearen mugimenduak, orokorrean, euskararen aldeko apustua egiten du. 2010ean jarraituko dugu euskara sustatzen astialdi munduan, hala eta guztiz ere, Topagunearekin erlazioa eta estrategia aurrera eramango dugu baina ez gara mugatuko elkartearen federazio honetara eta zabalik utziko dugu beste erakundeekin harremanetan egoteko.

GAZTEAK EKINEAN EUROPAR BATASUNEN PROGRAMA ZABALTZEA

Gazteak Ekinean Europar Batasuneko programa da, bere helburu nagusia hezkuntza ez formalaren bidez gazteen herritartasuna bultzatzea da. Balio handiko programa gazte eragileentzat, Europa mailan proiektuak aurrera eramateko eta gizartean eta politikan era aktiboan parte hartu nahi duten elkarte eta gazteentzat.



TIPI TOPA proiektua Gazteak Ekinean programaren laguntza gabe ezin izango genukeen aurrera eraman. TIPI TOPA 5.1 ekintzaren barruan kokatzen da eta programa hau izan da diru iturri handiena, propagandarako material guztietan Gazteak Ekinean babesleen artean agertuz.

Astialdi Forotik informazioa web gunearen eta materialaren banaketaren bidez hedatu dugu. Uztailean, INJUVEari programaren bost ekintzak azaltzen dituzten CD-ROM interaktiboak eskatu dizkiogu, irailean Astialdi Foroko taldeen artean banatzeko.

Bestetik, 2009an Hezkuntza teknikariak Gazteak Ekinean programaren 3.1 ekintzaren aste bateko prestakuntza jardunaldietan parte hartu du ekainaren 1etik 6ra arte.

Amaitzeko, Gazteak Ekinean programan adituak diren pertsonekin harremanetan gaude elkartearen edozein zalantza edo proposamena aztertzeko eta hau bideratzen laguntzeko.

- Astialdi Foroko elkarteei programan parte hartzera animatu dugu, hala eta guztiz ere, TIPI TOPA aurrera eramateko programa honetan oinarritu izana izan da taldeentzat adibiderik eta motibazio onena programaren aukera handiaz ohartzeko.
- Web gunean programaren inguruko berriak zabaltzen ditugu. Ekintza bakoitzak baditu bere epeak eta horretaz adi egoten saiatzen gara taldeei ezagutarazteko eta web gunean informazioa argitaratzeko. Bestetik, irailean INJUVEari programaren bost ekintzak oso ondo azaltzen dituzten CD-ROM interaktiboak Astialdi Foroko taldeen artean banatu ditugu.
- Landutako edukiak: 0
- Taldeen interesa programarekiko: URRIA
- Programaren ekintzaren bat aurrera eraman nahi dugun: EZ



* TIPI TOPA Gazteak Ekinean programaren 5.1 ekintza izan da.

Astialdi Foroko taldeek haien interesa azaltzen dute programa honengan eta informazioa eskatzen digute, noizean behin, ekintza zehatzen inguruan. Normalean europar boluntario zerbitzua eta gazte trukeen inguruko informazio bila daude. Hala ere, haientzat premiazoagoak diren beste gaiekin daukagun lan karga dela eta programarekiko interesa urriagoa da. Hurrengo urtera begira, jarraituko dugu taldeen artean Gazteak Ekinean programaren deialdiak zabaltzen eta aholkularitza lana egiten baina ez hezkuntza arloko ildo bat bezala. Bideratzaileak izango gara.

BESTE SAREETAN PARTE HARTZEA

Lankidetzazabalen alde gaude. Hau da, astialdian ahalik eta eragile gehienak lankidetzan aritzea nahi dugu: astialdi taldeak, astialdi zerbitzuak eskaintzen dituzten eta astialdi hezitzaile filosofia daukaten enpresak, eskolaz kanpoko jarduera-egitarauak dauzkaten ikastetxeak, udalak, gurasoak (elkarleen bidez), batzordeak, etab. Beharrezkoa da indarrak batuz joatea eta lanerako irizpide eta helburu komunak izatea.

2009an asko izan dira Astialdi Forotik kanpoko eragileekin izan ditugun harremanak **(ikusi 7. eranskina)**. TIPI TOPAri esker astialdi eta gazte eragile askorekin jarri gara harremanetan eta batzuekin erlazioa denboran mantendu da gaur arte. Aipatzekoa da administrazioetako gazteria teknikariekin (Foru Aldundietakoekin batez ere) egindako harreman sendoa. Erakundeen artean azpimarratu behar dugu Aisi-Hezi Fundazioarekin daukagun harreman estua.

Bestetik, CJEko hezkuntza ez formaleko lan taldean apirileko bileran parte hartu dugu baina udazkenean antolatutako bilerara ezin gara joan denbora faltagatik; Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilurako egon den deialdi bakarra Hezkuntza teknikari berria sartu bezain pronto egin zen eta ez genuen parte hartu; Eskola kontseiluko deialdirik ez da egon.

- Ez da erraza elkartegintzan sare lana bultzatzea elkarrekin boluntarioz osatuta badaude eta lanaz gainezka daudenean. Hala eta guztiz ere, harreman asko abian jarri ditugu astialdian eta gazteekin lan egiten dituzten eragile askorekin. Biltzarra aukera ezin hobea izan da eragileekin harremanetan jartzeko eta aprobeztatu dugu.
- Sare lanak eman digu beste elkarte eta eragileen ikuspuntua, ekintzak eta egoera ezagutzea. Hartu eman horrek astialdian murgilduta gauden eragileei hazteko balio digu, gaur egungo gazteen astialdiaren errealitatea hobeto ezagutzeko eta gure eskaintza hobeto egokitzeko.
- Egin diren bilera kopurua: 63
- Izan dugun parte hartze mota eta maila: ONA
- Sare lanak emandako ondorioak (ekintza amankomunak, txostenak.....edo beste motatako fruituak):

2009an beste astialdi eragileekin izan dugun harremana anitza izan da. TIPI TOPAk aukera ezin hobea izan da astialdi hezitzailean lan egiten duten eragileak ezagutzeko eta haiekin



informazioa elkar trukatzeko. Nahiz eta, TIPI TOPA ostean, nolabait parte hartu zuten elkarte eta pertsona guztiekin bilerak ez izan, emailaz eta telefonoz harreman estua daukagu askorekin.

Instituzioekin harreman handia egon da **(ikusi 7. eranskina)**.

Aisi Hezi Fundazioarekin harremanetan gaude. Erakunde honek eta Astialdi Foroek helburu nagusi berdina dute: astialdi hezitzailea indartzea. Nahiz eta bakoitzak lan ildo propioak izan asko berdinak dira eta bien artean ez zapaltzeko eta lana birritan ez egiteko koordinatzen gara. Hilero harremanetan gaude bai telefonoz, bai emailaz, bai bileren bidez.

Aurten Astialdi Foroan premiazkotzat jo dugu astialdiko kualifikazio berriak. Horren arduradun nagusia erkidego mailan KEI-IVAC (Kualifikazioen Euskadiko Institutua) da eta haiekin hirutan bildu gara gai garrantzitsu honetaz informazioa jasotzeko.

CJEko hezkuntza ez formaleko lan taldean apirileko bileran parte hartu dugu baina udazkenean antolatutako bilerara ezin gara joan denbora faltagatik. Hurrengo urtean ikusi behar da jarraitzeko beharra dagoen ala ez, lan kargaren arabera.

Ulertuz, Bizkaiko Haur Gorren Familien eta Lagunen Elkartearekin ere harreman handi izan dugu Bizkaia aldean behar bereziak dituzten haur eta gazteei astialdi hezitzailean parte hartzeko eskubideak bermatzen saiatzeko.

2010erako beste eragile eta sareekin harremanetan egoteari garrantzia handia emango diogu. Proiektu hau zabalagoa eta malguagoa izatea nahi dugu arlo honetatik aukera gehiago izateko astialdi eragile berriei eta unean-uneko egoerei erantzuna emateko.



5.2 HEZKUNTZA FORMALA

HEZKUNTZA FORMALARI BURUZKO TXOSTENA PLAZARATZEA

2008 urtean zehar EGKk Bizkaiko EHUKo gazte elkartegintzari buruzko azterketa burutu dugu; arlo honetako elkartegintzaren errealitatea ezagutu nahi izan da (harremanak, beharrak, funtzionamenduak, nahiak...) elkarte beraien parte hartzearekin; eta bide batez, Kontseiluak arlo honetako elkartegintzarekin harremanak sustatzea izan dugu helburua. 2009. urteari begira lan hau argitaratu eta plazaratu dugu.



2009an unibertsitateko elkartegintzaren azterketa horren ondorioz txostena prestatu da ateratako material guztiarekin. Argitalpenari "Unibertsitate esparruko elkartearen sarerako hurbilketa" deitu diogu eta unibertsitateko elkartearen artean aurkeztu da abenduaren 16an. Aurkezpenera 6 elkarte etorri ziren (Iratzarri, Lurgorri, Gizarte Zientzietako Kritiko Asanblada, Ikasle Abertzaleak, Bizkaiko kanpuseko Ikasle Kontseilua eta La Voz del Estudiante). Hilabete berean bidalketa prestatu dugu eta hurrengo eragileei bidali diegu: EGKko elkarte guztiak, azterketan parte hartu duten elkarteak, Administrazioetako arduradun politikoak eta Unibertsitateko arduradunak.

Hasiera batean ideia prentsaurreko bat egitea bazen EGKko Batzorde Iraunkorreko Hezkuntza Formaleko arduradunarekin bilduta egon eta gero erabaki da txostena oso tresna egokia izan daitekeela bai ikasle elkartegintzaren mugimenduaz jantzi nahi direnentzat, bai hezkuntza esparruan kokatu nahi diren elkarteentzat, hala nola arlo honen inguruan jakinaren gaineko erabakiak hartu nahi dituztenentzat. Eragile hauei bidali diegu baina ez dugu ikusi hedabide jeneralista aurkezteko beharra.

1. Gizarteratze lana murriztu dugu gazte eta hezkuntza eragileetara. Guztira 73 eragileei banandu diegu txostena. Deskribapenean azaldu dugun bezala ez dugu uste txostena hedabide jeneralistetan agertzeko beharra edo egokitasuna.

- Argitalpena (edukiak, diseinua eta erabilgarritasuna): ONA
- Prentsaurrekoa: 0
- Eragileen erantzuna aurkezpen deialdiari: 6

Hurrengo urterako ez da egongo txostenaren aurkezpenik.



BIZKAIKO UNIBERTSITATEKO ELKARTEEKIN HARREMANA INDARTU

2008. urtean burutu zen azterketan EHUKo hainbat ikasle elkartek parte hartu zuten, horrela beraien elkartegintzaren errealitatea ezagutzeaz gain, harremana sortzea eta garatzea lortu nahi zen eta horri jarraipena ematen saiatu gara aurten.

Iaz Unibertsitateko elkarteen erantzuna oso ona izan zen eta 2009. urtean harreman hau mantentzen eta indartzen jarraitu nahi izan dugu. Udazkenean zehar elkarteekin telefonoz eta emailaz harremanetan egon gara txostenaren aurkezpena prestatzeko. Hau, aitzakia ezin hobe izan da elkarteekin harremana sendotzeko eta aurrera begira EGKrekiko ze motako elkarlana eta landu nahi diren gaiak aztertzeko. Eman nahi diogun baino denbora askoz gutxiagoa eman diogu proiektu honi, Astialdi Foroko koordinazioarekin eta TIPI TOPArekin lanaz gainezka egon garelako.

- Elkarteekin egindako topaketan pausuak eman dugu denboran zehar elkarlana mantentzeko. Taldeen aurretiko jarrera ona da eta beharrezkoa ikusten dute unibertsitatean parte hartzea sustatzea. Unibertsitateko elkartegintza ahul dago eta ekintza zehatzak garatzeko beharra dago egoera hobetzeko.
- Ikasle elkarteentzako laguntza eta onarpena administrazioei ez diogu eskatu. Administrazioetako eta unibertsitateko ordezkariak txostenaren bidalketa egin zaie baina ez gara haiekin zuzenean harremanetan jarri.

Ekintza hau ebaluatzeko alde batetik taldeen erantzuna baloratuko da:

- Bileren deialdiari erantzun duten elkarten kopurua: 6
- Bileratan parte hartu duten elkarten kopurua: 6
- Taldeen inplikazioa: ONA

Bestalde batetik taldearen lana ere baloratuko da:

- Finkatutako helburuak: ONA
- Ekintzak (diseinua eta garapena): ONA
- Ekintzen eragina eta oihartzun: ONA

2010ean harremanetan jarraituko dugu Unibertsitateko elkarteekin. Izandako bileran nahiko prest agertu ziren elkarrekin lan egiteko. Jorratu nahi diren ildoak dira administrazioarekiko harremana eta ikasleei zuzendutako informazio kanpaina edo lana.



6. EGKko BARNE KOORDINAZIO TEKNIKOA

LAN TALDE TEKNIKOAREN BILERAK

Hilabeteen behin izaten dira hiru lurraldeetako egoitza ezberdinetan. Arlo bakoitzean teknikariak aurrera eramaten ari diren proiektuen berri ematen da, proiektuen garapena aztertu eta ebaluatzen da eta barne-formazio eta hausnarketa saioak ere izaten dira, batez ere, arlo teknikoko gai zehatz baten inguruan ezagutza lortzeko.

Urte honetan, irailetik abendura bitarteko hiru bilera genero ikuspegiaren inguruko formazio saioetarako erabili dira.

Ikastaro saio horiek direla eta, eta garaia bera kontutan harturik, bilera teknikoan gabezia sumatu da lan taldean, eta honek eragin handia izan du barne koordinazioa eta komunikazioan.

JARRAIPEN TXOSTENAK

EGK-ko teknikariek burutzen duten lanari buruzko txostenak dira. Hiru mota daude: urteko ebaluaketa memoria, urteko plangintza eta hilabeteko jarraipen eta informazio txostena, azken hau, 2008an hasi gara egiten eta hilabeteen zehar, bakoitzaren plangintza oinarri hartuta, egin dugunaren lanaren berri ematen du, autoebaluaketa bat egiteko balio izateaz gain, bakoitzak bere lanaren jarraipen bat izateko balio du eta baita ere, beste arloetako teknikariek besteak egiten ari direnaren berri izateko.

Hurrengo urteari begira, hilabeteroko txostenak egitekoa mantentzea erabaki da eta besteei txosten hauetan baliogarri izan daitekeen informazioaren berri ematea. Horretarako bide egokiak zehaztu beharko dira.

Urteko ebaluazio orokorrari eta plangintzari dagokionez, proposatzen da urtean gutxienez bi bilera egitea (ekaina eta abenduan) barne funtzionamendu eta urteko plangintza ebaluatzeko. Arloetako koordinatzaileak, hiruhilabeteen behin teknikari guztiekin biltzea, arloetako lanaren ebaluazioa egiteko ere beharrezkoa ikusten da.

EGOITZEN KUDEAKETA ETA LAN TALDE TEKNIKOAREN KUDEAKETA

Egoitzak ondo antolatzen direla bermatzea da helburua; material berriak behar diren edo ez ebaluatu....egoitza bakoitzean dauden teknikari guztien artean egiten da.

2009.urtean hainbat aldaketa izan diren Kontseiluaren lan talde teknikoan. Lan postu berriak sortu dira eta hauek beteko dituzten teknikarien hautaketa prozesuak egin dira, lan postu hauek, hala ere, epean bizitza mugatua dute: Astialdi Biltzarreko Idazkaritza teknikoa, Hezkuntza Formalareko teknikaria eta Landa Eremu proiekturako teknikaria.



Bestalde, iraunkorrak diren hainbat lan postuetako erreleboak eman dira udatik urte amaiera arte. Uda hasieran, arloetako koordinatzailearen erreleboa eman zen. Urria eta azaroa bitartean, Arabako Koordinatzailearen eta Gipuzkoako Koordinatzailearen hautaketa prozesuak garatu ziren. Arabako kasuan, bi aldiz egin behar izan da erreleboa, lehenengoa azaroa hasieran eta bestea 2009ko otsailean. Gipuzkoaren kasuan 2009ko urtarrilean emango da.

BATZORDE IRAUNKORRA/PRESIDENTETZA

Hilabeteen behin egiten dira Batzorde Iraunkorraren bilerak. Bilera hauen aktak jaso izan dira eta iraunkorreko kideei bidali zaizkie. Lan talde teknikoak aurrera eramaten ari den proiektuen berri eman zaie eta iraunkorrak, hainbat gaien inguruan hartutako erabakien berri eman da lan talde teknikoan ere.

Sarritasun honekin bilerak egiten jarraitzea beharrezkoa da, iraunkorrak kontseiluaren nondik norakoen berri izan dezan, proiektuen garapenen ezagutza izan dezaten...hala ere, eta proiektuen inguruan, ezagutza haundiagoa izan dezaten. Etorkizunari begira, iraunkorra osatzen duten kideek proiektuen inguruan jarraitasun haundiagoa izan dezatela izango da erronketako bat. Horretarako metodologia bat zehaztea komenigarria dela pentsatzen da.

EGKREN XXVIII BATZARRA

2009. urteko Batzarra XXXX-ren egoitzan (Donostia) izan genuen, martxoan egin zen. Memoria eta 2008ko plangintza aurkezteaz gain, Biluts elkarteak kontseilu kide egitea bozkatu zen. Aurten izandako batzarrak ia lan berdina eskatu digu. XXVII. Batzarrerako batez ere egitekoak hiru izan dira:

- Elkarrekin harremanetan jarri Batzarrera etor daitezana.
- Banakako bilerak Batzarraren dinamika zein dokumentuen azalpenak emateko.
- Batzarra egunean egitekoren bat hartu: kasu hauetan, botoen zenbaketa.
- Biltzarraren dinamizazioa (EGKko Presidenteak)



7. EGKko PRESIDENTETZA

2009.urtean zehar, Presidenteak egin duenaren artean aipatu beharrekoa honako hau da. EGKren barne mailari begira, Batzorde Iraunkorraren bileren deialdia eta dinamizazioaz gain, lan talde teknikoaren bileretan parte hartu du eta teknikoek berrien hautaketa prozesuan elkarlanean aritu da arloetako koordinatzailearekin eta administrazioarekin.

EGKren ordezkari lanak egin ditu hainbat erakunde publikoeta:

- Eusko Legebiltzarrean

Gazteria legearen inguruan EGK-k eginiko txostena aurkeztu zen Legebiltzarreko Talde Politikoei. Bizi Baldintza materialen teknikariarekin batera, bilerak egin ziren bertako alderdi politikoen kideekin etxebizitza gaiaren inguruan.

- Eusko Jaurlaritza

Bai Gazteria Zuzendariarekin eta baita Lan Sailarekin bildu da, EGKren hainbat proiekturen aurkezpena egiteko eta elkarlan bideak aurkitzeko. Gazteria Zuzendariarekin gainera, bilera informatiboak ere egin dira. Baita Bakearen dirulaguntzaren epaimahian parte hartu ere.

- Hiru lurraldeetako Foru Aldundiekin

EGK-k erakunde hauekin dituen hitzarmenen berri izan dira bilerak, hauen berrikuntza dela eta hainbat aldetatik hausnartu eta adosteko.

Bestalde, urte honetan zehar, beste hainbat erakunderekin ere izan da harremanetan, besteak beste, CJE, Pirinoetako Gazte Kontseiluak, NGK eta EHGK (bakoitzaren egoeraren eta funtzionamenduaren elkarjartze bat izan da), Hizkuntza Behatokia, Eudel, Euskal Eskola Kontseilua eta Innobasque.

Eta azkenik, prentsan eta irratan hainbat agerpen egin ditu EGK hainbat gaietan aurrera daramatzan proiektuak aurkezteko eta baita beren diskurtsoa azaltzeko ere, batez ere etxebizitza, lana, gazteria legea eta Astialdi Biltzarra izan dira gai horiek.



8. 2009KO MEMORIA EKONOMIKOA

2009. URTERAKO ONARTUTAKO AURREKONTUA

EGKko 2009rako AURREKONTUA

DIRUSARRERAK	
Eusko Jaurlaritza. Zuzenekoak	331.248,00 €
Eusko Jaurlaritza. Inbertsioak	6.000,00 €
Bizkaiko Foru Aldundia Gazteria (baiztapenaren zain)	42.000,00 €
Gipuzkoako Foru Aldundia Gazteria (baiztapenaren zain)	30.000,00 €
Gazteak Ekinean: Tipi Topa Biltzarra	32.498,76 €
Bilboko Udala. Parte-hartze Saila	2.000,00 €
Bilbao Bizkaia Kutxa	744,72 €
Proiektu zehatzak aurrera eramateko Kanpoko finantzaketa (negoizatzeko dago)	27.850,00 €
Finantziar Ondasunak	500,00 €
Foroetan, kurtsoetan, partehartzeagatik dirusarrerak	1.500,00 €
Kontseilukideen kuotak	4.000,00 €
GUZTIRA	478.341,48 €

GASTUAK	AURREIKUSITA
1.- OROKORRAK	144.198,71 €
1.1. LANGILE OROKORRAK	108.423,71 €
Koordinazio Nagusia (Presidentzia)	29.285,18 €
22.144,02 € Soldata gordina	
7.141,16 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Administrarritza	40.309,38 €
30.794,10 € Soldata gordina	
9.515,28 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Garbiketa Zerbitzua	7.821,78 €
Bizkaia	4.358,92 €
3.257,80 € Soldata gordina	
1.101,12 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Gipuzkoa	2.329,86 €
Araba	1.133,00 €
Arlo Teknikoen Koordinazioa	31.007,37 €
23.687,85 € Soldata gordina	
7.319,52 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	



1.2. EGITURA ETA KUDEAKETA	35.775,00 €
Kopiagintzak	825,00 €
Bidalketak	200,00 €
Bulego materiala eta informatika	1.200,00 €
Telefonia, faxa eta interneta	7.000,00 €
Konponketak eta mantenua	3.500,00 €
Horniketak	4.000,00 €
Gestoritzak	1.800,00 €
Bestelakorik	250,00 €
Langileen osasunaren zainketa	1.250,00 €
Inbertzioak	6.000,00 €
Batzorde Iraunkorra	2.200,00 €
Batzorde Teknikoa eta barne koordinazioa	2.500,00 €
Harpidetzak	1.900,00 €
Entitate batzuetan parte hartzeko Kuotak	750,00 €
EGKko Batzarrak	800,00 €
Batzorde Teknikorako formakuntza	1.600,00 €
2. LAN ARLOAK ETA PROIEKTUAK	334.142,77 €
2.1 LURRALDEETAKO KOORDINAZIOA	103.324,59 €
Gipuzkoako koordinazioa	31.291,53 €
23.687,85 € Soldata gordina	
7.603,68 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzak	
Arabako koordinazioa	31.291,53 €
23.687,85 € Soldata gordina	
7.603,68 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzak	
Bizkaiko koordinazioa	31.291,53 €
23.687,85 € Soldata gordina	
7.603,68 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzak	
Lurraldetasuna	3.600,00 €
Mapa (kanpoko finantzaketa)	5.850,00 €
2.2. KOMUNIKAZIOA	65.121,90 €
Komunikazio teknikaria	34.107,90 €
26.056,50 € Soldata gordina	
8.051,40 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzak	
Komunikazioa	26.014,00 €
Ahotik at 7 (kanpoko finantzaketa)	5.000,00 €
2.3. JUSTIZIA ETA BERDINTASUN BALDINTZAK	32.164,24 €
Justizia eta Berdintasunerako teknikaria (Bakea) 1/2 lanaldia	13.139,12 €
9.870,82 € Soldata gordina	
3.268,30 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzak	



Justizia eta Berdintasunerako teknikaria (Kulturartekotasuna)	
1/2 lanaldia	13.139,12 €
9.870,82 € Soldata gordina	
3.268,30 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Proiektuak	2.670,00 €
Lankidetzarako Garapena	3.216,00 €
2.4. BIZI BALDINTZA MATERIALAK	59.157,65 €
Bizi Baldintza materialetarako teknikaria	32.557,65 €
24.872,25 € Soldata gordina	
7.685,40 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Proiektuak	3.300,00 €
Kanpoko finantzaketaren zain dauden proiektuak	17.000,00 €
Hizpideak "Landaeremua - medio rural"	6.300,00 €
2.5. HEZKUNTZA	71.635,01 €
Hezkuntzarako teknikaria	31.291,53 €
23.687,85 € Soldata gordina	
7.603,68 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Hezkuntzarako proiektuak	1.500,00 €
Hezkuntza ez formalarako proiektuak	3.600,00 €
Tipi Topa Biltzarra	35.243,48 €
2.6. BESTE PROIEKTU BATZUK	2.739,38 €
GUZTIRA	478.341,48 €



2009. URTEKO BALANTZE EKONOMIKOAREN IRUZKINAK

Hasteko, aipatu beharra daukagu EGK-ko Presidentea, diruzaina eta administraria hilabetero eta beharrezkoa izan bada, hamabost egunero bildu garela EGK-ko aurtengo kontabilizitatea aztertzeko, berrikusteko eta behar diren aldaketak egiteko. Hauek Batzorde Iraunkorrean onartuak izan dira.

Martxoan burutu genuen Batzarrean eztabaidatua eta onartua izan zen 09. urteko aurrekontuan hainbat aldaketa eman dira. Batez ere, “euskal gazteak eta Saharako gazteen arteko I Topaketa” proiektua aurrera eramateko kanpoko finantzaketa jaso dugulako.

Jarraian, EGK-ko azken Batzarrean onartutako aurrekontuari buruzko aldaketa garrantzitsuenak azaltzen dizkizuegu bai dirusarreretan bai gastuetan.

SARRERAK:

Diru sarrerei dagokionean, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak 331.248,00 €etara handitu du **dirulaguntza nominatiboa** eta **ekipamentu informatikoei zuzendutako** 6.000 €tako **dirulaguntza** mantendu du.

Aurten berriro, **Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzarekin** hitzarmen bat sinatu dugu. Kasu honetan hitzarmena hiru urtekoa da eta urte bakoitzarako 42.000,00€ izango dugu.

Bestetik, **Gipuzkoako Foru Aldundiarekin** beste hitzarmen bat sinatu dugu. Hitzarmen hau 2010. urteko uztailak 31an bukatzen da.

Lehenengo aldiz , aurten, **Arabako Foru Gazteria Erakundearekin** 6.000,00 €tako hitzarmen bat sinatu dugu.

Kanpoko finantziaketari dagokionean, aurrekontuetan zeuden 27.850,00 €tatik, Egailan-ek “Enpleguko gazte política batentzako alternatibak “ jardunaldietarako 4-000,00 € eman digu. Finantziaketa honekin aurreikusita zeuden gainerako ekintzak, edo ez dira egin (ekintzetako memorian azaltzen da), edo beste ataletako soberan dagoen aurrekontuarekin egin dira.

Kanpoko finantziaketaren harian, “euskal gazteak eta Saharako gazteen arteko I Topaketa”ren gastuak betetzeko, elkarte batzuen laguntzak (balantze ekonomikoko dirusarretako atalean agertzen den moduan) (25.000,00 eurokoak eta partehartzaileen dirusarrerak 40.710,00 €) eskatu eta jaso dira



EGKko kide diren elkarteek kuotei dagokionean, azkenean jaso den diru kopurua aurrekontuan zehaztutakoa baino txikiagoa izan dela aipatu. Elkarte batzuek ordaindu behar duten kuota ez dutelako ordaindu.

Finantza-interesen atalean, azken emaitza positiboa izan arren, apirilean eta maiatzean likidezi gabe egon gara. Gerta daitekeen likidezi falta betetzeko (ia urtero gauza bera gertatzen da) 30.000,00€tako kreditu linea bat ireki dugu.

Ikastaroen, foroen... bidez izandako diru sarrerak EGKko Teknikariek ikastaroren batean parte hartu izanaren ondorioz jasoak izan dira.

GASTUAK:

Langilegoaren gastuei dagokionean aurreko Batzarrean aurkeztua eta onartua izan zena, soberakinak egon dira hainbat langileren gaixotasun bajak eta gogozko lan uzteen ondorioz. Soberan geratu den diru kopuru horren zati bat kanpoko finantzaketa (Batzarrean aurkeztu zen moduan) behar zuten proiektuen gastuak betetzeko: gaztelink, EGK-ko weba, Ahotik at 7, 2009urteko memoria argitalpenerako, Gazte Legeari buruzko dinamizazioa eta txostena egiteko eta plangintzan jasotako egitekoak garatzeko eta zehaztutako jarduerak sendotzeko,

Azpiegitura eta kudeaketa gastuez aipatu, aurreikusita eta azken gastuen arteko desfasea horniketen (argia, ura....) igoera, egin izan behar ditugun konponketak eta batez ere Bilboko egoitzarako bulego altzariko erosketaren ondorioz izan da.

Jardueren eta ildo estrategikoen gastuei dagokionean, urtean zehar garatu diren aurrekontutik abiatutako ekintzen berri jasotzen da memorian. Azpimarratu beharra dago, aurrekontu eta gastuen artean dagoen **Lurraldetasun arloan** gqztelink erremintako garapena (3 urtetan egiteko aurreikusita zegoen baina azkenean, baliabideak zeudela ikusi eta gero, aurten egitea erabaki zen) **komunikazio arloan**, EGK-ko web berrearen eta Ahotik at V "Gazte Politikak" proiektuaren amaiaren ondoriozkoa da. **Bizi Baldintza Materialetan**, lan taldeak egindako Lurraldearen Antolamendurako Artezpideei buruzko txostenaren itzulpenaren ondoriozkoa da

Bukatzeko, bukaerako diru iturriak kontuan izanik 528.289,41 € eta izandako gastuak 527.506,29 €, 783,12 €tako soberakina egongo da, EGK-ko ornidura- funtsara pasatzen dena.

**2009. URTEKO BALANTZE EKONOMIKOA****DIRUSARRERAK**

1.- EUSKO JAURLARITZA. ZUZENEKOA. GASTU OROKORRAK		331.248,00 €
2.- EUSKO JAURLARITZA. ZUZENEKOA. INBERTSIOAK		6.000,00 €
3.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. GAZTERIA		42.000,00 €
4.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA GAZTERIA		28.790,65 €
5.- ARABAKO GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA		6.000,00 €
6.- TIPI TOPA BILTZARRA		37.220,76 €
6.1.-Gazte Ekinean (Injuve)	32.498,76 €	
6.2.- Bilboko Udala. Partaidetza Saila	2.000,00 €	
6.3.- Bilbao Bizkaia Kutxa.	737,00 €	
6.4.-Biltzarrean parte-hartzaileen dirusarrerak	1.985,00 €	
7.- SAHARAKO KANPAMENTUETARA BISITA		65.710,00 €
7.1.-Saharako bisitako parte-hartzaileen dirusarrerak	40.710,00 €	
7.2.- Donostiako Udala	6.000,00 €	
7.3.- Euskal Fundazioa	6.000,00 €	
7.4.- Gasteizko Udala	4.000,00 €	
7.5.- Euskaltel	6.000,00 €	
7.6.- Bilboko Udaldia	3.000,00 €	
8.- EGAILAN		4.000,00 €
9.- 09 URTEKO KONTSEILUKIDEEN KUOTAK		2.524,20 €
10.- FINANTZIAR ONDASUNAK		639,55 €
11.- BESTE DIRUSARRERAK (FOROAK, IKASTAROAK...)		1.156,25 €
12.- EUSKO JAURLARITZA GAZTERIA (GAZTE TXARTELAKO PUBLIZITATEA)		3.000,00 €

GUZTIRA**528.289,41 €**



GASTUAK	Gastuen zehazkepenak	ERABILIA
1.- GASTU OROKORRAK		134.627,53 €
1.1. LANGILE OROKORRAK		98.132,49 €
Koordinazio Nagusia (Presidentzia)		30.151,48 €
<i>Soldata Gordina</i>	23.738,95 €	
<i>EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza</i>	6.412,53 €	
Administrarritza		42.199,53 €
<i>Soldata Gordina</i>	32.710,57 €	
<i>EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza</i>	9.488,96 €	
Arlo Teknikoen Koordinazioa		17.958,17 €
<i>Soldata Gordina</i>	13.708,78 €	
<i>EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza</i>	4.249,39 €	
Garbiketa Zerbitzua		7.823,31 €
Bizkaia		4.324,71 €
<i>Soldata Gordina</i>	3.232,23 €	
<i>EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantzza</i>	1.092,48 €	
Gipuzkoa		2.394,24 €
Araba		1.104,36 €
1.2 EGITURA ETA KUDEAKETA		36.495,04 €
Kopiagintzak		939,01 €
Bidalketak		110,61 €
Bulego materiala eta informatika		1.388,56 €
Telefonia, faxa eta interneta		5.666,66 €
Konponketak eta mantenua		2.846,61 €
Horniketak		4.183,05 €
Gestoritzza		1.935,64 €
Bestelakorik		213,51 €
Informatiketarako inberbsioak		6.081,85 €
Langileen osasunaren zainketa		948,91 €
Batzorde Iraunkorra		2.585,77 €
Batzorde Teknikoa		1.562,73 €
Harpidetzak		1.736,36 €
Entitate batzuetan parte hartzeko kuotak		757,25 €
EGK-ko Batzarrak		423,25 €
Batzorde Teknikorako formakuntza		1.810,76 €
Bulegoko altzariak		3.304,51 €




GASTUAK	Gastuen zehazkepenak	ERABILIA
2. LAN ARLOAK ETA PROIEKTUAK		392.878,76 €
